

MEMORIA PARTEKATU BATERANTZ

Elgoibar (1956-2016)

Egilea:



Editorea:



Laguntzailea:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



MEMORIA PARTEKATU BATERANTZ

**Elgoibarren 1956tik 2016ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei
eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena**

ARGITUZ, giza eskubideen aldeko elkarte

IKERKETA TALDEA

Gamiz, Aintzane

Moñux, Jon

Ormazabal, Sabino

ARAU ESPARRUA

Astigarraga, Juana Mari

Pego, Laura

ELKARLANEAN GAUZATUTAKO TXOSTENA

Hainbat pertsonak hartu du parte txosten honetan; elkarlanean, datuak bildu dira, kontaktuan partekatu dira, akatsak zuzendu dira, ideiak proposatu dira, aldaketak iradoki dira, txostena maketatu da,... Beraz, ARGITUZ Giza Eskubideen Aldeko Elkartearen lan kolektibo bat da. Eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, Elgoibarko herritarrei, datuak, iritziak, iruzkinak eta kritikak eman baitizkigute, besteak beste. Haien laguntzari esker, txosten hau osoagoa da.

DISEINUA ETA INPRENTA: ORIGINAL Komunikazio grafikoa

LEGE GORDAILUA: LG zk. SS-1132-2017

ISBN: 978-84-697-6927-0

“... memoria eta bere politikak gatazka eremu dira, non auzitan dagoena ez den iraganari buruzko interpretazioa soilik, gaur egun gizarte gisa garena eta gure etorkizun posibleen esanahiak baizik”.

Isabel Piper

“Iragana berreskuratzea ezinbestekoa da; horrek ez du esan nahi iraganak gidatu behar duenik oraina, baizik eta alderantziz, honek nahiago duen erabilpena egingo du iraganaz”.

Tzvetan Todorov



AURKIBIDEA

SARRERA	5
1. HELBURUA, EDUKIA ETA IRIZPIDEAK	7
1.1 HELBURU	7
1.2 EDUKIA	7
1.3 KASUAK SAILKATZEKO IRIZPIDEAK	12
2. ARAU ESPARRUA: "BIKTIMA" KONTZEPTUA ETA BIKTIMAREN ESKUBIDEAK	15
2.1 BIKTIMA IZAERAREN ETA BIKTIMAREN ESKUBIDEEN INGURUKO NAZIOARTEKO ADIERAZPENAK ETA GOMENDIOAK	15
2.2 BIKTIMAREN ESTATUTUA EUROPAR LEGERIAN	17
2.3 ESTATUKO LEGERIAN	18
2.4 AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGERIAN	19
3. GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK ELGOIBARREN	23
3.1 BIZITZEKO ESKUBIDEAREN URRAKETA	23
3.2 OSOTASUN FISIKO ETA PSIKIKORAKO ESKUBIDEAREN URRAKETAK	29
3.3 GIZA ESKUBIDEEN BESTE URRAKETA BATZUK	35
4. LABURPEN TAULA	45
5. BESTE INDARKERIA ETA SUFRIMENDU EKINTZA BATZUK	47
6. ZENBAIT TESTIGANTZA: INDARKERIAZ, BIZIKIDETZAZ ETA MEMORIAZ	49
6.1 INDARKERIAZKO GERTAEREK SOLASKIDEENGAN ERAGINDAKO ZIRRARAK	50
6.2 GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK ETA BIKTIMAK	58
6.3 BIZIKIDETZA GAUR EGUN: ERAGOZPENAK ETA AUKERAK	66
6.4 MEMORIA ETA GEROA	74
7. TESTUINGURUAREN KRONOLOGIA: INDARKERIA GERTAKARI BATZUK ELGOIBARREN	79
7.1 FRANKISMOAREN AZKEN URTEAK	79
7.2 FRANCOREN HERIOTZATIK KONSTITUZIOA ARTE	85
7.3 KONSTITUZIOAREN ONDOREN	90
8. PROPOSAMENAK ETA AZKEN APUNTEAK	115
9. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK	117
ERANSKINA: DROGAREN FENOMENOA ELGOIBARREN, 80. HAMARKADAN	121



SARRERA

Iraganean, Elgoibarren, euskal gizartearen baitan gertatu ohi den bezala, motibazio politikoko indarkeria egoera gordinak bizi izan dira, bortizkeria horiek jatorri desberdinekoak eta mota anitzekoak izan direlarik -erailketak, bahiketak, jazarpenak, sabotajeak, torturak, atxiloketa arbitrarioak, ... -. Kasu guztietan, ordea, ondorio bera sorrarazi dute, sufrimendu eta min sakona biktima ugariaren artean. Urteetan zehar, testuinguruak eta garaiak aldatuz joan dira denbora aurrera joan ahala -diktadura, trantsizioa, demokrazia-, baina indarkeriazko gertakari guztiek ezaugarri bera izan dute, giza eskubideen urraketa larriak izan baitira.

Tamalez, egoera horiek jendearen arteko bizikidetzaren zatikatzailerik bilakatu dira azken urteotan, baita herri honetan ere. Norberak bere zauriei erreparatu die, besteenaz ohartu gabe. Izan ere, tentsioak eta ez ikusiarenak ohikoak izan dira, batzuk zein besteak bizkar emanda bizi izan direlarik; azken batean, elkarrenganako begirunerik eza eta herritarren arteko urrunketa sorraziz.

Gaur egun, ordea, hainbat arrazoi direla eta -luzeegia litzateke horiek hemen azaltzea eta ez da hori testu honen helburua-, geroari behatzeko beste begirada bat antzeman daiteke jendartearen. Iraganeko zauri asko oraindik osatu gabe dauden arren, abagune egokia dirudi herri mailako zatiketa giroa gainditu eta zubiak eraikitzen hasteko, etorkizunean hurbilketaren bidea emango bada.

Baina zatiketa giro hori ezingo da gainditu iragana ahaztuz edo bortxazko gertakari traumatikoak estaliz; ezinbestean aurre egin behar zaie, belaunaldi berriei bizikidetzaren giro bat eskaini ahal izateko. Izan ere, ez dago bizikidetzaren osasuntsua eraikitzerik memoria ahul baten gainean, zuhaitz sendoak sustrai sakonen beharra duen hein berean. Azken batean, memoria anitzak memoria partekatu batean uztartzean datza gakoa.

Hain zuzen ere, memoria kolektiboa norbanakoen zein taldeen oroimenez josia izan ohi da, subjektibotasunez osatua, etengabe berreraikia eta guztiz baliagarria, komunitate bat elkartzeko osagai bateratzailea baita; nahiz eta historiaren orrietan jaso gabea izan sarritan. Halaber, historia iraganeko errealtateaz egindako interpretazioa bat da, historialariek euren begiradaz gertakariak bilduz eraikia baita ere, ahalik eta ikuspegi objektiboena nahiz zientifikoena erabili arren. Izan ere, memoria eta historia osagarriak dira halaber beharrez eta bata bestearen beharra dute. Memoria kultura da bere sakonean eta eraikin kultural gisa, landu egin beharra dago azaleratua zein ikuskatua izan dadin; ez da bat batean edo berez sortzen den zerbait.

Erronka horri ekiteko giza eskubideen markoa oinarritzat hartzea ezinbestekotzat jotzen dugu, berau baita biderik ziurrena eta adostuena munduan zehar. Batetik, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak nahiz eratorriak izan diren beste hainbat hitzarmenek oso onartze maila zabala lortu dute nazioarte eremuan, eta bestetik, munduko hainbat gatazka gainditze bidean ipintzeko euskarri gisa erabili izan dira.

Horren haritik, Nazioarteko Zuzenbidearen irizpide nagusietako batek “urraketa berdinen aurrean eskubide berdinak” aldarrikatzen ditu, eta halaber, biktima guztiek eskubide berberak dituztela urraketa egilea edonor izan delarik. Izan ere, alde anitzeko begirada bermatzen dute; norberaren ikusmira irekitzen eta auzoarena aintzat hartzen laguntzeko tresna paregabeak baitira. Giza eskubideen markoak gizaki oro berdintasunez erreparatzen ditu eta guztioi duintasun berbera aitortzen die, oinarritzko eskubideen jabe direlarik.

Bide horretan, egia guztiak azaleratzea da lehenetarikoa eginkizuna, gertatutakoak ezagutzea, ondoren barneratu ahal izateko. Jakina, horretarako ahots guztiak entzun eta jaso behar dira, ezinezkoa baita alde bakar batek denon kontakizuna egitea edota begirada bakar batetik iragan osoa jasotzea. Kontakizun horretan aniztasuna bermatu behar da, sinesgarritasuna izango badu. Horren harira, iraganeko indarkeriazko oroitzapenez mintzatzean, ezin ukatu zenbait solaskidek diktaduraren

hasierako garaietara jo duela, garai hartako bizipenak gogora ekarrita. Txosten honen helburua diktaduraren aroa zehazki aztertzea ez den arren, testigantza batzuk orriotan jasoak izan dira; lekuko horien iritziz, frankismopeko errepresioa gertutik bizi izanak edota norberaren familian jasandako sufrimenduak, haien bizitzak markatu baititu hein handi batean, baita euren memoriak ere.

Bestalde, elkarrizketa batzuetan adierazitakoaren arabera, Elgoibarren bada gertakari kezagarri bat sakon ikertzea merezi duena; hain zuzen, 80ko hamarkadan emandako arazo sozial larri bat, drogaren fenomenoari buruz ari gara. Zehazkiago esanda, halako herri txiki batean heroinak izan zuen zabalkunde errazaz -salmenta zein kontsumoa – eta ulergaitzaz ari gara, eta horren ondorioz, zuzenean edo zeharka sorrarazi zituen dozenaka gazteren heriotza kopuru ikaragarriaz. Zenbait solaskidek diotenez, drogaren fenomeno horrek nolabaiteko harremana izan zuen ETAk buruturiko erailketa batzuekin, baita garai hartako tentsio politikoeekin ere. Gaur egun datu nahikorik ez daukagunez, gaia sakon ikertzea proposatzen dugu. Hori dela eta, gai honi buruzko testigantza batzuk amaierako eranskinean bildu ditugu, txostenaren atal batzuetan aipamen batzuk jasotzen badira ere.

Beraz, azalpenak eman ondoren, Elgoibarko memoria partekatu horren bila eta giza eskubideak oinarritzat hartuta, Argituz elkarteak -giza eskubideen aldeko elkarte- txosten honen bideari ekin dio, lehenago Erreterian burutu zuen azterketaren ildo beretik; iraganeko indarkeriak zein sufrimendu anitzak aintzat hartuz, elgoibartarren etorkizuneko bizikidetza eraikitzen lagunduko duelakoan.



1. HELBURUA, EDUKIA ETA IRIZPIDEAK

1.1. TXOSTENAREN HELBURU NAGUSIA

2016 urtearen udazken aldera, Elgoibarko Udalak bere ekimenez eta adostasunean hartutako erabakiaz, honako hau eskatu zion Argituz elkarte honi: txosten bat gauzatzeko, errespetuz, zorrotasunez eta une horretan ahal zen heinean, Elgoibarko historia hurbilean, izandako giza eskubideen urraketei eta motibazio politikoko beste urraketa batzuei buruzko gertakariak, datuak, iritziak eta proposamenak jasotzeko.

Lan hau herri honetako iragan hurbilaren ikuspegi kritiko bat da, eta horren helburua da ez ahaztea, gertatutakoaren memoria aniztuna eraikitzea eta bizikidetza berreraikitzea. Ezagutzen ez genituen gertakarien berri izateko balio izateaz gain, etorkizunean antzeko gertakaririk edota urraketarik gertatzen ez dela bermatzeko ere balio dezake, bai eta gure udalerrian dagoen aniztasuna aitortzeko, errespetatzeko eta elkarrekin bizitzen ikasteko ere.

Txosten hau ekarpen baliagarria izango da Elgoibarko iragana ezagutzeko eta, hortik abiatuta, egungo eta etorkizuneko bizikidetzaren oinarriak sendotzeko. Hori dela eta, txosten hau irekita jarraitzen duen prozesu baten parte da; lana ez dago bukatuta. Oraindik ere ezagutzen ez ditugun elementuak daude, gai honi buruz hitz egiten jarraitu behar da eta etorkizuneko bizikidetzaren oinarriak sendotu behar dira.

Errenteriako Udalak 2014. eta 2015. urteetan antzeko txosten bat prestatu zuen, eta une horretan Udalbatza osatzen zuten bost udal-taldeek (PSE-EE, EH Bildu, EAJ, PP eta Errenteriako Ezkerra) adostasuna izan zuen. Errenterian izandako esperientzia positiboa erreferentzia izan dugu lan hau gauzatzeko eta hemen aurkezten dugunaren oinarri gisa erabili da. Hori dela eta, bi txostenek metodologia eta helburu berdinak dituzte.

1.2. TXOSTENAREN EDUKIA

Lan honek hiru atal nagusi ditu:

1. Zer irizpide erabiltzen ditugun eta zergatik.
2. Gertakariak.
3. Jaso ditugun zuzeneko lekukotzak.

1. Lehenengo atalean, memoria kolektiboa nola ordenatu dugun adierazten da, giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen arauko tresna eta irizpideei jarraikiz. Metodologia estandar batera hurbiltzen saiatu gara, helburu hauekin:

ð) Gertatu zaigun guztia zentzuz biltzeko modu bat erakustea eta, atal bakoitzaren barnean, ezagutzen diren kasu guztiak azaltzea, egileak edonor izanik ere.

ß) Atzera begiratzeak ez du esan nahi iraganera kateatuta gaudenik; alderantziz, ikasteko eta ideien aniztasunean, errespetuan eta askatasunean oinarrituriko bizikidetza eraikitzeko oinarri komun bat izateko balio du.

Hemen zehazten ditugu garaia, sailkatzeko irizpideak, araudi-esparrua eta biktimaren definizioa arau eta lege nagusietan.

2. Bigarren atalean, izandako gertakariak biltzen ditugu: udalerrian gertutako bizitzeko eskubidearen urraketak, osotasun fisikoaren zein psikologikoaren urraketak eta giza eskubideen gainerako urraketak. Taulak, laburpen-argazkiak etab. ere ageri dira. Zehazki urraketak ez diren gertakariak bereiz jaso dira, argi eta garbi ikus daitezzen eskubideen urraketak, gaizki-ulertuak izateko arriskurik gabe. Garrantzitsua da, gainera, gertakari bakoitza dagokion denbora-esparruan kokatzea.

3. Txostenaren hirugarren atalean, bederatzi lekukotza eta testuinguru osoaren kronologia ageri dira. Lekukotzak izan dira gure kontaktu eta iturri nagusiak; landa-lana izan da datu-baseko datuak egiaztatzeko erabili dugun bide nagusia. Nor elkarriketatu erabakitzeke, orekari eusten eta lehenago ere aipatu dugun aniztasun hori erdiesten ahalegindu gara.

1.2.1 MOTIBAZIO POLITIKOA

Txosten honetan, arrazoi politikoak direla eta gauzatu diren giza eskubideen urraketak eta indarkeriazko gertakariak biltzen dira. Egia da desiragarria litzatekeela gure gizartea kolpatzen duten beste indarkeria mota batzuk ere aintzat hartzea; izan ere, bakeak, guztiok barne hartuko gaituen bake iraunkor baterako bideak, ezin ditu kanpoan utzi generoak, xenofobiak, bazterkeria sozialak, narkotrafikoak eta abarrek eragindako desberdinkeriei loturiko indarkeria-kasuak. Horietan ere esku hartu behar dugu gizarte hobia lortu nahi badugu, indarkeriarik gabeko gizartea, biktima guztiak aitortu eta babesten dituen.

Hala ere, indarkeriaren tratamendu integral hori etorkizunean egiteko lan gisa utziko dugu. Txosten honetan arrazoi politikoak direla eta gauzatutako indarkeria baino ez dugu aztertuko. Termino guztiz deskriptiboa da; indarkeria sailkatzeke tresna bat baino ez da, testuinguru zehatz bati egiten dio erreferentzia, eta indarkeria horren erretratu egiten du, justifikatu gabe, eta inolaz ere eragindako kalteak gutxietsi gabe. Sailkapen horren bitartez, indarkeria motak bereiz ditzakegu, horien atzeko arrazoiaren arabera, bestelako baloraziorik egin gabe.

Txosten honetan, giza eskubideen urraketak eta bestelako indarkeriazko ekintza batzuk deskribatzeko “politiko” adjektiboa erabiltzen denean, nazioarteko adierarekin erabili da, berezitasun hauek dituzten ekintza kriminalak bereizteko:

- Ekintza gauzatzen duenak (biktimarioa) edo hautatutako biktimak (edo biktima taldea), giza eskubideen urraketa jasango duenak, edo biek, dute izaera hori.
- Gauzatzen diren ekintzek estatus politikoa zein legeak aldatzeko nahia dute edo hori aldarrikatzen dute. Alderantziz ere izan daiteke: egoera edo legeak aldatu nahi dituztenak jazarri eta zigortu nahi dira, eta ekintza horiek justifikatzeko terrorismoaren aurka borrokatzen ari direla edo gertakari okerragoak saihesteko ari direla esaten da.
- Gizartean edo politikan eragin nahi da, herritarrek ez ekiteko zein herritarrak geldiarazteko beldurra eragin nahi da edo eskarmentu gisa erabiltzen da.

2008ko ekainean, Eusko Jaurilaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen biktimak*¹ txostena plazaratu zuen, Eusko Jaurilaritzak 2007ko urrian emandako agindu bati jarraikiz. Txosten horretan azaltzen zen izaera politikoa duten

¹ LANDA, Jon Mirena (2008). *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena*. Eusko Jaurilaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritza.

ekintzak direla nolabaiteko antolakuntzarekin gauzatzen direnak, gizartean edo politikan eragiteko asmoa dutenak edota gertakari isolatu bat edo halabeharrezko bat ez dela adierazten duen eredu bati jarraitzen diotenak. Bestalde, izaera politikoa biktimaren hautaketan ere isla daiteke. Xede gisa oposizioko taldeak edo pertsonak hautatzeak pertsona zein talde horiek geldiarazteko nahia islatzen du, bai eta haien antolamendua urratzeko nahia eta etsaitzat hartzen direnak indarkeria erabiliz desagerrarazteko nahia ere. Beste kasu batzuetan, ez da biktimen bereizkuntzarik egiten edo ezaugarri soziologiko batzuk partekatzen dituzte, baina ezaugarri horiek ez dute berez eta modu isolatuan izaera politiko sendorik; horrelako kasuetan, baina, erasoaren helburua da gizartea beldurtzea eta gizarteko sektore zabaletan inpaktu sakona eragitea.

Azken garaietan euskal erakundeek egindako lege eta txosten ugari behin eta berriz erabiltzen dute termino hori zertaz ari diren zehazteko eta indarkeriak sailkatzeko, hainbat indarkeria mota ez nahasteko helburuarekin.

1.2.2. AZTERTUTAKO ALDIA

Ikerketa hau hasteko, 1956. urtetik aurrera izandako gertakariei buruzko azterketa bat egin da. Urte horretako otsailaren 10ean, Frankoren erregimenak lehen aldiz salbuespen-egoera agindu baitzuen Espainiar Estatuan. Hain zuzen, 1936.eko golpe militarretik hogeitaz urtera, diktaduraren garaiko errepresio aro berri bati eman zion irekiera, gorpuzten ari ziren langileen zein ikasleen grebak eta mugimendu antifrankista, orokorrean, gogor zanpatu asmoz. “Estado de excepción” haren aginduz, Espainiaren Foruen 14. eta 18. artikulua baliogabetu ziren; artikulua horiek bizitokia hautatzeko eskubideari eta atxilotuak polizia-etxeetan 72 orduz baino gehiagoz egonartzeko eskubideari eragiten zieten.

Horrek ez du esan nahi urte hori baino lehen gertatutakoa ahaztu dugunik. Eusko Jurlaritzak, foru-aldundiek eta hainbat udalek jarduketa ildo bikoitza dute, lan honen arloan, “memoria historikoa” eta “memoria hurbila” ardatz dituztenak. Une honetan bi memoria horiek bereiz aztertzeak ez du esan nahi uneraren batean bi horiek bat egingo ez dutenik; garai jakin batean bereziki -joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadak-, bi memoriak aldi berean gainjarriak agertzen baitzaizkigu, aipaturiko bereizketa gaindituz. Are gehiago, etorkizunean bi memoria horiek barne hartuko dituen lege bat egitea onuragarria litzatekeela uste dugu.

Elgoibarri dagokionez, praktikan, esparru horietan egiten diren jarduketak ez dira gainjartzen, baizik eta paraleloan mugitzen dira, modu koordinatuan. Duela gutxi, 2017ko urtarrilaren 30ean, udalerririk honetan Duintasunaren Kolunbarioa inauguratu zen, Olasoko hilerriaren ondoan, bai eta Iñigo Arregui artistaren “Duintasuna” eskultura ere. Toki horretan hainbat hobitan aurkitutako 27 pertsonaren gorpuzkiak gorde dira; pertsona gehienak identifikatu gabe daude. Ibilbide luzearen ikuspegi panoramikoa izateak gertakariak ulertzen laguntzen digu, ondo-ondoan jartzeko beharrik gabe.

Beste alde batetik, batzuek kritikatzeko dute irailaren 22ko 29/2011 Legeak (Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko), eta hori garatzen duen araudiak, ez dituela biktima guztiak kontuan hartzen. Hori begi-bistakoa da. Hala ere, kontakizuna 1956. urtean hasteak ez du esan nahi soilik gertakari eta biktima mota bat aztertu dugunik eta gainerakoak ahaztu ditugunik, ez lehenagoak eta ez gerokoagoak. Hori argi ikusten da txosten hau irakurtzean.

Gure ikuspegitik, giza eskubideen urraketa guztiak arbuigarriak dira eta biktimek egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko eskubidea dute, gertakariak edonoiz izanik ere eta urraketa edonork egin duelarik ere. Hori dela eta, ez ditugu inondik inora ukatzen 1956. urtea baino lehen gertatutako urraketak eta eragindako mina; hala ere, hori sakon ikertu behar da oraindik ere. Ez dugu baztertzeko etorkizun hurbilean euskal lege integral bat onestea, bi memoria horiek barne hartuko dituen.

1.2.3. MEMORIA BERRESKURATZEA

Duela gutxi, 2017.eko otsailaren 22an, Sara Buesak, duela 17 urte ETak hildako Fernando Buesaren alabak, sektarismoarekin bukatzearen aldeko hitzaldi zirraragarria eman zuen, eta hau esan zuen bertan: “ETaren biktima naiz, eta GALEn zein giza eskubideen edozein eratako urraketen kontra nago guztiz. Argi eta garbi defendatzen dut biktima guztiek eskubide berdinak izan behar dituztela”².

Mari Carmen Hernandezek, ETak 2000. urtean Durangon hil zuen PPko zinegotzi Jesus Maria Pedrosaren alargunak, eta Axun Lasak, 1982an torturak jaso zituenak eta GALEk hurrengo urtean hil zuen Joxean Lasaren arreba denak, ere antzeko jarrera dute. Biek ala biek 2017ko martxoaren 1ean egin zen Amnesty International erakundearen *Iraganari aurre egin, etorkizuna eraikitzeko; egia, justizia eta erreparazioa Euskal Herriaren testuinguruan*³ izeneko txostenaren aurkezpenean parte hartu zuten. Bilbon egin zen prentsaurrekoan, hau esan zuen Mari Carmen Hernandezek: “biktima guztiok, gure izaera edozein izanik ere, eskubide bera dugu dagokigun egia, memoria, aitortza eta erreparazioa jasotzeko”. Axun Lasak hau esan zuen: “biktima bat ulertzeko gai dena biktima guztiak ulertzeko gai da; sufritu dugun guztiok berreraiki behar dugu memoria, bai baitakigu min hori berdina dela bai batzuentzat bai besteontzat”.

Giza eskubideen urraketak pairatu dituzten askotariko biktimenganako jarrera ireki horrek sektore batzuetan erantzun kontrajarriak eragin ditu. Hori dela eta, 2015ean, hau idatzi genuen Argituzeko kideok:

Giza eskubideen urraketen hainbat egile daude, eta bakoitzak bere motibazioak, ideologiak eta ezaugarriak ditu. Hori islatu behar da zer gertatu den azaltzen duen kontakizunean, nahi ala nahi ez Euskal Herrian elkarrekin bizi beharko diren askotariko memorietan. Egia ofiziala edozein izan daiteke, eta gizarteak egia hori hautemateko duen modua oso bestelakoa izan daiteke. Egia ofiziala eta egia soziala zenbat eta gertuago egon, orduan eta hobea izango da lehenengoaren kalitatea.

*Gainera, ez dugu ahaztu behar memoriaren atzetik historia etorriko dela; urteek aurrera egin ahala, hori inpartzialagoa, aseptikoagoa eta, azken batean, zientifikoagoa bilakatuko da. Historia ofizial bat eraikitzeke saiakera orok (eta ez memoria ofizial bat, argi gera dadila ñabardura hori) benetako demokrazia eraginkor batekin bateraezina izango litzatekeen egoera batera eramango gintuzke*⁴.

² Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioko presidenteorde Sara Buesaren hitzaldia, Gasteizko Artium museoan, 2017-02-22an, Fernando Buesaren eta Jorge Diezen hilketaren XVII. urteurrenaren harira (http://www.fundacionfernandobuesa.com/files/20170222_Discurso%20_SB.pdf)

³ AMNESTY INTERNATIONAL. <https://www.es.amnesty.org/>

⁴ ARGITUZ. “No habrá comparaciones si no se discrimina”. *El Correo* eta *El Diario Vasco*, 2015-11-05. <http://krakenberger.org/andres-al-habla/articulos/no-habra-comparaciones/> Azken konexioa: 2017-03-02.

1.2.4. LEKUKOTZEN BILKETA

10 pertsonari egin zaizkie elkarriketak⁵, 6 emakumeri eta 4 gizoni, hain zuzen ere. Hala ere, beste pertsona askok ere laguntza eskaini dute, proposamenak eginez eta elkarriketatzeko pertsonak aurkitzen lagunduz. Beste batzuek datuak biltzen eta kontrastatzen lagundu dute. Taldeko pertsonarik gazteenak 40 urte inguru ditu eta zaharrenak, berriz, 80 urte.

Elgoibarko Udalean ordezkaritza duten hiru alderdi politiko bakoitzak bi pertsona proposatu zituen, elkarriketatzeko. Horiez gain, lekukotza eman duten beste pertsonak Udaletxeko alderdi politikoekin loturarik gabekoak dira.

Elkarriketatutako pertsona baten kasuan, izen-abizenen siglak eman dira. Ertzain baten neska-laguna da eta, horregatik, uste du oraindik egoera ez dela egokia bere izena eta ideiak publikoki ezagutarazteko. Txosten hau idatzi duen taldearekin aztertu ondoren, salbuespen bat egitea erabaki genuen, eta islatu nahi izan genuen nor esaten duen baino garrantzitsuagoa dela zer esaten den eta nondik esaten den; horregatik, elkarriketa baldintza horietan egitea onartu genuen. Gainera bere testigantza, pentsatzeko era berdintsua duen beste pertsona baten erantzunekin osatu da, azken honek ere ez baitzuen bere identitatea aditzera eman nahi.

Halaber, udalerriko biktimen bi familiartekoren iritzia ere jakin nahi izan genuen. Haiekin harremanetan jarri baginen ere, hainbat arrazoi direla eta txostenean agertzeari uko egin zioten; haietako batek elkarriketa egin ondoren erabaki zuen ez agertzea eta bere hitzak ere ez jasotzea. Saiakerak egin ziren Eibarren urtero egiten duten ekimenaren antzeko bat egiteko; han, urtero, gutun ireki bat bidaltzen diote ETari, beren lagun Patxi Zabaleta zergatik hil zuten azaldu dezaten eskatzeko. Ez dirudi oraindik horretarako une egokia denik.

Askotariko iritzi horiek Elgoibarren elkarrekin bizi diren jarreraren aniztasuna islatzen dute. Horrek ez du esan nahi beharrezkoa denik guztiekin ados egotea; hala ere, aintzat hartu behar da jarrera horiek guztiak 12.000 biztanle inguruko komunitate batean existitzen direla, eta guztiek ingurune fisiko berean elkarrekin bizi behar dutela. Horrek esan nahi du ideia horiek partekatu ez arren, errespetatu behar direla eta arlo bakoitzean elkarguneak bilatu behar direla, kasu bakoitzean gutxiengoan ideiak eta ideia disidenteak behar bezala kudeatu ahal izateko.

Hona hemen txosten hau burutu ahal izateko ezinbestekoak izan diren pertsonen zerrenda. Elkarriketetan parte hartzeko egin duten ahalegina eta azaldutako jarrera baikorra eskertu nahi genieke. Bihoakie hemendik gure eskerrik beroena.

- **ALUSTIZA ALONSO, Nerea.** PSE-EEko zinegotzia Elgoibarko udaletxean gaur egun eta zinegotzi ohia Eibarko udaletxean (1999-2011).
- **ARREGI GORROTXATEGI, Mari Juli.** Ezker abertzaleko kidea.
- **ARRIOLA ETXANIZ, Justo.** Mugimendu alternatiboetan ibilia, metaleko langilea eta *“A los pies del caballo”* liburuaren egilea.
- **BEITIA ARRIOLA, Ane.** Elgoibarko alkatea eta Eusko Alderdi Jeltzaleko kidea.

⁵ Elkarriketa gehienak euskaraz burutu dira eta hitzez-hitz transkribatu dira ondoren txostenean txertatzeko.

- **BERASALUZE IRIONDO, Arantxa.** Euskaltzalea eta Eusko Alderdi Jeltzalearen hurbilekoa.
- **BASTARRIKA GARATE, Juan Jose.** Euskadiko Ezkerrako zinegotzi ohia Elgoibarko udaletxean (1983-1987) eta PSE-EEren hurbilekoa.
- **GUERRERO LABANDA, Bruno.** Konstituzionalista, PP eta Ciudadanos-en hurbilekoa.
- **MENDIZABAL ALBERDI, Pello.** Herri Batasuneko zinegotzi ohia Elgoibarreko udaletxean (1991-1999).
- **OTEGI LOPEZ DE MURILLAS, Noemi.** EGiko liberatu ohia, Eusko Alderdi Jeltzaleko kidea eta irakaslea.
- **S. J. A.** Ertzain baten bikotea.

1.3. KASUAK SAILKATZEKO IRIZPIDEAK

Askotan esaten da biktimak berdindu egiten direla biktima bilakatzen diren unean. Sarri, giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimak sailkatzeko, urratzailea nor izan den, delitua nork egin duen, biktimarioa zein den, hartzen dugu aintzat. Hala ere, kausak askotarikoak izan daitezkeen arren (eta hori islatu beharra dago, kasuistikak ez nahasteko), biktima guztiak berdinak dira dagozkien eskubideei dagokienez, hori printzipio unibertsal bat baita: giza eskubideen urraketa berdinei egia, justizia, aitorpena eta erreparazioa jasotzeko eskubide berdina dagokie. Horrez gain, ezin ditugu ahaztu berdintasun-printzipioa eta desberdinkeriarik ezaren printzipioa.

2005eko abenduaren 16an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak, bere 64. osoko bilkuran, 60/147 Ebazpena onetsi zuen: “Giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak jasan dituzten biktimek errekurtsoak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta arauak”.

XI. printzipioa bereizketarik ezari buruzkoa da, eta hau dio:

25. Oinarritzko printzipio eta arau hauen aplikazioa eta interpretazioa bat etorriko dira, salbuespenik gabe, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauekin eta nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin, eta ez da inola ere bereizkeria onartuko, mota eta arrazoia zeinahi direla ere.

Printzipio hori ukatzeko, esan egiten da batzuk dena nahasten saiatzen direla eta kasuistika guztiak zaku berean sartzen dituztela.

Horri buruz dugun iritzia argi islatzen da lehenago ere aipatu dugun Argituzen artikuluan. Hau esaten da bertan:

Topiko ugari baztertu behar ditugu, arinkeriaz tratatzen baitituzte giza eskubideei loturiko gaiak eta, azken batean, giza eskubideen kontra egiten dute. Azken aldian gehien erabili den topikoetako bat da ezin direla ETaren biktimak eta beste biktima batzuk parekatu, parekaezinak direlako. Dirudienez, beste biktima batzuk ere badaudela aitortuz gero, terrorismoari zilegitasuna ematen zaio. Hala ere, beste biktima batzuk ere aitortzea giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat itunetan ezarritako betebeharrak betetzea da, eta itun horiek diotena betetzeak inori zilegitasuna ematen badio, Zuzenbide Estatuari ematen dio zilegitasuna, ez terrorismoari⁶.

Gertatu den guztia ez da berdina; hori egia da. Hala ere, urte hauetan pairatu den sufrimendu guztia bildu behar da, nahastu gabe, modu ordenatuan, batzuk eta besteak alderatu gabe, bizikidetzaz berriz ere eraiki ahal izateko. Memoria partekatu batean ezin daiteke ezer ahaztu. Giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbide-estandarren arabera sufrimendu guztia giza eskubideen urraketa baten ondorio ez denez, beharrezkoa da gertatutako guztia behar bezala sailkatzea eta ordenatzea, jarrera irekiarekin; izan ere, Gesto por la Paz elkarteak esan zuen moduan “jarrera irekia izatea funtsezkoa da”⁷. Horrez gain, sailkapen horrek inklusiboa izan behar du, biktima guztiek memoriarako duten eskubidea bermatzeko, joan den azaroaren 10ean Elgoibarko Udalak berak esan zuen moduan.

Alde horretatik, bi plano hauek bereizten ditugu:

Giza eskubideen urraketak

Lan honek aztertzen dituen eskubide nagusiak bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta psikologikorako eskubidea dira. Horrez gain, beste era batzuetako indarkeriei buruzko datuak eta lekukotzak ere jasotzen saiatu gara: askotariko jazarpenak, pertsonen aurkako mehatxu larriak, estortsio ekonomikoa, adierazpen askatasuna ukatzea, askatasun demokratikoak ukatzea edo ondasun higiezinak egindako erasoak, bakoitza bere garrantzi-mailarekin.

Ikusi dugu oraindik ere biltzeko asko dagoela. Horrez gain, pertsona batzuek oraindik ere ez dute behar besteko indarrik edo nahirik hainbeste min eragin dieten gertakariak kontatzeko eta berriz bizitzeko. Beste alde batetik, beste datu batzuk oraindik ez dira publikoak. Hala ere, ezin da itxaron gertatutako guztia argitu eta bildu arte, ekiten jarraitu behar dugu, bizitza aurrera baitoa eta gertakari batzuk, bai eta haien protagonistak, duela berrogeita hamar urte baino gehiagokoak dira. Berandu baino lehen biktimak eta haien familiak zaindu eta lagundu behar ditugu, bai eta dagokiena jasotzen dutela bermatu ere: jasandako kalteekiko proportzionala den erreparazioa, egia eta justizia, bereizketarik gabe. Horrez gain, bermatu behar dugu ez dela gauza bera berriz gertatuko eta, horretarako, haien biktimazioa eragin duten kausetan beharrezko aldaketak egin beharko ditugu.

Aipatu dugun moduan, giza eskubideen nazioarteko arauen urraketak eta giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzten biktimei, egia eta justiziaz gain, jasotako kaltearekiko proportzionala den erreparazioa ere badagokie. Erreparazio horrek hauek hartuko ditu barne: lehengoratzeko, kalte-ordain ekonomikoa, birgaitzea, beharrak asetzea eta errepikatuko ez dela bermatzea. Eta hori erakundeen artean egin behar da.

⁶ “No habrá comparaciones si no se discrimina”. *El Correo* eta *El Diario Vasco*, 2015-11-05.

⁷ EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA. *Las víctimas de actuaciones indebidas del Estado en la lucha antiterrorista*, 2011ko ekaina. ETAk urte horretan utzi zituen armak. Eta hau ere esaten zuen: “beharrezkoa izango da memoria-prozesuak lankidetzan garatzea, bat etortzeko nahiarekin, eta ez etsaitasunean”.

Horri dagokionez, Elgoibarko Udalak, udalerri-mailan, dagozkion jarduketak egiten jarraitu beharko du memoria berreskuratzeari eta udalerriko biktimak aitortzeari dagokionez, eta falta diren kasuak txertatu beharko ditu. Hauek dira, besteak beste, bere egitekoak: laguntzea, omenaldiak egitea, oroitzeko ekitaldiak egitea, gertatutakoa hainbat bitartekoren bidez ezagutaraztea (topaketak, ikus-entzunezkoak, erakusketak, hezkuntza eta transmisiorako proiektuak...), behar bezala argitu ez diren gertakariei buruzko tokiko ikerketak sustatzea,... Horretarako, mesedegarria izango litzateke erakundeen arteko koordinazioa, sinergiak elkartzeko, informazioa eta irizpideak trukatzeko eta lan bera behin baino gehiagotan ez egiteko.

Beste sufrimendu batzuk

Aurreko ataletik kanpo, badaude beste hainbat kasu nazioarteko giza eskubideen estandarren arabera zehazki giza eskubideen urraketatzat hartzen ez direnak. Gertakari horiek ez dira sartzen Nazio Batuek, Europar Batasunak edo estatuko zein erkidegoko legediak ematen duen biktimaren definizioan; definizio horiek txosten honetako 2. atalean ageri dira, araudi-esparruari, bizitza-kontzeptuari eta eskubideei buruzkoan.

Izaera politikoa duten gertakari bortitzak dira, baina ezin dira inolaz ere giza eskubideen urraketekin alderatu. Hala ere, ezin dira bazter utzi, gure historiaren parte direlako eta gertakari bortitz horien atzean ere sufritu duten eta sufritzen duten gizakiak daudelako. Gainera, kasu batzuk ez dira behar bezala ikertu, familia eta abokatu batzuen iritziz, eta beharrezkoa da horiek argitzea.

Hala ere, hiltzaileak eta hildakoak daude. Indarra behar ez den moduan erabiltzeko kausak, helburuak, asmoak eta egileak ez dira berdinak, eta ez dira berdinak, halaber, zigorgabetasun-mekanismoak, hartutako erantzukizuna... Hori argi gelditu beharko litzateke.

Horrez gain, edozein modalitate eta posiziotan, batzuek tiro egitea erabaki dute, eta beste batzuek ez. Pertsonaren batek gainean arma bat badarama, une zehatzen batean arma hori erabiltzeko prest dagoelako da. Hala ere, baliteke beste norbaitek lehenago berari tiro egitea. Edonola ere, zaila da giza eskubideetan sartzea borrokalari armatua izatea erabaki duen norbait, segada batean erailtzen ez badute behintzat. Hala ere, horretarako, pertsona horrek armak erabiltzeko batere asmorik ez zuela ziurtatuko duten lekukoak behar dira. Eztabaidagarria da, baina posiblea.

Horregatik, txosten honetan, kasu hauek beste atal batean jaso dira, argi eta garbi gera dadin zer den eskubideen urraketa bat eta zer ez. Horrekin, gainera, ahal den neurrian gaizki ulertuak ere saihestu nahi dira, nahiz eta gertatuko diren, eta hori ulergarria da hainbeste urtetan pilatu den mina eta herra kontuan hartuta.

Bizitzeko eskubidearen urraketa jasan duten biktimen prozesua bukatzen dugunean, Elgoibarko Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek, adostasunen bitartez, eman beharreko hurrengo urratsak definitu beharko lituzkete, nazioarteko estandarren arabera giza eskubideen urraketatzat hartu ezin diren gertakari horiek eta horietan bizia galdu zuten edo larriki zauritu ziren pertsonak udalerri-mailan nola oroitu aztertzeko.



2. ARAU ESPARRUA: “BIKTIMA” KONTZEPTUA ETA BIKTIMAREN ESKUBIDEAK

Hurrengo orrialdeen helburua da azalpen bat eskaintzea, laburra bada ere, “biktima” kontzeptua definitzen duten eta biktimen eskubideak mugatzen dituzten giza eskubideen nazioarteko sistemaren arau nagusien eta beste tresnen norainokoa eta edukia ulertzen laguntzeko. Horretarako, nazioarteko esparrutik hasiko gara; gero, nazioz gaindiko europar esparrua zertan den ikusiko dugu, eta, amaitzeko, Espainiako esparrua jorratuko dugu, bai estatu mailakoa, bai autonomikoa. Edonola ere, ez da tresna horien guztien azterketa zorrotz bat, “biktima” kontzeptua eta biktimen eskubideak zehaztean erabakiorrak izan direnen analisi labur bat baizik.

2.1. BIKTIMA IZAERAREN ETA BIKTIMAREN ESKUBIDEEN INGURUKO NAZIOARTEKO ADIERAZPENAK ETA GOMENDIOAK

Nazioarteko adierazpenak, gomendioak eta beste dokumentu batzuk erabakigarriak izan dira biktimei egia, justizia eta erreparaziorako eskubideak bermatzeko. Arau-ikuspuntu batetik estatuentzat ondorio loteslerik ez duten dokumentuak badira ere, tresna egokiak dira, estatuei biktimen eskubideak betetzeko hertsatuki eskatzen dieten eta estatu horiek horretarako bidezko neurriak har ditzaten sustatzen duten tresnak.

Hasteko, 1985ean Nazio Batuen esparruan emandako lehen definizioa aipatuko dugu:

2.1.1. “BIKTIMA” KONTZEPTUA: “DELITUAREN ETA BOTERE ABUSUAREN BIKTIMENTZAKO JUSTIZIAREN OINARRIZKO PRINTZPIOEI BURUZKO ADIERAZPENA”⁸

Nazio Batuen Batzar Nagusiak munduko milioika pertsonen “delituen eta botere-abusua dakarten beste ekintza batzuen ondoriozko kalteak” jasan dituztela eta “biktima horien eskubideak aitortu ez direla” onartu zuen 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean.

Onarpen horretatik abiatuta, eta adierazitako Ebazpenaren esparruan, “Delituaren eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarritzko printzipioei buruzko adierazpena” formulatu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Hain zuzen ere, gobernuei eta nazioarteko komunitateari kriminalitatearen eta botere-abusuaren biktimentzako justizia gauzatzen laguntzeko beharrazatik formulatu zuen Adierazpen hori nazioarteko erakunde horrek. Azken helburua, nolanahi ere, biktimei eskatzen zuten laguntza eskaintzea zen.

Adierazpenean biktima terminoari ematen zaion definizioa Adierazpenaren ekarpen nagusietako bat dela esan daiteke, eta azpimarratu beharra dago biktimaren definizio zabala ematen duela.

Zehazki, estatu kideetan indarrean dagoen zigor-legeria urratzen duten ekintzen edo ez-egiteen ondorioz kalteak jasan dituen pertsona oro da biktima.

Kaltetzat zer har daitekeen zehazteko garaian, Adierazpenak zabalatasun berarekin jotzen du, lesio fisiko edo mentalak, sufrimendu emozionala, galera ekonomikoak edo oinarritzko eskubideen galera esanguratsua hartzen baititu kaltetzat. Gainera, zuzenekoak ez ezik, zeharkakoak ere biktimatzat

⁸ Delituen eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarritzko printzipioei buruzko adierazpena, NBEren Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean hartua. Honako honetan dago eskuragarri: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/VictimsOfCrimeAndAbuseOfPower.aspx>

hartzen ditu. Zehazki, “biktimarekin harreman estua duten senideak edo pertsonak eta arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa prebenitzeko esku hartzean kalteak jasan dituzten pertsonak” hartzen dira biktimatzat.

Gainera, azterlan honen ondorioetarako garrantzitsua den beste zehaztasun bat aipatzen da. Hain zuzen ere, pertsona bat biktimatzat hartzeko, ez da beharrezkoa kaltea eragin duen pertsona “identifikatu, atxilotu, jazarri edo errudun deklaratu izana”⁸.

Bestalde, indarrean dagoen zigor-legeriaren urraketa dagokionez, botere-abusuaren esanbidezko aipamen bat jasotzen du. Berezitasun azpimarragarria da gure ustez, ez baitu beste ezein ez-zilegi penalik aipatzen esanbidez.

Handik urte batzuetara, 2005eko abenduan, Nazio Batuen Batzarrak, biktimaren 1985eko definizioan oinarrituta, biktimen eskubideak babesteko hainbat printzipio eta jarraibide onartu zituen:

2.1.2. BIKTIMEK JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOA JASOTZEKO DUTEN ESKUBIDEA: “GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUEN AGERIKO URRAKETAK ETA NAZIOARTEKO ZUZENBIDE HUMANITARIOAREN URRAKETA LARRIAK PAIRATU DITUZTEN BIKTIMEK ERREKURTSOAK AURKEZTEKO ETA KALTE-ORDAINKETAK JASOTZEKO DUTEN ESKUBIDEARI BURUZKO PRINTZPIO ETA JARRAIBIDEAK”¹⁰

2005eko abenduaren 16an, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketa pairatu dituzten biktimek errekurtsok aurkezteko eta erreparazioak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideak onartu zituen Nazio Batuen Batzar Nagusiak.

Testu horretan, Nazio Batuek erabiltzen duten “biktima” kontzeptua 40/34 ebazpeneko kontzeptuan oinarrituta dago.

Nazio Batuek 2005. urtean onartutako printzipio eta jarraibide horien arabera, giza eskubideen eta biktimen justiziarako eta erreparaziorako eskubideen urraketa ikertzeko betebeharra dute estatuek. Zehazki, estatuen honako betebeharrak hauek xedatzen dituzte printzipio eta jarraibide horiek:

- a) urraketa saihesteko legegintza-xedapenak, administrazio-xedapenak eta bestelako neurri egokiak hartzea;
- b) urraketa era eraginkor, bizkor, oso eta inpartzialean ikertzea eta, hala badagokio, ustezko erantzuleen aurkako neurriak hartzea, barneko eta nazioarteko zuzenbideari jarraiki;
- c) beren giza eskubideen edo zuzenbide humanitarioaren urraketan biktimei justizia lortzeko ekitatezko eta benetako aukera eskaintzea, aurrerago azalduko dugunez, urraketaren erantzulea edozein izanik ere; eta
- d) Biktimei baliabide eraginkorrak eskaintzea (baita erreparazioa ere, aurrerago azalduko dugunez)¹¹.

⁹ Delituen eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarritzko printzipioei buruzko adierazpena, NBEren Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean (2. paragrafoan) jasoa.

¹⁰ 60/1947 Ebazpena, Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartua. Honako honetan dago eskuragarri: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>

¹¹ 60/1947 Ebazpena, 2005eko abenduaren 16an Batzar Nagusiak onarturikoa, 3. paragrafoa.

Zehazki, biktimek eskubidea dute: a) gizalegez eta beren duintasuna eta giza eskubideak errespetatuz tratatuak izateko, b) justiziarako aukera berdina eta benetakoa izateko, c) jasandako kaltearen erreparazio egokia, eraginkorra eta bizkorra jasotzeko, eta d) giza eskubideen urraketei eta erreparaziorako mekanismoei buruzko informazio egokia izateko.

Urraketen biktimek erreparazioa jasotzeko duten eskubidea giza eskubideen nazioarteko hainbat xedapen eta tratatutan jasota dago¹².

Erreparazioa, zehazki, giza eskubideen urraketek eragindako kalteak zuzentzeko Estatuak hartu beharreko neurrien multzoa da. Erreparazioak urraketen larritasunarekiko eta jasandako kaltearekiko proportzionala izan behar du. Erreparazioa ez da konpentsazio ekonomiko soiltzat hartu behar; kasuaren arabera, honako forma hauek har ditzake: lehengoratzeta, kalte-ordaina, birgaitzeta, gogobetetzeta eta berriz ez gertatzeko bermeak.

Lehengoratzetak, kasuaren arabera, honako hauek biltzen ditu: askatasunaren berrezartzea, giza eskubideez, identitateaz, familia-bizitzaz eta herritartasunaz gozatzeko aukera, bizilekura itzultzea, enplegura itzultzea eta ondasunen itzultzea.

Europako esparruan, biktimen eskubideak jasotzen dituen tresna nagusia honako hau da:

2.2. BIKTIMAREN ESTATUTUA EUROPAR BATASUNEAN

2012ko urriaren 25ean, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua onartu zen¹³.

Zuzentarau horrek biktimaz ematen duen definizioa Nazio Batuek emandakoaren antzekoa da. Zehazki, honela definitzen du biktima 2. artikuluan: “arau-hauste penal batek zuzenean eragindako kalte edo galera bat (lesio fisiko edo mentalak, kalte emozionalak edo galera ekonomikoak, bereziki) jasan duen pertsona fisikoa”. Halaber, “zeharkako biktima” kontzeptua biltzen du, eta halakotzat hartzen du arau-hauslea identifikatu, atxilotu, akusatu edo kondenatu den kontuan hartu gabe.

Zuzentaraua, legegintzako egintza denez gero, nahitaez bete beharrekoa da Europar Batasuneko estatu kide guztientzat. Halaber, EBko herrialde guztiek bete beharreko helburu bat ezartzen du, betetzeko modua herrialde bakoitzak erabakitzen badu ere. Zuzentaruak biktimei aitortzen dizkien eskubideak gutxienekoak dira; estatuak errespetatu egin behar dituzte eskubide horiek, eta Zuzentaruak emandako babes-eremua zabal dezakete (ez, ordea, murriztu).

Zuzentarau horretan, biktimak eskubide ugariren titularrak dira. Honela taldeka ditzakegu eskubide horiek: informaziorako eskubidea, prozesuan parte hartzeko eskubidea, babes jasotzeko eskubidea, laguntza jasotzeko eskubidea eta erreparazioa jasotzeko eskubidea¹⁴.

¹² Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (2. artikulua), Arraza Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Nazioarteko Hitzarmena (6. artikulua), Torturaren aurkako Hitzarmena (14. artikulua) eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (39. artikulua).

Delituen eta botere-abusuaren biktimetarako justiziaren oinarriko printzipioei buruzko Adierazpenak Estatuko legerian tipifikatutako delituak eta botere-abusuak ditu ardatz (horien artean, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen eta zuzenbide humanitarioaren, Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutunaren (7. artikulua), Giza Eskubideei buruzko Amerikako Hitzarmenaren (25. artikulua), eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Amerikako Herrialdeetako Giza Eskubideen Gortearen erabakien urraketak), eta biktimen eskubideak onesten ditu. Erromako Estatuak, azkenik, ahalmena ematen dio Nazioarteko Gorte Penalari “bere erabakian biktimei edo kausadunei eragindako kalte edo galeren norainokoa eta magnitudea finkatzeko” eta “zuzenean kondenatuaren aurkako erabaki bat hartzeko, biktimei eman beharreko ordain egokia adierazita, lehengoratzeta, kalte-ordaina eta birgaitzeta barne” (75. artikulua). Ikus “Giza eskubideen nazioarteko babes juridikoa gatazka armatuetan” (Nazio Batuen Goi Komisarioa, 2011, 96. eta 97. orrialdeak).

¹³ Honako honetan dago eskuragarri: <http://www.boe.es/doue/2012/315/L00057-00073.pdf>

¹⁴ Hona hemen sailkapen hori egin duten zenbait egile: ECHEBURÚA ODRIÓZOLA, Enrique / BACA BALDOMERO, Enrique / TAMARIT SUMALLA, Josep Maria eta PÉREZ RIVAS, Natalia.

Adierazitako Zuzentarauaren transposizio-epea 2015eko azaroaren 16an amaituko da. Edonola ere, 2017ko azaroaren 16ra arte (estatu kideek Batzordeari Zuzentarau horretara egokitzeko hartu dituzten neurriei buruzko informazioa emateko mugako data da hori) ezin izango da ebaluatu Zuzentarauaren onarpena Europar Batasunean biktimen eskubideak indartzeko baliagarria izan den ala ez.

2.3. ESTATUKO LEGERIAN

Espainiako legegintzan, aldakorra izan da biktimen eskubideen sorkuntza eta arau-garapena. Azken hogeita hamar urteotan, onartutako hainbat arauen bidez eta kalte-ordaina jasotzeko eta osatzeko eskubidea bermatze aldera, bilakaera bat izan da Estatuak biktimei eskaintzen dien estalduran.

90eko hamarkadan, indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko 25/1995 Legea eta hori garatzen duen erregelamendua¹⁵ onartu zen izaera orokorreaz. Arau hori delitu baten biktima mota orori zuzenduta dago, eta aurrerapen handia ekarri zuen biktimen eskubideen errekonozimenduan. Legeak gaur egun ere badirau, eta erreferentziazko araua izan da delituen biktima gehienentzat.

Handik urtebetera, terrorismoaren biktimei eman beharreko tratamenduaren erregulaziorik osatuena eta zehatzena egin zen, uztailaren 18ko 1211/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutako terrorismo-delituen biktima direnei laguntzeko eta kalte-ordaina emateko Erregelamendua onartu zenean, hain zuzen ere. Erregelamendu horren bidez, terrorismoaren biktimak indarkeriazko delituen edo sexu-delituen biktimak tratatzeko sistema orokorretik bereizi ziren. Helburu nagusia laguntzak kualitatiboki eta kuantitatiboki hobetzea eta terrorismoaren biktimei laguntza integral pertsonalizatua ematea izan zen. Erregulazio horretan, kalte ordaingarri kontzeptua merkataritza- eta industria-establezimenduetan gertatutako kalteetara eta ibilgailuetan gertatutakoetara zabaldu izana azpimarratu beharra dago. Halaber, honako helburu hauek dituzten laguntzen emakida hartzen da kontuan: ikasketak; laguntza psikosoziala (laguntza psikologikoa eta psikopedagogikoa, azken kasu horretan senideentzat ere bai); kalte materialen ordaina; eta, azkenik, terrorismoaren biktimen elkarteei diru-laguntzak ematea¹⁶.

1999. urtean, bi arau garrantzitsu onartu ziren: lehena 1974/1999 Errege Dekretua da, abenduaren 23koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko Errege Aginduaren Erregelamendua onartzen duena; kalte-ordainaz edo laguntzaz bestelako alderdi bat garatzen du, eta biktimen kolektibo horri errekonozimendua adieraztea eta omentzea, eta terrorismo-ekintzetan hildakoen, zaurituen eta bahituen memoria kondekorazioak ematearen bidez ohoratzea du helburu. Bigarrena, berriz, 32/1999 Legea, urriaren 8koa, terrorismoaren biktimekiko elkartasunerakoa da, eta kaltetuek delituaren egileak kalte-ordain zibil gisa zor dituen zenbatekoak jasotzeko duten eskubidea gauzatzea du helburu nagusi; horren arabera, Estatuak hartuko du bere gain zenbateko ekonomiko horien ordainketa, baita jardun judizialak egin arren kalte-ordain horiek onartzen dituen epai irmorik ez dagoen kasuetan ere¹⁷.

Gerra Zibilaren eta Frankismoaren biktimen eskubideak bereiz arautu ziren 2007an, Gerra Zibilean eta Diktaduran jazarpenera edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen

¹⁵ 738/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 23koa, delituen biktimentzako laguntzei buruzko Erregelamendua onartzen duena.

¹⁶ Neurri berri horiei aurrekontu-estaldura emateko, bi arau onartu ziren: 13/1997 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, Loteria Nazionalaren zozketa bat terrorismoaren biktimen alde egiteko baimena ematen duena; eta 73/1998 Errege Dekretua, urtarrilaren 23koa, loteriaren zozketak emandako etekinen ondoriozko laguntzak biktimei esleitzeko irizpideak arautzen dituen.

¹⁷ Adierazi beharra dago, halaber, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Goi Komisarioa sortu zela 2004. urtean, abenduaren 17ko 2317/2004 Errege Dekretuaren onarpenaren bidez. Organo hori Gobernuaren Presidentziaren mende zegoen zuzenean, eta, beste zenbait funtzioaren artean, Estatuko Administrazio Orokorrean terrorismoaren biktimentzako laguntzaren arloan eskumena zuten organoen jardunen inguruko jarraipena, koordinazioa eta lankidetzak hartu zituen bere gain. Dena dela, handik bi urtera, organo hori desegin egin zen, irailaren 8ko 990/2006 Errege Dekretuari jarraiki.

abenduaren 26ko 52/2007 Legea (Memoria Historikoaren Legea) onartu zenean. Lege horren edukiak kritika handiak izan ditu, baita nazioarteko erakundeen aldetik ere, biktimen talde horri egia, justizia eta erreparazioa bermatzeko ahula delakoan¹⁸.

Azkenik, azpimarratu beharra dago Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko irailaren 22ko 29/2011 Legearen onarpena¹⁹. Lege horrek testu bakarrean bildu zituen kolektibo horren eskubideei buruz indarrean zeuden arau guztiak, eta eskubide horiek zabaldu zituen.

Legearen Hitzaurrean, honako helburu nagusi hau ezartzen da: biktimei omenaldia egitea eta errekonozimendua, errespetua eta elkartasuna agertzea. Halaber, garrantzi handia ematen zaio memoria, duintasun, justizia eta egiaren printzipioak "indar-ideia" gisa hartzeari. Arauaren bidez lortu nahi den azken helburua, nolanahi ere, biktimari erreparazio integrala ematea da, eta 1960ko urtarilaren 1etik aurrera gertatutako ekintza guztietan atzeraeraginez aplikatzeko aukera onartzen da.

Horretarako, hainbat neurri integral diseinatuko dira, honako helburu hauekin: biktimen duintasuna eta memoria errekonozitu eta sustatzea, babes integrala ematea, ordaintzea, arreta-neurriak sendotzea, biktimen eskubideak errekonozitzea, kalte-ordainei lotutako administrazio-izapideak malgutu eta koordinatzea, biktimaren tratamendu prozesalean esparru espezifiko bat ezartzea eta, azkenik, mehatxuak eta derrigortzeak jasaten dituzten pertsonak errekonozitu eta babestea.

Legearen edukiaren onuradunak hildako pertsonak eta haien senideak, kalte fisiko edo psikikoak jasan dituzten pertsonak eta kalte materialak jasan dituztenak izango dira. Halaber, ohore eta kondekorazio-ondorioetarako, hildakoen odolkidetasuneko bigarren mailako senideak eta atentatu terrorista bat jasan duten, baina lesiorik izan ez duten pertsonak izango dira titularrak. Azpimarratu beharra dago, berritasun garrantzitsu gisa, mehatxatuta dauden pertsonak arauaren hartzaileen taldean sartu direla.

2.4. AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGERIAN

Euskal Autonomia Erkidegoak terrorismoaren biktimei zuzendutako eta abuztuaren 4ko 221/1988 Dekretuaren bidez araututako laguntza-programa baten onarpenarekin hasi zuen biktimek dituzten eskubideen errekonozimenduaren arloko jarduna. Bertan, honako prestazio hauek onartu ziren: Eskolaurreko eta OHOk ikasleentzako lehentasunezko laguntza psikopedagogikoa; ikasketak egiteko bekak eta garraio eta jangelarako laguntzak; doako osasun-laguntza, horren onuradunak ez ziren kaltetuentzat; enpresentzako laguntzak (abalak eta diru-laguntzak); eta ondasunetan kalteak jasan zituzten partikularrentzako laguntzak.

Hainbat urtetan eztabaida biziak egin ondoren, azkenean 2008. urtean osatu zen arlo horren erregulazioa, hain zuzen ere Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legea onartu zenean. Arau horren helburua ETaren biktimei ez ezik beste talde armatu batzuen (hala nola GALen, eskuin muturreko taldeen eta beste talde parapolizial batzuen) biktimei ere laguntza eta babesa ematea da²⁰. Lege-testu horren barruan, biktimentzako laguntzari eskainitako III. Titulua azpimarratu beharra dago. Bertan, terrorismoaren biktimei estaldura integrala emateko

¹⁸ Behartutako edo Nahi Gabeko Desagertzeen inguruko Nazio Batuen Lantaldearen txostena. Espainiako Misioa. NBEren dokumentua: A/HRC/27/49/Add.1, 2014ko uztailaren 2koa.

¹⁹ 671/2013 Errege Dekretua, irailaren 6koa, 29/2011 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

²⁰ "Parapolizial" terminoa gero eta maiztasun handiagoarekin erabiltzen da, eta, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak egindako txostenaren arabera, honako hauek biltzen ditu: "bereziki trantsizio politikoaren urteetan eta 80ko hamarkadako lehen urteetan segurtasun-indarren adostasunarekin eta zenbaitetan segurtasun-indarren zuzeneko parte-hartzearekin (ekintza klandestinoetan parte hartuz edo segurtasun-indar gisa bete beharreko zereginetik kanpo, baina laguntza aktibo edo pasiboren batekin) jardun zuten kolektibo edo taldeak". 2008ko ekaina, 307. or.

neurri multzo bat dago jasota (kalteen erreparazio materiala, laguntza eta tratamendu mediko eta psikologikoa, hezkuntzarako laguntzak, etxebizitza eta enplegua lortzeko laguntzak eta abar)²¹.

2010eko abenduaren 15ean, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretua argitaratu zen 239. zenbakiko EHAAn. Erregelamendu horren bidez, adierazitako 4/2008 Legearen III. Tituluaren edukia garatu da, eta aurrerapen bat lortu da bertan aurreikusitako babes eta laguntza integraleko sistemaren aplikazioan.

Adierazitako arauan aurreikusitako sistema integralak honako eremu hauetan neurriak hartzea hartzen du kontuan: kalte materialengatik ordaintzeko jardunak; kalte materialen prebentziorako jardunak, hala nola mehatxuak edo jazarpena jasaten duten pertsonen etxebizitza, establezimendu edo ibilgailuetan segurtasun-sistemak ezartzea; laguntza juridikoa; osasun-eremua eta eremu psikologikoa; irakaskuntza-eremua; enplegu-politikak; funtzio publikoa (Legeak funtzio publikokoak diren biktimei hainbat eskubide onartzeko aukera hartzen du kontuan); etxebizitzaren eremua; eta Legeak babesten ez dituen premia pertsonalei edo familia-premiei erantzuteko ezohiko laguntzak.

Horretaz gainera, esan daiteke azken urteotan motibazio politikoko indarkeriaren biktimen beste kategoria batzuetara zabaltzen hasi dela arau-esparrua euskal kasuan. Horren haritik, 2011ko martxoaren 31n, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuran onetsi zen motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktimei buruzko 61/2011 Legez Besteko Proposamena. Proposamen horren bidez, Legebiltzarrak eskatzen zion Eusko Jaurlaritzari neurriak eta jarduerak abian jar zitzan biktima horiek aitortzeko eta haien sufrimenduarengatik ordainak emateko. Horrek, une hartan, ekarri zuen 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, diktadura frankistan, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak ematekoa.

Aipatutako dekretuak denbora-esparru murriz bat hartzen zuen kontuan, eta horrek eragozten zuen 1978ko abenduaren 29tik aurrera gertatutako giza eskubideen urraketa larrien biktimei egia, justizia eta ordaina jasotzeko eskubideak betetzea. Horren ondorioz, eta biktima horiei erantzuteko asmotan, aurreko urtean lege bat onartu zen: 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa²², eta, haren bidez, motibazio politikoko indarkeria-egoeran 1978ko abenduaren 29tik 1999ko abenduaren 31 arte izandako giza eskubideen urraketen biktimei aitortpena eta ordaina eman nahi zitzaizkien.

12/2016 Legeak hiru baldintza jartzen ditu giza eskubideen urraketa bat bere aplikazio-eremuan sartzeko: a) motibazio politikoko indarkeria-egoera batean gertatu izana; b) urraketa horretan funtzionario publikoek edo norbanakoek taldean zein era isolatuan parte hartu izana; eta c) giza eskubideak urratu izanaren ondorioz pertsonen bizitzari edo osotasun fisiko, psikiko, moral zein sexualari kalte egin izana. Horretaz gainera, legeak aipatzen dituen giza eskubideen urraketak direla-eta aurkeztu diren salaketak ikertu ez badira, defentsa-gabezia ere sartzeko da haren aplikazio-eremuan.

Azkenik, aipatzeko modukoa da 12/2016 Legeak, biktimei konpentsazio ekonomikoa eta osasun-prestazioa jasotzeko eskubidea bermatzeaz gain, beste mota bateko eskubideak ere aitortzen dizkiela, hala nola aitorten publikorako eta egia jakiteko eskubideak. Eta ez da ahaztu behar legearen ikuspuntutik ordain ekonomikoa jasandako bidegabekeria aitortzeko lehenengo bidea dela, baina ez bakarra.

²¹ DE LA CUESTA, 31.-32. or.

²² Txosten hau aurkezteko ukan, konstituzio-kontrakotasuneko errekurso bat tramitatzen ari da Konstituzio Auzitegian 12/2016 Legearen aurka.

Agerian geratu denez, nazioarteko arauetan oinarritutako eta Autonomia Erkidegoko legerian garatutako lege-esparru oso bat dago biktimen eskubideak babestu eta defendatzeko. Hala ere, argitu beharra dago horren inguruko Estatuko eta Autonomia Erkidegoko arauetan ez direla kontuan hartu euskal kasuko biktima guztiak, orain dela gutxi arte.

Ildo horretan, ETaren indarkeriaren biktimentzat, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunerako Legea (1999) izan da lege-esparrua, eta geroago indartu egin da Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legearekin (2008), eta, ondoren, Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko Legearekin (2011). Hala ere, segurtasun indarrek –edo horien adostasunarekin–, eskuin muturreko taldeek edo talde parapolizialek egindako indarkeriaren biktimen kasuan, esan daiteke gehienak ez direla behar bezala errekonozitu. Alabaina, ezin da ukatu horiek ere hainbat giza eskubideren urraketa larrien biktimak direla, hala nola bizitzeko eskubidearen eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubidearen urraketen biktimak, eta azken horretan daudela kokatuta tortura kasuak. Tratu anker, gizagabe edo iraingarriak ez jasotzeko eskubideari lotutako urraketak ezinbestez aipatu beharrekoak dira, horien salaketek oso arreta urria jaso baitute: ez dago ikerketarik, eta salaketen ia % 100 artxibatu egiten da.

Txosten hau idazteko unean, torturari buruzko azterlan bat amaitzen ari dira²³, Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzak eskatuta; berriki eman dira argitara lehen datuak: 3.587 kasu salatu dira 1960-2013 aldian. Ikerketa hori amaitzen denean, ezkutatuta eta ukatuta egon den eta horren ondorioz biktimen diskriminazioa eragin duen fenomeno hori argitzen lagunduko du.

Edonola ere, orobat esan daiteke Biktimen eskubideen errekonozimenduan eta babesean izan den asimetria hori azken bost urtean nolabait konpentsatu egin dela hasiera batean Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuarekin, bai eta, berrikiago, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legearekin ere. Bi arau horien bidez, segurtasun-indarrek, eskuin muturreko taldeek eta talde parapolizialek 1960tik 1999ra bitartean egindako giza eskubideen urraketen biktimak errekonozitzen hasi ahal izan da lehen aldiz.

²³ KRIMINOLOGIAKO EUSKAL INSTITUTUA. *Euskadin izandako torturaren ikerketa, 1960-2010.*



3. GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK ELGOIBARREN

3.1. BIZITZEKO ESKUBIDEAREN URRAKETA

Udalerrri honetan zeuden edo udalerrriarekin zerikusia zuten (hemen jaioak/hemengo biztanleak) zortzi pertsonari urratu zitzaizen bizitzeko eskubidea Elgoibarren. Atal honetan, kronologikoki sailkatu ditugu, nor izan ziren azaltzeko sinopsi batekin eta haien biziaren amaierari buruzko azalpen batekin.

1976

Ángel Berazadi Uribe

Ángel Berazadi Uribek 58 urte zituen ETApn-ko kideek bahitu zutenean, 1976ko martxoaren 18an, lanetik ateratzen ari zenean. Berazadi Elgoibarko Sigma enpresan (Estarta y Ecenarro SA) egiten zuen lan; bertako zuzendari kudeatzailea zen. Zarautzen jaio zen, 1918an, eta María Carmen Estartarekin, Sigma enpresaren sortzaile Eulogio Estarta Landaren alabarekin, ezkondata zegoen. Bost alaba eta seme bat zituzten. Ángel Berazadiren ama Dominica Ansola hil zenean, familia Gipuzkoako hiriburura joan zen bizitzera, zehazki, Intxaurrondo auzoko Villa Yeyettera. Besteak beste, Ángel Berazadi Elgoibarko Biar Dana musika-elkarteko bazkide babeslea zen, eta Zarauzko Futboleko Kirol Elkarteko presidente izatera iritsi zen. Apirilaren 6an, udalerrri horretan manifestazio bat egin zuten, hura askatzeko eskatuz. “Aingeru bizirik bear dugu”. Ideologikoko Euzko Alderdi Jeltzalearengandik hurbil zegoen. 1975ean, hainbat gutun jaso zituen, “iraultza-zerga” ordaintzeko eskatuz. Bahiketaren egunean, bahitzaileek Bilbao-Behobia errepidean atxiki zuten, eta Itziarko Ipiola baserrira eraman zuten. Dirudienez, haren bila ibili zen Guardia Zibilaren miaketa-taldea 20 egunez bahituta izan zuten tokitik gertu igaro zen. Horren eraginez, eta haren erreskatearen truke ordaindu beharreko zenbatekoan ados jarri ezin zirenez, bahituta zuen komandoak, ETApn barruko desadostasunak gorabehera, bahitua hiltzea erabaki zuen. Apirilaren 8ko goizaldeko hirurak aldera, haren gorpua aurkitu zuten, garondoan tiro bat zuela, Azkarateko gainean, Elgoibar-Azkoitia eskualde-errepidean. Hori izan zen bahitzaileek hil zuten enpresari bahitu baten lehen kasua.

1978

Anselmo Durán Vidal

Anselmo Durán Vidalek 40 urte zituen eta Torrejón de la Calzada (Cáceres) jaioa zen. Guardia Zibileko lehen mailako kaboa zen, eta 1973tik Elgoibarren ari zen lanean, arma-baimenen berrikuspenen eta izapidetzeen arduradun. Lehenago, Azkoitiko kuartelean aritua zen. Ezkondata zegoen eta hiru eta hemeretzi urte arteko sei seme-alaba zituen. 1978ko urriaren 9an, Komando Autonomo Antikapitalistetako kideek metrailaz eraso egin zioten, dirudienez, herritarrez jantzita Tin-Tin upategira bidean zihoala; upategi horretan egiten zuen askaria kuarteletik atera ondoren. Lurrean zaurituta zegoela, laguntzera hurbildu zen lehen pertsonetako bat bere 13 urteko seme Luis izan zen; ondoezari ezin eutsirik, korrika jo zuen kuartelera, laguntza bila. Anselmo Duránen lankideek Land Rover batean sartu zuten, eta, zauriturik, udalerriko anbulatoriora eraman zuten. Jasotako zortzi tiroek eragindako zauriak oso larriak zirela ikusi zutenean (zortzi balak jo zioten), Donostiako Arantzazuko Ama ospitalera eraman zuten, baina harako bidean hil egin zen. Guardia Zibilak udalerriko sarreretan eta irteeretan jarri zituen errepideko kontrol-etako batean, San Migeleko gainean, Markinako aldean, ezusteko tiroketa bat egon zen udalerrri horretatik zetorren ibilgailu bateko bidaiarien eta Guardia Zibilaren agenteen artean. Dirudienez, Elgoibarren ordu batzuk lehenago gertatutakoen berririk ez zuten ETApn-ko kideak ziren. Tiro-zaparrada horretan, Ángel Pacheco Pata guardia zibila hil zen. Ciudad Rodrigo (Salamanca) jaioa zen, eta 20 urte zituen.

1980

Ramón Baglietto Martínez

Ramón Baglietto Martínezek bi seme-alaba eta 42 urte zituen ETAm-ren komando batek 1980ko maiatzaren 12an, Elgoibar-Azkoitia errepidean, Azkarateko gainean, erail zuenean. Egun hartan, Elgoibarren zuen altzari-dendan lana amaitu zuenean, Azkoitirako bidea hartu zuen, han bizi baitzen familiarekin, nahiz eta bera jaiotzez bilbotarra izan. 21:00ak aldera, ETAm-ko hainbat kidek haren ibilgailuari metrailetaz tiro egin zioten, Azkarateko gainetik igarotzen ari zela. Gorputzeko hainbat tokitan jaso zituen tiroak eta, jarraian, autoak zuhaitz baten aurka talka egin zuen. Hainbat auto-gidarik udaltzainei jakinarazi zieten errepide horretako bihurguneetako batean zuhaitzen aurka jotako ibilgailu bat zegoela, eta bazitekeela errepideko istripu bat gertatu izana. Leku hartara iritsi zirenean, ikusi zuten atentatu bat izan zela, eta Ramón Baglietto tiroen eraginez hil zela. Biktima Azkoitiko Udaleko zinegotzi izana zen, eta Zentro Demokratikoaren Batasuneko (UCD) kidea zen. Alderdi horrek espainiar estatuko hauteskundeak irabazi zituen 1977an. Ramón Bagliettoren kide José Larrañaga Arenas ere ETAk hil zuen, 1984ko abenduaren 31n. Larrañaga zinegotzi ohia eta UCD alderdiko kidea zen, eta haren kontra egindako erasoetan beste bitan zauritu zuten aurretik. Pilar Elías, Ramón Bagliettoren alarguna, 1995 eta 2011 artean Alderdi Popularreko zinegotzia izan zen Azkoitiko Udalean.

1980

Jaime Arrese Arizmendiarreta

1980ko urriaren 23an, Komando Autonomo Antikapitalistek (KAA) Jaime Arrese Arizmendiarrieta hil zuten, 43 urte zituela. Arrese Elgoibarko alkate izana zen 1974. eta 1977. urteen artean; hain zuzen ere, urte horretako maiatzaren 13an dimititu egin zuen. Horrez gain, 1971 eta 1974 artean zinegotzi ere izan zen, baita Batzar Nagusietako hautetsi ere. 1976ko maiatzaren 26an, alkate zela, mozio bat aurkeztu zuen Udaleko osoko bilkuran. Mozioa Espainiako presidenteari zuzentzen zitzaion, eta foru-erregimena euskal probintziei itzultzeko eskatzen zien. Mozioa aho batez onetsi zen. KATEK 1980an erail zutenean, Jaime Arrese Zentro Demokratikoaren Batasuneko (UCD) probintziako exekutiboko kidea zen. M^a Carmen Araolazarekin ezkondua zegoen, bi seme-alaba zituen eta Arriola y Cía enpresan administrari jarduten zuen lanean. Kirolzalea zen, eta Elgoibar CD taldean eta Ondarroako Aurrera taldean atezain jokatu zuen. Horrez gain, Elgoibarko Institutuko gurasoen elkarteko presidentea ere izan zen, eta udalerriko musika-banda, txaranga eta dultzaineroak sustatzeko ahaleginak egin zituen. Erail zuten egunean, 14:40ak aldera, bi gazte Iriondo tabernara sartu ziren; han zen Jaime Arrese, kafe bat hartzen. Bere ondoan zegoen pertsona bat paretik kendu eta Arreseri tiro egin zioten. Udalak dolu-egun izendatu zuen urriaren 24a, eta atentatu hilgarria gaitzetsi zuten; berdin egin zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek, haren omenez Elgoibarko Udalean bilduta. Egun horretan bertan, hilaren 23an, KAAko kideek Juan Manuel García Cordero, Telefónica enpresako ordezkaria, hil zuten Donostian.

1985

José Expósito Afán

José Expósito Afánek 62 urte zituen, guardia zibil erretiratua zen, eta urtebete zeraman erreserba aktiboan. Aurretik, eraildako Anselmo Durán Vidal guardia zibila bezalaxe, urte luzez aritua zen armen baimenak berrikusten eta kontrolatzen; ondorioz, harreman estua zuen ehiztari eta baserritarrekin. Aguilar de la Fronteran (Kordoba) jaioa zen, baina 35 urte zeramatzan Euskadin, eta nahiko integratuta zegoen Elgoibarren. ETAk 1985eko abuztuaren 4an hil zuen, jaiegunean, udalerriaren erdigunetik pasieran zebilela, hain zuzen ere Madalena plazan: erakunde horretako kide batek tiro egin zion garondoan, 14:00ak inguruan. José Expósito Afánek gorpuak hiru ordu inguru eman zituen lurrian; izan ere, tarte horretan ezin izan zuten guardiako epailea aurkitu. Hurrengo egunean Elgoibarko Udalak onetsi zuen mozioan, biktima udalerriko “herritar bat gehiago” zela esan zuten, eta San Bartolome elizan egingo zen hiletara etortzeko deia egin zuten. Lucio Beitia alkateak esan zuen José Expósito “udalerrian integratuta” zegoela, eta “haren heriotza ezustekoa izan zela herritar gehienentzat”. Horrez gain, EAJ-PNVren udal-batzarrak ere haren omenezko hiletan parte hartzeko deia egin zuen. Ehunka pertsona bertaratu ziren hiletara.

1987

José Luis Gómez Solís

45 urte eta lau seme-alaba zituen; gazteenak 4 urte zituen. Aldea del Obispon (Cáceres) jaioa zen, eta lau urte zeramatzan Elgoibarko kuartelean. Guardia Zibileko sarjentu kargua zuen. ETAk 1978an eta 1985ean eraildako bete bi guardia zibilek (Anselmo Durán Vidal eta José Expósito Afán, hurrenez hurren) bezalaxe, hark ere armen interbentzio-lanak egiten zituen kuartelean. 1987ko abenduaren 11n, José Luis Gómez eta haren emaztea Soroluzeko Gila tabernara bidean zihoazen, afaltzeko asmoz. Sarri joaten ziren taberna horretara. Afaldu ondoren, senar-emazteak tabernatik atera ziren eta autoa utzi zuten tokirantz abiatu ziren, Deba ibaiaren gainetik igarotzen den eta alde zaharrerako bide ematen duen zubirantz, hain zuzen. Autoko ateak ireki zituztenean, ETako hiru kide hurbildu zitzaizkien eta, emakumea baztertu ondoren (lurrera erori zen), hainbat tiro jo zitzaizkien sarjentuari. Hainbat tirok gorputzean eman zioten, eta beste bederatzik autoaren karrozeriaren kontra jo zuten. Han bertan hil zen. Emazteak nerbio-atakea jasan zuen eta DYAK han bertan artatu behar izan zuen. ETak José Luis Gómez Solís hil zuen egunean bertan, bonba batek hamaika pertsona hil zituen Zaragozako Guardia Zibilaren kuartel-etxean; horietatik bost neskatoak ziren. Gainera, 40 pertsona zauritu ziren. Gómez Solísen hileta San Bartolome elizan egin zen. Elgoibarko Udalak hiletara eta abenduaren 13an egin zen elkarretaratzera joateko deia egin zuen.

1988

Sebastián Aizpiri Leyaristi

Sebastián Aizpiri Leyaristi Elgoibarren jaio zen, eta Eibarren bizi zen. 38 urte zituen eta Eibarko Chalcha jatetxearen eta Elgoibarko harategi baten jabe zen. ETAko bi kidek 1988ko maiatzaren 25ean hil zuten, Elgoibarko denda itxi ondoren egunero bezala Eibarrerako bidea hartu zuenean. Udalerri horretan zeuden bere zain, Arrate hotelaren parean, Labaderokuan. ETAko kide batek bi tiro jo zizkion garondoan, hurbiletik. Hantxe bertan hil zen. ETAk, erailketa justifikatzeko, Sebastián Aizpiri drogen salerosketarekin lotuta zegoela esan zuen. Aurretik, otsailean, Sebastián Aizpiri jendaurrean agertu zen, drogen salerosketan sartuta zegoela zioten akusazioak gezurtatzeko. Bere lagun Patxi Zabaletarekin batera Eibar eta Elgoibarko udalei babesa eskatu zien, eta jaso ere jaso zuen. Udal horiek adierazpen bat argitaratu zuten, non esaten zen akusazio horiek gezurra zirela. Hala ere, handik hilabetera, maiatzaren 25ean, jakinarazi zioten poliziak atxiloteta batean aurkitu zuen ETaren jomuga posibleen zerrenda batean bere izena ageri zela (hori esan zuen José Ramón Goñi Tirapu gobernadore zibilak). Atentatu horren aurkako erantzuna sendoa izan zen. Eibar eta Elgoibarko udalek salaketa akordioak onetsi zituzten, eta herritarrei kalera ateratzeko dei egin zieten, Milaka pertsona elkartu ziren hiletaren ondoren, maiatzaren 26an, Elgoibarren egin zen elkarretaratze batean. Gainera, ekainaren 2an, hiru mila pertsona baino gehiago bildu zituen manifestazio bat egin zen Eibarren. Pankartan hau irakur zitekeen: “Eibar y Elgoibar contra ETA”.

1988

Francisco Javier Zabaleta Aizpitarte

Eibarren Sebastián Aizpiri Leyaristi hil eta handik 12 egunera, ETAk beste atentatu hilgarri bat egin zuen; ordukoan, Francisco Javier Zabaleta Aizpitarteren kontra. Biak lagunak ziren. 1988ko ekainaren 6an, Patxi Zabaleta lagun batzuekin zegoen Elgoibarren, zerbait hartzen. Orduan, San Frantzisko kalean zeudela, ETAko hiru kide hurbildu eta, hitzik esan gabe, haietako batek bi tiro jo zizkion. Hantxe bertan hil zen. ETAk Sebastián Aizpiriri leporatutako gauza bera leporatu zion hari ere. Patxi Zabaletak 42 urte zituen eta bi seme-alabaren aita zen. Seguros Mapfre enpresan lan egiten zuen eta Elgoibarko Guass diskotekako jabeetako bat zen. Komunikabide batzuetan, “EA alderdiaren aldekoa” zela esan zuten²⁴. Kasu horretan ere, aurretik haren kontrako kanpaina bat egon zen, karteletan eta pintadekin, Sebastián Aizpiriren kasuan gertatu zen moduan. Horietan, drogak banatzen zituen sare batekin lotzen zuten. Atentatu horrek eragin sakona izan zuen Elgoibarren. Elgoibarko Udaleko ezohiko bilkuran, HBko zinegotziek irainak, mehatxuak eta oihuak jaso zituzten, kondena-adierazpenean abstenitu egin zirelako. Udalbatzak hilaren 7rako manifestazio isila deitu zuen; hileta bukatutakoan, deialdi hori babestu zuten. Horrez gain, ekainaren 11rako manifestazio bat deitu zuten. Milaka pertsona elkartu ziren pankarta honen atzean: “Euskadi ETaren aurka / Euskadi contra ETA”. Sebastián Aizpiri eta Patxi Zabaletaren familiek berriz ere probak eskatu zituztote ETari, eta akusazioak gezurtatu zituzten. Hori urteroko ekimen bilakatu zen; horren bitartez, Patxi Zabaletaren Eibarko lagunak adiskidea omentzen dute, eta ETari eskatzen diote bere akusazioen probak non dauden azal dezala.

...

²⁴ *El Diario Vasco*, 1988-06-07.

Hamarkadaka

	60ko hamarkadan	70eko hamarkadan	80ko hamarkadan	90eko hamarkadan	2000-2009	2010-2017
ETAk eta KAAk hildakoak	-	2	6	-	-	-
ESlek (Espainiako Segurtasun Indarrek) hildakoak	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	8			-		

- Taula horretan ikusten den lehen gauza da ETArekin eta Komando Autonomo Antikapitalisten adarrek baino ez dutela bizitzeko eskubidea urratu Elgoibarren.
- Horrekin batera, ikus daiteke zortzi hilketak hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadan egin zirela, eta azken ia 29 urteetan ez dela motibazio politikoko indarkeriari loturiko heriotzarik egon udalerrian.
- Hildakoak eragin zituzten lehen bi atentatuak “trantsizio politikoaren” hasierako urteetan gertatu ziren, 1976an eta 1978an, hurrenez hurren.
- Udalerrian erail zuten lehen biktimak Angel Berazadi Urbe enpresaria izan zen, 1976ko apirilaren 8an. Erail zuten azken biktimak Patxi Zabaleta Aizpitarte izan zen, 1988ko ekainaren 6an.
- Biktimak guztiak gizonezkoak dira.
- Zortzi biktimetatik zazpi haien hiltzaileek programatutako atentatuetan hil ziren. Baina haietako lehena, Ángel Berazadi, lehenik bahitu egin zuten, eta 20 egun eman zituen bahituta, hil zuten arte.
- Biktimak guztiak su-armaz hil zituzten.
- Bederatzigarren biktimak, Ángel Pacheco Pata guardia zibila, Markinako lurretan hil zen, San Migeleko gainetik oso hurbil, 1978ko urriaren 9an KAAk Anselmo Durán Vidalen kontrako atentatua egin eta hiru ordura, errepideko kontrol batean zegoela. Markinatik zetozen ETako hainbat kidek aurrez aurre aurkitu zuten kontrola, eta elkarri tiroka hasi ziren. Tiroketa horretan hil zen guardia zibila, eta ETako militanteek mendia barrena egin zuten ihes. Ángel Pachecoren aldeko meza/hileta, Bilboko La Salve kuartelean egin zen.

Biktimen adinaren eta seme-alaba kopuruaren arabera

40 urtetik beherako biktimak	40 eta 55 urte arteko biktimak (biak barne)	55 urtetik gorako biktimak	Aitarik gabeko biktimak
1	5	2	26

- Biktimarik gazteenak, Sebastián Aizpiri Leyaristik, 38 urte zituen. Zaharrenak, José Expósito Afánec, aldiz, 62 urte zituen.
- Deigarria da umezurtz gelditu ziren seme-alaben kopurua: 26, guztira. Horietatik gutxienez sei alabak ziren; ez dugu generoaren araberako guztizko zenbaketarik.

Jaioterria eta atentatuaren lekua kontuan hartuta

Elgoibarren jaiotako pertsonak	Elgoibartik kanpo jaiotakoak	Elgoibarren egindako atentatuak	Elgoibartik kanpo egindakoak
3	5*	6	2

* Biktima horietako batek 35 urte baino gehiago zeramatzan Euskadin bizitzen.

- Elgoibarren jaio ez ziren biktimak bi euskal udalerritan (Zarautz eta Bilbo), Cácereseko bi udalerritan (Torrejón de la Alameda eta Aldea del Obispo) eta Kordoban (Aguilar de la Frontera) jaioak ziren.
- Eraiketen kokapenari dagokionez, Eibarren eta Soraluzen izan ziren bi kasuetan salbu, gainerako atentatu hilgarri guztiak Elgoibarren izan ziren: bi Azkarateko gainean eta beste lau hirigunean.
- Kasu batean, biktima taberna barruan zegoen. Beste hiru kasutan, taberna batetik atera berriak ziren edo taberna batera bidean zihoazen. Hiru kasutan, biktimak lanetik atera berriak ziren.

Kondizioa kontuan hartuta

Zibila	Guardia zibila
5	3

- ETA eta KAAk hil zituzten zortzi biktimetatik bost zibilak ziren; beste hirurak Guardia Zibileko agenteak ziren.
- Biktima zibilen artetik, bat enpresaria zen (Sigmako zuzendari kudeatzailea); hiruk saltokiren bat zuten (altzari-denda, ostalaritza-establezimendua, harategia, diskoteka), eta hori beste lanpostu batekin uztartzen zuten. Beste bat Arriola y Cía enpresako administraria zen.

- Biktimia zibileko bi Zentro Demokratikoaren Batasuneko (UCD) kideak ziren; horietako bat, gainera, probintziako exekutiboko kidea ere bazen. Ramón Baglietto Martínez Azkoitiko Udaleko zinegotzia izan zen; Jaime Arrese Arizmendiarieta, berriz, Elgoibarko alkatea izan zen eta, aurretik, baita zinegotzia ere.
- Guardia Zibileko kideen artean, bat sarjentua zen, beste bat lehen mailako kaboa, eta beste bat erretiratuta zegoen eta urtebete zeraman erreserba aktiboan.

Debabarrenaren egoera

Herria	Biztanle kopurua**	ETAp, ETAm eta KAAk	BVE eta GAE	Polizia edo Guardia Zibila	lkerketa sakonagoa behar dute
Elgoibar	11.594	8	-	-	-
Eibar	27.415	9	3	2	1
Ermua	16.045	2	-	-	-
Deba-Itzar	05.480	3	-	-	1
Mallabia	01.173	1	-	-	-
Mendaro	02.031	-	-	-	-
Mutriku	05.329	-	-	-	-
Soraluze	03.944	1	-	-	-
GUZTIRA	63.011	24	3	2	2

* José Luis Gómez Solís Elgoibarren agertzen da kontatuta eta ez Soraluzen. Sebastian Aizpiri Leyaristi Elgoibarren eta ez Eibarren.

** Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea: http://debabarrena.eus/eu/nortzuk-gara?set_language=eu. Kontsulta 2017ko martxoan egin dago.

3.2. OSOTASUN FISIKO ETA PSIKIKORAKO ESKUBIDEAREN URRAKETAK

Ez dago azken urteotan, oro har, motibazio politikoko atentatu eta erasoetan zauritu dituzten pertsonen kopuruari buruzko datu ofizial publikorik. Badakigu zenbat pertsonak jaso dituzten aseguru-enpresen kalte-ordainak, baina ez zenbat pertsona zauritu dituzten, ez eta horien guztien izenak ere. Dirudienez, hori datuen babesari buruzko kontu batek eragiten du.

Horri dagokionez, Francisco Zaragozak, Terrorismoaren Biktimia diren Estatuko Segurtasun Indarren Elkarteko (ACFSEVT) buruak, hau esan zuen, elkartearen izenean:

“Edozein herrialdetako edozein gatazkatan, hildakoak, zaurituak eta lekualdatuak daude; Espainian, gatazka honetan, komatxo artean, hildakoak eta bahituak baino ez daude. Eta zaurituak? Ba al dakigu zenbat diren?” hori galdetu zuen Zaragozak, Europa Press-i 2015. urtean egin zizkion adierazpenetan. Erakunde horren esanetan, 16.000 eta 18.000 zauritu artean daude, baina, tamalez, ez dago horri buruzko datu ofizialik.

Horrez gain, kritikatzan dute ez dagoela datu publikorik “haien lana uztera behartu dituzten lesioak jasan dituzten pertsonen kopuruari dagokionez”, eta galdetzen dute horietako zenbatek jaso duten zor zaien aitortpena. “Gobernu honekin, zaurituak ez gara inongo estatistikatan ageri, hildakoen familiak baino ez dira existitzen”, gehitu du²⁵.

²⁵ El Mundo, 2015-08-22.

Foronda Txostenak²⁶, halaber, hau esaten zuen 2014an ETaren eta Komando Autonomoen adarrek zauritutako pertsonen buruz:

Zaurituei dagokienez, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendariorde Nagusiaren datuak ditugu. (...) ETaren biktima guztiak ere ez dira ageri; kalte-ordainak jaso dituztenak baino ez. (...) Ditugun datuen arabera, erailketa bakoitzeko hiru zauritu zeuden (862 hildako eta 2.533 zauritu). Aipatu beharra dago jarduera terroristak eragindako baliaezintasun larriak, ezintasun iraunkor absolutua edo ezintasun iraunkor osoa duten 709 pertsona daudela. Atentatueta lesioak jasan dituzten eta, berriz esango dugu, kalte-ordainak jaso dituzten, 1.642 pertsona daude. (...) zenbaketa orokor hori aseguru-enpresek ordaindutako konpentsazioak aintzat hartuta egin da”.

Tortura dela eta osotasun fisiko eta psikorako eskubideen urraketak jasan dituzten pertsonen dagokienez, haien egoeraren bidegabekeria bikoitza da, bi biktimizazio jasaten dituztelako: alde batetik, torturak jasan dituzte; beste alde batetik, ukatu egiten zaie torturak jasan dituztenik eta, ondorioz, ez dute zor zaien aitortpena ematen. Horri dagokionez, Gesto por la Paz elkarteak hau esan zuen bere 2012ko memorian²⁷:

Aipatu beharra dago biktima horien ehuneko handi batek ez zuela inolako loturarik talde terroristekin, nahiz eta ekintza horiek guztiz bidegabeak izan baita lotura hori egonik ere.

Edonola ere, hori ez da soilik aspaldiko iragan bateko kontua; izan ere, gerora hainbat epaik frogatu dute tortura kasuak egon direla eta, gainera, sinesgarritasun handia duten nazioarteko erakundeek txostenak daude gai horri buruz ohartarazten dutenak.

Era horretako delitu gehienak ez dira behar bezala argitu, eta errudunek ez dute zigorrak jaso. Ez estatuan ez gizartearen ez da egon horiei zilegitasuna kentzeko inolako prozesurik. (...)

Delitu horiek zigortzeko ahaleginik ez egitearen ondorioz, biktima horiek biktimizazio bikoitza jasan behar izan dute, delitu hori bera egon dela ezkutatzeko eta ukatzeko duen estatu baten erasoak jasan baitute eta, batzuetan, estatuak erasotzaileak babestu ere egin baititu.

2016ko otsailaren 12an, Gipuzkoako hiriburuko Kursaal, Giza Eskubideen Urraketak jasandako Biktimen Balorazio Batzordearen Txostenaren Aurrerapena, 1960-1978, plazaratu zen, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuari dagokiona. Hau esaten du “Torturak” atalean (11. or.):

Ordena publikoko indarrek maiz erabili zituzten tratatu txarrak eta torturak galdeketa. Portaera hori bereziki ETako kideen kasuan azaldu zuten baina, edonola ere, ETatik erabat kanpoko beste erakunde batzuetako militanteen kasuetan ere torturak eta tratatu txarrak erabili zituzten. Batzordeak hala egiaztatu du kasuak aztertu dituenen.

Elgoibarko egoera aztertzen badugu, datu hauek aurkituko ditugu udalerrian zauritutako pertsonen edo udalerrian jaio/bizi diren eta zauritu dituzten pertsonen buruz:

²⁶ LÓPEZ ROMO, Raúl. *Foronda Txostena*. UPV/EHUren Valentín de Foronda Gizarte Historiarako Institutua, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak eskatua. 2014ko abendua.

²⁷ GESTO POR LA PAZ. *Por una memoria básica deslegitimadora de la violencia*. 2012ko azaroa.

ETAm-ren eta Komando Autonomoen atentatueta zauritutakoak

Data	Biktimak	Kargua, lan-mota...	Ondorioak	Egilea
1984-03-15	Diego Rodríguez Penas	Azkoitiko bizilaguna	Aurpegiari	KAA
1984-03-15	Isaac Gutiérrez Pérez	Guardia zibila	Belaunean ebakuntza	KAA
1984-03-15	Ramón Murillo Pavo	Arrasateko bizilaguna	Aurpegiari eta begietan	KAA
1984-10-09	Josefa Pimentel Muñoz	Funtzionarioa (NAN)	Aurpegiari metraila	ETAm
1984-10-09	Nieves Amigo Redondo	Funtzionarioa (NAN)	Aurpegiari metraila	ETAm

- Dirudenez, 1984ko martxoan zauritutako lehen hiru biktimen kasuan, Komando Autonomo Antikapitalistek Isaac Gutiérrez Pérez guardia zibilari baino ez zioten eraso egin nahi; hala ere, atentatuaren egunean ibilgailuan harekin zen Diego Rodríguez Penasek ere zauriak jaso zituen, bai eta haien ibilgailutik gertu zegoen beste ibilgailu batean zen Ramón Murillo Pavo Arrasateko herritarrek ere.

- Halaber, nortasun agiriak izapidetzen zituzten Nieves Amigo Redondo eta Josefa Pimentel Muñoz funtzionarioek ere zauriak jaso zituzten ETAm-ren lehergailu batek eztanda egin zuenean, Maltzagako bidegurutzean, haiek zeramatzan polizia-autoa bertatik igaro zenean. Furgonetako gidariak ere zauri arinak izan zituen.

Gehiago ikertu eta kontrastatu behar diren kasuak:

Data	Biktimak	Kargua, lan-mota...	Ondorioak	Egilea
1981-04-05	Antonio Pérez Fernández	Guardia zibila	Larri zauritua	?

- Antonio Pérez Fernández guardia zibilak 1981eko apirilaren 5ean, Elgoibarko Guardia Zibilaren kuartelaren ondoan, jasandako zauriei dagokienez, hainbat bertsio argitaratu ziren; lantalde honek ezin izan du bertsio batzuen edo besteen alde egin, ez baitu horretarako behar adina informazio. Dirudenez, agenteak ezkerreko hankan jasotako tiroa egiteko erabili zen munizioa bat zetorren ETak erabili ohi zuenarekin; horregatik esan zen erakunde horrek eman ziola tiroa. Dena den, ETak ez zuen inoiz ere bere gain hartu gertakaria, ez 1981ean eta ez Zuzen 79 buletinean argitaratu zuen atentatu guztien zerrendan ere (VascoPress agentziak eman zuen argitara zerrenda hori, 2004ko abuztuaren 30ean, "Crónica" monografikoan). Beste ezein erakundek ere ez zuen bere gain hartu. Gertakaria txosteneko kronologian sartu dugu.

Kaleko ekintzetan erasoak jasan zituztenak

Data	Biktima	Ondorioak
1996-08-25	Jesus Mari Castaños Iriondo	Erredurak gorputzaren %18an
1996-08-25	Maria Muguerza	Erredurak gorputz-adarretan
1996-08-25	41 urteko emakumea	Erredurak hanketan
1996-08-25	Emakume horren senarra	Erredurak eta behatz bat apurtuta

• Taulan agertzen diren lau pertsonak, bai eta beste bik ere, molotov koktel baten inpaktua jaso zuten. Txanodun batzuk edukiontzi batzuei su ematen ari zirela ikusi zuten, barrikada gisa erabiltzeko, eta jokabide txarra zutela esan zieten, txanodunek koktel molotov bat bota zieten. Zauri eta erredura larriak izan zituzten, bereziki Jesús Mari Castaños Iriondok. Hark erredurak izan zituen gorputz osoan, nagusiki enborrean eta gorputz-adarretan, eta ebakuntza bat baino gehiago egin behar izan zizkioten.

Ordena publikoko indarrek larriki zaurituriko pertsonak

Koadro honetan, kasu larriak baino ez dira aipatzen; zortzi dira guztira (zazpi gizon eta emakume bat), eta ez dira manifestazioetan, grebetan edo bestelako aldarrikapen-ekimenetan kolpatutakoak zenbatzen, horiek zenbatzea ezinezkoa baita, gutxienez lantalde honentzat.

Atal hau ordena publikoko indarren su-armen erabilerari buruzkoa da. Horri dagokienez, interesgarria da Nazio Batuek legea betearazteko ardura duten funtzionarioentzat prestatutako Jardunbide Kodearen 3. artikulua eta legea betearazteko ardura duten funtzionarioek indarra eta su-armak erabiltzeko Oinarriko Printzipioek diotena²⁸.

Data	Biktima	Egilea	Ondorioak
1979-03-19	Diego Plata Doncel	Guardia Zibila	Balaz zaurituta
1979-03-19	Francisco Fernández González	Guardia Zibila	Balaz zaurituta
1979-03-19	Daniel Campello Tejeiro	Guardia Zibila	Balaz zaurituta
1980-11-17	Oscar Luis Ondarza	Guardia Zibila	Balaz zaurituta
1991-08-30	José Manuel Eceolaza Suárez	Ertzaintza	Begia galdu du pilotadagatik
1992-06-28	Asier Irureta	Ertzaintza	Beso bat dislokatuta
1996-08-25	I.A. (adin txikikoa)	Ertzaintza	Kubitua eta erradioa puskatuta
1998-06-06	Emakume bat eta beste 7 pertsona	Ertzaintza	13 puntu buruan

• Lau pertsonak bala-tiroek eragindako zauriak jasan zituzten. Taula honetatik kanpo gelditzen dira Poliziak Donostian kolpatu zituen zinegotziak.

• Elgoibarko Guardia Zibilaren kuartela 1989ko urrian itxi zen. Eibarko Ertzaintzaren polizia-etxea 1991ko urtarrilean inauguratu zuten. Taulan agertzen diren lehenengo lau pertsonak balaz zauritu zituen Guardia Zibilak 1979. eta 1980. urteetan. Beste lau pertsonak Ertzaintzako agenteek zauritu zituzten laurogeita hamarreko hamarkadan, manifestazioak desagitean edo atxilotzeko uneen.

²⁸ OSSE, Anneke. *Entender la labor policial. Recursos para activistas de derechos humanos*. Madril: Amnesty International (EDAI) eta Amnesty International Nederland, 2007. Sarean deskarga daiteke.

Torturak jasan izana salatu duten pertsonak

Hemen agertzen diren kasuak salaketa judizialak edo publikoak dira. Informazio honekin, talde honek ez dauka bere esku ez dagoen informazioa segurutzat jotzeko asmorik. Jarritako salaketak besterik ez dira.

Salaketa horiek hedabideren batean argitaratu dira, Behatokiaren edo Euskal Memoriaren zerrendetan agertzen dira, Elgoibarren jasotako lekukotzetan jakinarazi dizkigute edo Eusko Jaurlaritzak UPV/EHUren Kriminologiaren Euskal Institutuari (IVAC-KREI) eskatutako azterlanean²⁹ (oraindik bukatu gabe dago) egiaztatu dira.

Amnesty Internationalek, IVAC-KREIren txosten hori aipatuz eta Euskal Herrian duela 40 urte baino gehiagotik existitzen diren torturen etengabeko salaketak aztertuz, honako hau adierazi du:

Arduradun politikoek ez dute torturaren eta beste tratu txar batzuen aurkako mezu argirik eman, ez legegintza-ekimenen bidez, ez beste neurri batzuen bidez, eta hori beharrezkoa da ekintza horiek prebenitzeko eta ikertzeko; hori dela eta, Amnesty International kezkatuta dago 2000ko hamarkadatik, eta kezka horrekin jarraitzen du gaur egun ere. Urte hauetan, erakundeak salaketa sinesgarriak jasotzen jarraitu du ETaren borrokaren aurkako testuinguruan gertatu diren tortura eta tratu txarrengatik³⁰.

Hemen jasotako salaketen asmoa da arrazoizko erantzunik ere jaso ez duten izatezko alegazioen zerrenda bat ematea. Ez zaie erantzunik eman, hain zuzen ere, kasuok ofizialki ikertu ez direlako.

Data	Biktima	Egilea
1968-08-19	Joseba Iñaki Elustondo Oñederra	Guardia Zibila
1969-04-11	Jon Etxabe Garitazelaia (23 egun komisarian)	Polizia
1970-08-10	Felix Etxeberria Larrañaga	Guardia Zibila
1974-09-17	José Antonio Arribillaga Askasibar	Guardia Zibila
1976-04-09	José Ramón Urzelai Etxeberria	Guardia Zibila
1977-01-25	Aitor Argarate Epelde (21 egun kuartelean)	Guardia Zibila
1979-03-17	Mari Juli Arregi Gorrotxategi	Polizia
1979-03-17	Gemma Jayo Bustundui	Polizia
1979-03-17	Rosa Martínez Goikoetxea	Polizia
1979-03-17	Luis Juaristi Santos	Polizia
1979-11-21	Josu Esnaola Aranguren	Guardia Zibila
1980-01-18	Manuel Beraza Felones	Polizia
1982-09-08	Arrate Arrillaga Alonso	Polizia
1982-12-31	Iñaki Odriozola Sustaeta	Guardia Zibila
1983-05-18	José Manuel Unanue Sorasu	Guardia Zibila
1984-11-27	Mikel Alberdi Zubizarreta	Polizia
1984-11-27	Juan Ignacio Iriondo Garate	Polizia
1984-11-27	Iñaki Jaio Bustundui	Polizia
1984-11-27	Juan Bautista Izagirre Bernedo	Polizia

²⁹ ETXEBERRIA, Francisco, MARTIN BERISTAIN, Carlos, PEGO, Laura. UPV-EHUren IVAC-KREI. *Euskadin gertatutako tortura-kasuak ikertzeko proiektua (1960-2013). Jardueraren memoria / laburpena*. 2016-06-27an egina, Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatuta. <http://www.eitb.eus/multimedia/documentos/2016/06/27/1987310/Memoria%20Proyecto%20Tortura%202016.pdf>

³⁰ AMNESTY INTERNATIONAL. *Afrontar el pasado para construir el futuro. Verdad, justicia y reparación en el contexto del País Vasco*, 2017, 14. or. <https://www.es.amnesty.org/>

Data	Biktima	Egilea
1984-11-29	José Julián Agirre Osoro	Polizia
1985-10-01	Sebastian Elizburu	Polizia
1985-10-20	Eva Cuesta Trula	Polizia
1986-08-12	Iñaki Alberdi Urkia	Polizia
1987-07-08	Arnaldo Otegi Mondragon	Polizia
1992-12-20	Jon Andoni Altzibar Beloki	Guardia Zibila
1993-08-22	Justo Arriola Etxaniz	Ertzaintza
1994-06-06	Francisco Javier Aldaz Carrera	Guardia Zibila
2010-10-22	Ainara Ladrón Urbieto	Polizia Zibila

- Udalerri honetan erregistratu ditugun 124 atxilotetatik 28tan tortura-salaketak egon dira. 22 gizonen eta 6 emakumeen salatu dituzte torturak. Beste kasu batzuen informazioa falta zaigu; ondorioz, zenbaki hori altuagoa izan liteke.

- Atxilotuak izan ziren guztietatik, 16 kargurik gabe aske gelditu ziren kuarteletik edo polizia-etxetik igaro ondoren. Horietatik 6 pertsonen torturak eta tratatu txarrak salatu zituzten.

1979-11-21	Josu Esnaola Aranguren	Aske utzi kargurik gabe
1982-09-08	Arrate Arrillaga Alonso	Aske epailearen aurretik igaro gabe
1992-12-20	Jon Andoni Altzibar Beloki	Aske epailearen aurretik igaro gabe
1993-08-22	Justo Arriola Etxaniz eta Rafael Feijoo	Aske geratu ziren; 1995eko eginiko epaiketan 3 ertzain zigortu zituzten
1994-06-06	Francisco Javier Aldaz Carrera	Aske epailearen aurretik igaro gabe

- Beste kasu batzuei buruzko informazioa falta zaigu; beraz, baliteke kopuru hori handiagoa izatea. Adibidez, badakigu Amanci Condek salatu zuela Melitón Manzanás inspektoreak, 1968an ETAK eraildakoak, torturatu egin zuela, baina ezin izan dugu kasua sakonago aztertu.

- Datu horiez gain, beste pertsona batzuek tratatu txarrak jaso zituzten bere garaian, hala nola Juan José Bastarrikak eta Juan José Bengoetxeak, edota Justo Arriola Etxanizek, bigarren aldiz atxilotu zutenean.

- 1986ko otsailaren 19an, Guardia Zibilak hiru gazte atxilotu zituen Elgoibarren, eta lehenik Ermuako kuartelera eraman zituzten. Ondoren, Antiguoko kuartelera eraman zituzten, eta handik Intxaurrondoko Guardia Zibilaren kuartelera. Azkenean, haien aurka ezer ez zegoenez, aske utzi zituzten “akatsa” izan zela esan ondoren.

- Horrez gain, gutxienez beste 38 pertsona (28 emakume eta 10 gizon) hilabetez egon ziren Martuteneko kartzelan isun bat ez ordaintzeagatik (bidegabekoa zela uste zuten); isun hori 1967an baimenik gabeko euskal festa batean parte hartzeagatik jarri zieten.

3.3. GIZA ESKUBIDEEN BESTE URRAKETA BATZUK

3.3.1. ESTORTSIO EKONOMIKOA

Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroaren laguntza izan duten hamar ikertzailearen esanetan, 10.000 pertsona eta erakundek baino gehiagok jasan behar izan dute ETaren “iraultza-zerga”, ehun atentatu inguru estortsio horren ondoriozkoak izan dira eta arrazoi horrengatik 12 pertsona erail dituzte. “Misivas del terror”³¹ (2017) lana Izaskun Saez de la Fuente koordinatu du eta duela gutxi plazaratu da; bertan, estortsioaren eragina ikuspegi hauetatik aztertzen da: ekonomikoa, soziala, politikoa eta etikoa.

Gaur egun, oraindik ere zailtasunak daude gai horri buruz askatasunez hitz egiteko; hori hala dela frogatzeko, aipatu liburuaren autoreek adierazi dute elkarriketatuta nahi izan zituzten pertsonen herena baino ez zela prest egon gai horri buruz hitz egiteko.

Izaskun Saez de la Fuente Aldamak, argitalpen horren ondorio orokorretan, hau esaten du estortsioak jasan zituzten pertsonen profilari buruz:

*Pertsona bat biktimea bilakatzen da modu bidegabean kaltetzen duen indarkeria baten eraginez. Hori dela eta, estortsioa pairatu duten pertsona guztiak haien duintasunaren urraketa jasan duten biktimea errugabeak dira, estortsio hori jasan aurretik eta ondoren izandako jokabidea gorabehera; hori dela eta, dagozkien eskubideak izan behar dituzte eta gure elkartasuna aktiboki jaso behar dute. (...) Badakigu biktimek jasandako biktimizazio prozesuei erantzuteko hartu dituzten jarrerak askotarikoak eta, batzuetan, baita kontrakoak ere, izan direla*³².

Galo Bilbao Alberdik eta Xabier Etxeberria Mauleonek, lan horretan bertan, biktime horiek galdutako eskubideak berreskuratzeko dauden zailtasunak aztertzen dituzte. Gaingiroki, oraindik egiteko dugun zeregin horren jakitun gara; izan ere, askotariko kasuistiken biktime ugarirengan ageri bada ere, bi irakasle horiek hau diote horri buruz:

*Egia jakiteko eskubidea, gertatutakoa ahalik eta xehetasun eta zehaztasun handienarekin jakiteko eskubidea, ez da bat ere ondo errespetatu estortsio ekonomikoaren kasuan; are gehiago, esan liteke eskubide hori guztiz bete gabe dagoela. (...) Justiziarako eskubidea ere ez da inondik inora bete. Estortsio ekonomikoaren biktimek ez dute justizia benetan jasotzeko eskubiderik izan. (...) Hirugarrenik, jasotako kalteen erreparazioa jasotzeko eskubidea dago (...) egoera etsigarria da*³³.

Ez dakigu zenbateko estortsio ekonomikoa jasan duten Elgoibarko pertsonen eta enpresek, baina badakigu Ángel Berazadi Uriberen kontrako atentatuak, 1976an Elgoibarren heriotza eragin zionak (21 egunez bahituta egon ostean), zerikusia izan zuela familiak bahitua erreskatatzeko jarri behar izan zuen zenbateko ekonomikoaren inguruko akordioak ezarekin. Bahiketa horren ondoren, jakinarazi zen Euskadiko eta Nafarroako berrogei bat industrial eta negozio-gizonen ETA V.ak sinatutako gutunak jaso zituztela azken hilabeteetan; horien bidez, dirua eskatzen zieten erakundearentzako “kuota” gisa, mantentze-lanetarako³⁴.

³¹ SAEZ DE LA FUENTE, Izaskun. *Misivas del terror*. Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroa. 2017ko otsaila.

³² Lan berean, 279. eta 280. or.

³³ Lan berean, 275. eta 276. or.

³⁴ *La Gaceta del Norte*, 1976-03-22.

Baita ere 2005ko maiatzaren 5ean bonba batek hainbat kalte material eragin zituen Elgoibarko Lerun industrialdeko Bernardo Ecenarro pintura- eta esmalte-enpresako horma eta leihoetan. Beste hiru lehergailuk ere eztanda egin zuten Soraluze, Beasain eta Bergarako enpresetan, ETaren estortsio ekonomikoarekin lotuta.

3.3.2. PERTSONEN KONTRAKO MEHATXU LARRIAK ETA JAZARPEN-INDARKERIA

Eskubide-urraketa mota honek zerikusia du jasotako mehatxuekin eta hainbat pertsonak jasan duten jazarpenarekin. Alde batetik, haien segurtasuna bermatzeko bizkartzainak behar izan dituzten pertsonak daude. Horren ondorioz, pertsona horiek haien bizi-ohiturak aldatu behar izan zituzten, eta horrek haien ohiturak, erritmoak, errutinak, gustuak, familiarekin eta lagunekin zituzten harremanak eta abar hankaz gora jarri zituen. Kasu batzuetan, gainera, bizkartzainen presentziak liskarrak eta desadostasunak eragin ditu auzokoekin (atarian, garajeetan edo ibilgailuetan pertsona armatuak egotea...), gune publikoetako beste erabiltzaile batzuekin (jaketxeetan eta bestelako establezimenduetan, osasun-zentroetan...), zenbait lanetan, ...

Kaleko jendea, batzuk eskapada ematen dotsue. Koadrilan, azkenean be, egixa da egun batetik bestera ez duzula igartzen, baina egiten badozu urte osoan, zure bizitza aldatzen da. Lagunek ez zaben nahi bizkartzaineekin joatea, askotan esaten zaben, etorri zu bakarrik. Azkenean zein da hirugarren bidea, ba herritik alde egin, Bilbora, Donostiara, lagun batekin...

Horri dagokionez, haien osotasun fisikoa babesteko Elgoibarren bizkartzaina zenbat pertsonak behar izan duten jakin nahi izan dugu, hala udalerrian bizi zirenak edo udalerrira lanaren edo politikaren bitartez loturik zeudenak kontuan hartuta. Ertzaintzak eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren mendeko segurtasun-enpresa pribatuak 4 pertsonari eskaini zieten bizkartzain-zerbitzua 1990 eta 2010 artean. Horietatik 3 kargu politikoak ziren, eta beste 1, berriz, kazetaria.

Aldiz, Segurtasuneko Estatuko Idazkaritzak Elgoibarren bizkartzaina behar izan zuten pertsonen berri eman zuen (udalerrian bizi zirenak edo udalerriarekin loturaren bat zutenak); horien artean, batzuek Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen babesa jaso zuten, eta beste batzuek segurtasun-enpresa pribatuena, Barne Ministerioaren kargura. Bost pertsona izan ziren, denak politikariak.

Elgoibarren bizkartzaina behar izan duten pertsonak

	Kargu politikoak	Kazetariak	Enpresariak
Ertzainak eta mendeko segurtasun-enpresa pribatuak	3	1	-
Estatuko Segurtasun Indarrak eta segurtasun-enpresa pribatuak	5	-	-
GUZTIRA	9		

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila.

EAE mailan, ezkutuko biktimizazio handia dago. Horixe adierazten du Deustoko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuaren “ETAk mehatxatutako pertsonen jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)” lanak³⁵. Eusko Jaurlaritzaren datuak oinarri hartuta, txosten horrek adierazten du 3.300 pertsona inguruk³⁶ behar izan zutela bizkartzaina EAEn 1990 eta 2011 artean, ETArekin mehatxuak eta kale borroka zirela eta.

Duela ez hainbeste, zenbait ertzain eta bestelako profesional probintzia mugakideetara joan behar izan dira bizitzera, ETArekin mehatxuak zirela eta. Ertzainen kolektiboari dagokionez, badakigu³⁷ EAEn, 1990 eta 2011 artean, ETAk 43 ertzainen kontrako atentatuak egiteko informazio osatua zuela, bai eta 107 ertzaini buruzko informazio erdi-osatua ere. Horrez gain, zehaztu gabeko pertsona kopuru batek hemendik alde egin behar izan du, ETArekin edo kale borrokaren mehatxuetatik ihes egiteko. Pertsona horiek, besteak beste, kazetariak, epaileak eta irakasleak dira.

ETAk mehatxatutako pertsonen buruzko txostenak hau dio:

Pertsona bati jakinarazten zitzaionean bere izena edo bere jardueren buruzko dokumentazioa banda terroristari aurkitutako materialaren artean zegoela, beharbada une horretara arte ez zekien ETArekin jomugan zegoela. Hala ere, norberaren arrastoei hain sakon jarraitu zieten jakiteak hain larritasun handia eragiten zuen, non pertsona horien bizi-kalitatea izugarri kaltetzen zen, eta horretarako konponbidea gorabehera, larritasun hori sufrimendu gisa aintzatetsi behar da. Bestalde, mehatxatuta daudela jakitean, indarkeria mota horren biktimen erreakzioak biktima-kopurua zenbatzea zailtzen du. Pertsona askok eguneroko zereginekin jarraitzea erabaki zuten, nahiz eta horrek beren bizitza eta integritatea babesteko neurrien pean bizitzeko ohitura lasgarria ezartzen zien. Hala, prezio altua ordaindu behar zuten, esaterako, lasai ibiltzeko aukera mugatuta izatea, bai beraiek bai beren familiek. Beste pertsona batzuk, ordea, egoera pertsonalagatik, denbora-tarte laburrean helbidez aldatu ahal izan ziren eta ekintza terroristatik ihes egitea, edo, gutxienez, zailtzea erabaki zuten, gehiago itxaron gabe³⁸.

Kargu publikoen aurkako erasoak ez dira oso bortitzak izan orokorrean. Alabaina, gauzek okerrera egin zuten bi unetan: heroinaren arazo larria sortu zenean eta gaztetxearen gatazkaren garaian.

Liskarra herriko gazte batzuen eta Udalaren artekoa zen nagusiki. 1985ean agertu ziren kartel batzuetan, Lucio Beitia alkatea urkatuta agertzen zen; 1987an pintadak eta salaketak egon ziren Udaltzaingoko sarjentuaren eta gazte batzuen artean; 1988ko maiatzean, gazte batzuek Udalbatzaren osoko bilkura boikotatu zuten, Gaztetxean egindako argi-mozketengatik, eta Elkoro-Iribe alkateari bota zioten horren errua; 1991ko abuztuaren 30ean, herriko jaietan, gazteek pinturaz betetako botilak bota zituzten udaletxeko eta Batzokiko fatxadetara, “Gaztetxea orain” aldarrikapena eginez; 1992ko urtarrilean, EAJ-PNVko zinegotzi José María Oruesagastiren aurkako pintadak agertu ziren, eta martxoaren 16ko osoko bilkuran are gehiago zorroztu ziren bi aldeek jarrerak (EAJ-PNVko zinegotzi José María Oruesagasti eta Ricardo Garateren autoetako gorpilak zulatu zituzten, baita Udaltzaingoaren

³⁵ INTXAURBE VITORICA, Jose Ramon, RUIZ VIEYTEZ, Eduardo J. eta URRUTIA ASUA, Gorka (2016). *ETAk mehatxatutako pertsonen jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)*. Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatua.

³⁶ Aipaturiko txosten honetan, 34. eta 35. orrialdeetan honako hau esaten da hitzez-hitz: “Los datos cuantitativos puestos a disposición de este trabajo por el Departamento de Seguridad arrojan una cifra de 1.619 personas escoltadas con cargo a los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Igualmente se ha estimado en un mínimos de otras tantas personas las que lo fueron en el País Vasco bajo la responsabilidad del Ministerio del Interior”.

³⁷ INTXAURBE VITORICA, Jose Ramon, RUIZ VIEYTEZ, Eduardo J. eta URRUTIA ASUA, Gorka (2016ko maiatza). *Ertzainen eta haien familiek ETArekin mehatxuaren ondorioz jasandako bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)*, 10. orrialdea. Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatua.

³⁸ *ETAk mehatxatutako pertsonen jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)*, 6. orrialdea.

auto batenak ere); 1992ko abuztuko jaien bezperan, Oruesagasti zinegotziak eta EAJ-PNVko beste militante batzuek liskarra izan zuten eta kolpeka aritu ziren Gaztetxeko gazte batekin eta Jarraiko beste batekin.

Gertakari gehiago ere badaude, baina txosten hau idatzi duen taldeak uste du bi gai horiek (heroinak Elgoibarren izandako inpaktua eta Gaztetxearen eta Udalaren arteko liskarrak), elkarren artean inolako loturarik ez izanik ere, sakonago aztertu behar direla aurrerago. Hala jaso dugu txostenaren amaieran. Dena den, uste dugu aipatutako gertakariak erabilgarriak direla garai hartako udal- eta gizarte-bizitzaren konplexutasuna ikusarazteko, bai udalerri honetakoa, bai gainerako euskal udalerrietakoa. Jasota gera dadila nahi dugu.

Atal honen gaiari helduz, 1980an Zentro Demokratikoaren Batasuneko (UCD) Ramón Baglietto Martínez eta Jaime Arrese erail zituzten; ondorioz, ez zen formazio horren jarraipen normalizaturik egon Elgoibarren, eta Espainiako Gobernuan zegoen alderdiaren ideologiak ez zuen behar adinako askatasunik izan bere lanarekin jarraitu eta alderdia udalerrian finkatu ahal izateko, testigantza batzuen arabera. Bozkatzeko eta hautetsiak izateko eskubideak urratu zitzaizkien ideologia horien aldeko.

El País egunkariak 2014an egin zuen “El reto de la convivencia”³⁹ erreportajea, Elgoibarko Udaleko Alderdi Popularreko zinegotzi Javier Núñezek esan zuen hiru urte lehenago baino askeago sentitzen zela bere udalerrian, eta beldur gutxiago zuela. Gehitu zuen, halaber, oraindik ere nabaritzen zuela jende askok baztertu egiten zuela kalean eta hiru urte lehenago PPK Elgoibarren 300 boto jaso bazituen ere, boto-emaile horietako bakar bat ere ez zitzaiola gerturatu ordura arte. Kontuan izan behar da, gainera, posta-kutxa bat eman zuela, jendea berarekin harremanetan jarri ahal izan zedin beste inork jakin gabe. PPK ez zuen ordezkariarik lortu 2015eko udal-hauteskundeetan.

Bestalde, 2003ko martxoan, aurreko urteetan atxiloketa eta absoluzio ugari jasan ondoren, Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna legez kanpo utzi zituzten, PSOEak eta PPK 2000. urtean sustatuko Alderdien Legearen bidez (Iparraldean legezko izaten jarraitu zuen). Saiakera gehiago egon ziren, Autodeterminaziorako Bilgunea (AuB), Herritarren Zerrenda (HZ) eta Aukera Guztiak (AG) alderdiak sortuz, baina epaitegiek guztiak aurkaratu edo baliogabetu zituzten. 2005ean Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunistak (EHAK) aurkeztu ahal izan zuen; bi urte beranduago, ordea, ezin izan zuen aurkeztu Abertzale Sozialisten Batasunak (ASB), baina bai, zati batean (zerrenden erdia baino gehiago aurkaratuak izan ziren), Eusko Abertzale Ekintzak (EAE-ANV). Dena den, ez zuen askorik iraun: 2008an Auzitegi Nazionalak legez kanpo utzi zituen EAE-ANV eta EHAK, ezker abertzaleko beste zenbait erakunde legez kanpo utzi eta bi egunkari ixtearekin batera. 2009an ere, Demokrazia Hiru Milioi taldea baliogabetuta geratu zen urte horretako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan.

³⁹ *El País*, 2014-10-19.

Elgoibarren kargu publikoei eta talde politiko edo sindikalei egindako erasoak

Bizitzeko eskubidearen kontrako atentatuak

Jaime Arrese, alkate ohia eta UCDko exekutiboko kidea	1
Ramón Baglietto, zinegotzi ohia eta UCDko kidea	1

Heriotza-mehatxuak

Alkatea eta EAJ-PNVko zinegotzia	2
HBko zinegotzia	1

Etxebizitzetan egindako erasoak

HBko zinegotzi Juan Carlos Marcosen etxebizitza; bigarren aldian bala bat jaurti zioten balkoira	1
--	---

Egoitzetan egindako erasoak

PSE-EEren Herriko Etxea	6
EAJ-PNVren batzokia	4
HBren gizarte-egoitza	1
CCOO sindikatuaren egoitza	1

Agintariek egindako beldurrarazteak

1979ko eta 1980ko gertakari batzuetan, Guardia Zibileko zenbait kidek beren armak inolako bereizketarik egin gabe erabili zituzten, eta horrek Elgoibarko herritarren artean izua zabaldu zuen. Bi kasu dira bereziki nabarmentzekoak:

- 1979ko martxoaren 19an, Guardia Zibilak tiro egin zien Diego Plata Doncel, Francisco Fernández González eta Daniel Campello Tejeiro gazteei, eta zauritu egin zituen; Pelouse diskotekatik atera eta beren etxeetara zihoazen, autoz. Autoan zihoan laugarren gazteak ez zuen zauririk izan. Hiru zaurituak ospitaleratu egin zituzten. Batek ere ez zuen kontrolik edo agenterik ikusi errepidean, ezta gelditzeko agindurik entzun ere. Txosten balistikoen arabera, lau gazteen aurkako tiroak kuarteletik atera ziren⁴⁰. Kasualitatez atera ziren bizirik, hainbat balak jo baitzuten ibilgailuaren kontra. Foruen plazan egon zen ikusgai ibilgailua, herritar guztiek ikusteko.
- 1980ko azaroaren 17ko 23:00ak aldera, sei guardia zibil herritarrez jantzita San Frantzisko kaleko El Pub tabernara sartu ziren, beren armak erakutsiz, eta bezeroei agindu zieten establezimendutik ateratzeko, “dolu-eguna” zela eta. Jarraian, kalera atera eta hainbat tiro-sorta bota zituzten. Ondoren guardia zibil gehiago etorri ziren, uniformeaz nahiz herritarrez jantzita, eta tiro ugari bota zituzten metrailetaz. Herritarrek, izututa, ihes egin zuten inguruko kaleetan barrena, beren buruak babesteko asmoz. Hurrengo egunean jakinarazi zenez, ehun tiro baino gehiago egin zituzten, Oscar Ondarza gaztea balaz zauritu zuten ezkerreko izterrean, bikote bat atxilotu zuten euskal liburu bat edukitzeagatik⁴¹ eta aparkatuta zeuden zortzi ibilgailuk bala-inpaktuak jaso zituzten.

⁴⁰ *El Diario Vasco*, 1979-03-22.

⁴¹ *El País*, 1980-11-20.

3.3.3. ADIERAZPEN-ASKATASUNAREN ETA BESTE ASKATASUN DEMOKRATIKO BATZUEN AURKAKO URRAKETAK

Atal honen kasuistika oso zabala da, eta bizi izan ditugun testuinguru politikoen arabera aldatu da: diktadura, trantsizioa eta demokrazia. Garai bakoitzak bere ezaugarriak izan ditu; hala ere, zenbait urraketa hiru garaietan aurki ditzakegu. Bizitzeko eskubideaz eta osotasun fisiko zein psikikorako eskubideaz gain, honako eskubide hauek ere urratu dira, besteak beste:

- Askatasunez elkartzeko, bilerak egiteko eta manifestazioak egiteko eskubidea.
- Greba egiteko eskubidea, norberaren ideiak direla eta kaleratua ez izateko eskubidea edo sindikatze askerako eskubidea.
- Adierazpen, iritzi eta kontzientzia askatasunerako, eta pentsamendu askatasunerako eskubidea.
- Askatasun eta segurtasun eskubidea.
- Askatasunez ibiltzeko eskubidea.
- Bizitokia askatasunez hautatzeko eta ezartzeko eskubidea, eta etxez aldatu eta udalerrira utzi behar ez izateko eskubidea.
- Politikan eta gai publikoetan parte hartzeko eskubidea, eta ordezkari politiko gisa hautatua izateko eskubidea.

Talde honek entzun dituen lekukotzetan kexak agertu dira espazioen, leloen, ekimen publikoen, manifestazioen, festen, ormen, kartelen eta abarren gehiegizko jabetze ideologikoarengatik. Pertsona batzuek kontatu dute manifestazioetan “Gora ETA militarra” oihukatzen zela eta horrek mina egiten zuela.

Erailketa ondoren besteentzako denak berdin jarraitzen du. Manifestazioak etxe aurretik pasatzen ziren “Gora ETA militarra” oihukatuz.

Bestalde, aipatu behar da Zazpiki Irratia ixten saiatu zirela behin baino gehiagotan, eta hainbat ertzain estudioetara sartu zirela, zuzeneko emanaldi bat kontrolatzeko. Horrez gain, Zazpiki Irratiak bonba-mehatxua jaso zuen 1988ko urriaren 13an. Sinboloei dagokienez (esaterako, banderak), elkarren aurkako bi adibide aipatu behar ditugu. Batetik, 1986ko abuztuaren 13an bi pertsona atxilotu zituzten bandera bat erretzeagatik; bestetik, Guardia Zibilak gaztetxearen fatxadan zeuden hiru bandera konfiskatu zituen 1988ko urriaren 13an: ikurrina, “Okupazioaren” bandera eta “Resiste” zioena.

Beste kontakizun batzuen bidez ezagutu dugu Elgoibarko kaleetan manifestazioak egiteko beldurra, poliziak manifestazio baketsuen kontra gehiegizko bortizkeriaz kargatzeko beldurra baitzegoen, manifestazioek baimena izan ala ez; horrek izua eragiten zuen ez soilik parte hartzen zutenengan, baizik eta baita inguruan zeuden pertsonengan ere. Beste pertsona batzuek etengabeko jazarpen-egoeran zeudela sentitu dute: identifikaraztea, jarraika ibiltzea, kartelak kentzea, isunak jartzea...

Bi adibide:

- 1970eko abenduaren 3an Burgosko Epaiketaren aurka protesta egiteko deitutako greba orokorrean, herriko plaza manifestazio baketsua egiten ari zen jendez beteta zegoela, Guardia Zibilaren hainbat jeep sartu ziren bertara, protesta geldiarazteko. Agenteetako batek pistola bat erakusten zuen harro, eta horrek izua eragin zuen; ondorioz, jendea korrika hasi zen. Hurrengo egunean, herritarrez jantzitako polizia batek dum-dum bala bat jaurti zuen eta Roberto Pérez Jauregi hil zuen, 21 urtekoa, Eibarren egindako antzeko manifestazio batean.
- 1979ko irailaren 2an, aurreko egunean Donostian egin zen errefuxiatuan aldeko ekitaldi batean hainbat hautetsiri emandako jipoiaren aurka protesta egiteko manifestazioa Elgoibarko Merkatu plazaren inguruan zebilela, Guardia Zibileko lau agentek, herritarrez jantzita eta pistola eskuan, hainbat tiro bota zituzten airera; manifestazioa desegin zuten eta izua zabaldu zuten Elgoibarko kaleetan.

Nazio Batuek legea betearazteko ardura duten funtzionarioentzat prestatutako Jardunbide Kodearen 3. artikulua eta legea betearazteko ardura duten funtzionarioek indarra eta su-armak erabiltzeko Oinarrizko Printzipioak dira poliziaren jardunean indarra eta su-armak erabiltzeari buruzko arau nagusiak. Indarraren erabilera lortu nahi den helburu zilegiarekiko eta delituaren larritasunarekiko proportzionala izan behar da; bestela, gehiegizkoa izango da. Horrez gain, indarra edo su-armak modu arbitrarioan edo abusuzkoan erabiltzea delitua izango da⁴², Oinarrizko Printzipioetako 7. printzipioak horixe ezartzen baitu.

Proportzionaltasunari eta beharrari dagokionez, 13. artikulua esaten du baimenik ez duten baina baketsuak diren bilerak desagiteko indarra ez erabiltzen saiatu behar dela; indarra erabili behar izanez gero, beharrezko gutxienekoa baino ez da erabiliko. Jarraian, hau gehitzen du Anneke Ossek: “hala ere, argi utzi beharra dago baimenik gabeko bilera bat ordena publikoa asaldatzen ari ez bada, aukera gutxi dagoela egoera hori aldatzeko eta, gainera, ez dago indarkeriarik; ondorioz, ez litzateke indarra erabili beharko. Zerbaiten aurka protesta egiteko edo zerbait eskatzeko bilera baketsuak jarduera demokratikoaren funtsezko elementu dira. Giza eskubideak ardatz dituen poliziaren jardunak eskubide hori errespetatzea eskatzen du”⁴³.

Printzipio horietan Poliziak neurriz erantzutearen garrantzia nabarmentzen da; izan ere, manifestazio bat ez da masa kolektibo bakar bat. Amnesty Internationaleko argitalpenak hau ere badio: “manifestazio batean indarkeria erabili nahi duten sektore batzuk badaude ere, poliziak, bere jardunean, manifestari baketsuen eskubideak errespetatzen direla bermatu beharko du. Horiengandik isola daitezke indarkeria piztu nahi duten edo bortxaz jokatzeko elementuak. Horretarako, Poliziak gaitasun handiak izan beharko ditu, batez ere behaketari eta komunikazioari dagokienez, Poliziaren erantzuna unean-unean manifestazioko pertsonen eta taldeen ezaugarrietara egokitzeko”⁴⁴.

Urte askotan terrorismoaren aurkako legea behar baino gehiago erabili da terrorismoarekin zerikusirik ez duten arazo politikoei erantzuteko. Horixe salatu dute Europako zenbait errelatorek eta Amnesty International erakundeak; hala, erakunde horren 2016-2017 Txostena⁴⁵ izenekoan, argi adierazten da “terrorismoari gorazarre egitea” aitzakia gisa erabili dela modu baketsuan haien adierazpen-askatasuna erabiltzen ari ziren pertsonak epaitzeko”. Horrez gain, Amnesty International erakundeak

⁴² Lan berean, 128. or.

⁴³ Lan berean, 141. or.

⁴⁴ Lan berean, 142. orrialdea. Horixe esaten da Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren 21. artikuluan eta bilerak desagiteko indarra erabiltzeari buruzko 12. eta 14. Oinarrizko Printzipioetan.

⁴⁵ AMNESTY INTERNATIONAL. *Informe 2016-2017. La situación de los derechos humanos en el mundo*. Espainia, 2017, 182. orrialdea.

adierazi du 2016. urtean zehar “justifikaziorik gabe mugatu zirela informatzeko, adierazteko eta biltzeko askatasuna, Zigor Kodearen erreforma eta Herritarren Segurtasun Lege berria oinarri hartuta” (Mozal Legea izenez ere ezaguna); lege hori 2015eko uztailan sartu zen indarrean. Era horretako kasuek Elgoibarko herritarrak ere zipriztindu dituzte.

3.3.4. ONDASUN HIGIEZINEN AURKAKO ERASOAK

Atal honetan sartu ditugu bai erakunde, egoitza eta establezimenduei eginiko atentatu eta erasoak bai hainbat ibilgailuri eragindakoak (autobusak, kamioiak, autoak), hiru denbora-alditan banatuta.

ETA eta KAAen atentatuak

Data	Noren aurka	Ondorioak	Egilea
1970	Lerun futbol-zelaiko kantina	Su eman zioten	-
1973-03-10	Kantina bera, Conderena zen	Kalte handiak, dinamita	ETA
1973-04-10	La Terraza taberna, Manuel Quirogarena	Hainbat kalte, bonba baten ondorioz	ETA
1980-12-23	Iberdueroren instalazio elektrikoak	Kalte handiak	ETAm
1981-08-28	Iberdueroren transformadorea	Kalteak aginte-panelean	ETAm
1981-12-31	Eroanbide elektrikoko dorrea	Kalteak Mendaro-Elgoibar linean	ETAm
1982-06-20	Iberdueroren transformadorea	Ezin erabili geratu zen. Sutea	ETAm
1982-11-25	Guipuzcoano Bankua	Beirak. Etxetako kristalak	ETAm
1983-02-24	Guipuzcoano Bankua	Sarrera. Etxetako kristalak	ETAm
1983-06-11	Vizcaya Bankua	Kalte txikiak	ETAm
1984-01-11	Vizcaya Bankua	Bonbaren ondoriozko kalteak	ETAm
1984-01-11	Santander Bankua	Bonbaren ondoriozko kalteak	ETAm
1984-03-15	Autopistako ordainlekuko kabina	Txikituta	KAAk
2005-05-15	Pinturas-Esmaltes Bernardo Ecenarro	Lehergailu bat	ETA
2008-04-20	PSE-EEko egoitzan lehergailua	Kalte larriak	ETA

- ETak 1970ean egin zuen ondasun higiezin aurkako lehen atentatua udalerrri honetan. ETak Conde jaunari leporatzen zion Segurtasun Indarrei laguntzea.

- Ekintza horietako askok inguruko establezimenduetan kalteak sorrarazi zituzten edo ateetako markoak, kristalak eta pertsianak hautsi zituzten inguruko etxebizitzetan. 1973ko apirilaren 10eko atentatuak kalteak eragin zituen tabernaren azpiko pintura-biltegian, eta ETaren azken atentatuan, 2008ko apirilaren 20an PSE-EEren egoitzaren kontra egindakoan, egoitzaren barnean kalteak eragiteaz gain, inguruko etxetako kristalak eta pertsianak hautsi ziren. Horrez gain, zortzi ibilgailu kaltetu ziren.

- Taulan agertzen diren 15 atentatuetan, hiru etapa bereiz daitezke. Lehenengoa, ETaren hasierako garaikoa: erakundeak Francoren erregimenaren laguntzailatzat zituen pertsonak ziren jomuga, eta atentatuak hirurogeita hamarreko hamarkadan izan ziren. Bigarren blokea 1980. eta 1984. urteen artekoa da; garai horretan Iberduero enpresari egin zioten aurka, Lemoizko zentral nuklearra eraikitzeagatik, baita bankuei ere. Laurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera kale borroka zen nagusi, baina 2005ean ETA berriz ere itzuli zen, “iraultza-zerbaren” metodologia erabiliz, eta 2008an PSE-EEren egoitzari egin zion eraso.

Eskuin muturreko taldeen edo talde parapolizialen erasoak ondasunen aurka

Data	Noren aurka	Ondorioak	Egilea
1979-09-27	José Osoro Loiola preso ohiaren autoa	Kotxea erre	Inkontrolatuak
1992-06-25	Kimetz elkarte	Gasa jaurti	Ezezagunak
1992-09-08	Jarraiko kide baten aitaren ibilgailua	Kotxea izorratu	Ezezagunak
1997-07-14	Juan Carlos Merino zinegotziaren etxea	GALEko pintadak	Ezezagunak
1997-10-16	JC. Merino HBko zinegotziaren aurka	Bala bat bidaltzen dute	Ezezagunak

- Lehenengo ekintzan izan ezik (José Osoro Loiola preso ohiaren autoa erre zuten hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran), gainerako lau erasoak laurogeita hamarreko hamarkadan gertatu ziren.

Kale borrokaren atentatuak, sabotajeak eta indarkeriazko ekintzak

Data	Noren aurka	Ondorioak	Egilea
1979-03-21	Guardia Zibilaren Land Rover bat	Molotov koktela jaurti	Manifestariak
1986-08-13	Bandera espainola	Erretzen dute	Bi gazte
1987-10-07	Autobus bat errepidean gurutzatuta	Su eman diote	Manifestariak
1987-10-07	Bilbao Bankua	Kristalak hautsi	Manifestariak
1987-10-07	Hispanoamericano Bankua	Kristalak hautsi	Manifestariak
1987-10-07	Renault kontzesionarioa	Kristalak hautsi	Manifestariak
1988-03-04	Renault kontzesionarioa	Kristalak hautsi	Manifestariak
1988-12-10	Autobusa	Erretzen dute	Manifestariak
1989-11-21	Renault	Kristalak hautsi	Manifestariak
1989-11-21	Correos	Kristalak hautsi	Manifestariak
1989-11-22	Santander Bankua	Kristalak hautsi	Manifestariak
1989-11-22	Bilbao Bankua	Kristalak hautsi	Manifestariak
1989-12-22	TVEko antenak	Hautsi	Kale borroka
1990-06-27	Telefono kabinak	Erre	Kale borroka
1990-09-14	Murias enpresako hiru induskailu	Su eman	Kale borroka
1991-05-08	Santander Bankua	Kristalak hautsi	Manifestariak
1991-05-30	Hispanoamericano Bankua	Kristalak hautsi	Kale borroka
1991-05-30	Guipuzcoano Bankua	Kristalak hautsi	Kale borroka
1991-05-30	BBV Bankua	Kristalak hautsi	Kale borroka
1991-08-30	Udaletxeko paretak	Pintura jaurti	Manifestariak
1991-08-30	Batzokia	Pintura eta kristalak hautsi	Manifestariak
1991-09-13	Ertzaintzaren Nissan autoa	Molotov koktela jaurti	Kale borroka
1992-01-30	Guipuzcoano Bankua	Lehergailu bat	Kale borroka
1992-03-21	Telefono kabina	Erreta	Kale borroka
1992-03-23	PSE-Eeko egoitza	Pintadak	Ezezagunak
1992/Apirila	Jose M ^a Oruesagasti PNVko zinegotzi	Ibilgailuko gurpilak hustu	Ezezagunak
1992/Apirila	Ricardo Garate, PNVko zinegotzi	Ibilgailuko gurpilak hustu	Ezezagunak

Data	Noren aurka	Ondorioak	Egilea
1992-05-02	Bi telefono kabinak	Erre	Kale borroka
1992-06-26	Telefono kabina	Erre	Kale borroka
1992-07-23	Batzokian	Lehergailu bat	Kale borroka
1992-10-24	BBVko sukurtsalean	Lehergailu bat	Kale borroka
1993-08-05	Tren-geltokiko makina	Erre	Kale borroka
1993-08-25	Telefono kabina	Erre	Kale borroka
1994-11-21	Hispano-Central Bankua	Kristalak hautsi	Ezezagunak
1995-03-25	Kutxa	Kristalak hautsi	Kale borroka
1995-03-25	Guipuzcoano Bankua	Kristalak hautsi eta su eman	Kale borroka
1995-03-25	Bankoa	Kristalak hautsi eta su eman	Kale borroka
1995-03-25	Telefono kabinak	Kristalak hautsi eta erre	Kale borroka
1995-09-07	Telefono kabina	Lehergailu bat	Kale borroka
1995-09-12	Peugeot kontzesionarioa	Kristalak hautsi	Ezezagunak
1995-10-21	Euskailuak	Erre	Manifestariak
1995-11-11	Hispanoamericano Bankua	Kristalak hautsi	Kale borroka
1995-11-22	Peugeot-en kontzesionarioa	Kristalak hautsi	Kale borroka
1995-12-02	Santander Bankua	Molotov koktela	Kale borroka
1995-12-16	Telefonika	Erre	Kale borroka
1996-02-01	Errepikagailuko goi-tentsioko zutabea	Lurreratu	Kale borroka
1996-03-02	Mapfre Aseguruak	Kristalak hautsi	Kale borroka
1996-03-02	Telefono kabinak	Kristalak hautsi	Kale borroka
1996-05-31	Renault-en kontzesionarioko garabia	Molotov koktela jaurti	Kale borroka
1996-07-18	Tecnipe entpresaren furgoneta	Gurpilak hustu	Ezezagunak
1996-07-19	Ertzaintzaren ibilgailuaren aurka	Molotov koktelak jaurti	Kale borroka
1996-10-11	Telefono kabina	Erreta gelditzen da	Kale borroka
1996-11-30	Bilbao Aseguruak	Kristalak hautsi eta sua eman	Kale borroka
1997-03-04	Hispanoamericano Central Bankua	Kristalak hautsi	Kale borroka
1997-04-25	PSE-EEko egoitza	Lehergailu bat	Kale borroka
1997-06-07	Karakateko errepikagailuko zutabe elektrikoa	Lurreratu	Kale borroka
1998-06-06	Kutxa	Kristalak hautsi	Ezezagunak
2001-06-16	PSE-EEko egoitza	Lehergailu bat	Kale borroka
2004-09-22	Bi banku-erakunde	Molotov koktelak jaurti	Kale borroka
2004-09-22	CCOO sindikatuaren egoitza	Molotov koktelak jaurti	Kale borroka
2007-03-08	Eibar-Elgoibar trenbidea	Sabotajea	Kale borroka
2007-12-13	PSE-EEko egoitzaren ate ondoan	Pneumatikoak erre, kristalak	Kale borroka

• Ikus daitekeenez, salbuespenezko kasu batzuetan izan ezik, kale borrokako erasoak edo manifestazioetako indarkeriazko erantzunak ez ziren bonbekin egiten; gehienetan, molotov koktelak eta likido sukoiak erabiltzen ziren suteak eragiteko. Beste eraso batzuk harriak edo bestelako objektuak jaurtiz egiten ziren.



4. LABURPEN TAULA

Giza eskubideen urraketen argazki-laburpena			
	1956-1975	1976-1978	1978-2016
ETAk (pm), ETAk (m), Komando Autonomoek			
Hildakoak			
Atentatuak	-	1	6
Bahitu eta hil	-	1	-
Zaurituak			
Atentatuan	-	-	6
Beste bahiketak			
Familia baten bahiketa	-	-	1
Bahitu eta libre	-	-	1
Beste urraketa batzuk			
Enpresa, kuartel, bankuen aurkako atentatuak	4	-	10
PSE-EEko egoitzaren kontrako lehergailua	-	-	1
Kotxeak lapurtu, jabeak bahitu eta lotuak utzi	-	3	3
Armen lapurreta handia	-	1	-
Bizkartzainak zituzten pertsonak	-	-	9
Estorsio ekonomikoa	Zehaztugabea		
Talde parapolizialek, eskuin muturrekoak			
Ibilgailua erre edo hautsi	-	-	2
Kimetz Elkartearen aurkako erasoa	-	-	1
HBko zinegotzien aurkako mehatxu larriak	-	-	3
Lehergailu batekin Zazpika Irratia mehatxatu	-	-	1
Beste mehatxu mota batzuk		Zehaztugabea	
Segurtasun indarrek			
Zaurituak			
Zauri garrantzitsuak (balaz lau)	-	-	15
Beste urraketa batzuk			
Tiroekin bizilagunak beldurtu izua sortuz	1	-	2
124 atxilotetetan torturak salatu dituztenak	4	2	22
Salbuespen egoerak askatasuna murriztuz eta atxiloketa arbitrarioak gauzatuz	6	1	-

Giza eskubideen urraketen argazki-laburpena			
	1956-1975	1976-1978	1978-2016
Kale-borroka, sabotajeak eta indarkeriazko hainbat protesta			
Zaurituak			
Bizilagunen aurkako molotov koktelak jaurti	-	-	4
Beste urraketa batzuk			
PSE-PSOEren egoitzaren aurkako erasoak	-	-	5
EAJ-PNVko zinegotzien aurkako ekimenak	-	-	3
Batzokiaren aurkakoak	-	-	4
CCOOen egoitzaren aurkako erasoak	-	-	1
Guardia Zibilaren Land Rover bati erasoak	-	-	1
Ertzaintzaren ibilgailuen aurkako erasoak	-	-	5
Autobusak erre	-	-	2
Renault eta Peugeot kontzesionarioen aurkako erasoak	-	-	8
Bankuen aurkako erasoak	-	-	21
Hainbat erakunde, enpresa eta azpiegituren aurkako erasoak*	-	-	40
Mehatxuak	Zehaztugabea		
Su-barrikadak eta errepede mozketak	Zehaztugabea		

* Mapfre, Bilbao Aseguruak, Telefonika, Udala, Murias, trenbidea, telefono kabinak, antenak...

Ikerketa sakonagoa behar duen kasua	
Zauritua	
Guardia zibil baten zauriak 1981ean	1



5. BESTE INDARKERIA ETA SUFRIMENDU EKINTZA BATZUK

Txosten honek, Elgoibarren gertatutako giza eskubideen urraketen berri emateaz gain, herrian gertatutako beste indarkeriazko ekintza batzuen berri ematea ere badu xede, betiere motibazio politikoarekin lotura badute. Eraso horiek aintzatespen edo erreparazioari dagokionez dituzten inplikazioak ezin dira alderatu aurreko puntuetan aipatu ditugun giza eskubideen urraketekin.

Atal honetan sartzen dira giza eskubideen nazioarteko estandarretan sartzen ez diren sufrimenduak, baina jasandako indarkeriazko testuinguruaren ondorioz sortu direnak. Ez dakigu, esaterako, udalerrri honetako segurtasun-indar eta -kidegoetako kideen artean zenbatek egin duten beren buruaz beste, halakorik egon bada, edo zenbatek izan dituzten ondorio psikologikoak bizi izandako tentsioaren eta egoeren eraginez. Ez dakigu, halaber, indarkeriaren eragina jasan duten udalerriko biztanleek zer-nolako ondorioak izan dituzten.

Badakigu heriotza eta sufrimenduak sortzen direla askatasunik gabe dauden pertsonen baldintza bidegabeen eta isolamendu luzeen ondorioz. Badakigu pertsona ugari istripuetan hil direla presoak beren familiartekoak bizi diren herrietatik milaka kilometrotara daudelako; badakigu egoera horrek zer-nolako eragina duen adineko eta gaixoengan, ezin dituztelako kilometro horiek egin autoz; badakigu badaudela ulertzen ez dituzten egoerak pairatu behar dituzten haurtxoak...

Hainbat urtetan zehar, indarkeria mota guztien aurrean Gesto por la Paz taldeak elkarretaratze isilak egiten zituen. Ana Rosa Gomez Moral *Bake Hitzak* aldizkariaren zuzendaria da eta *“Un gesto que hizo sonar el silencio”*⁴⁶ liburua idatzi zuen Gesto por la Paz de Euskal Herria koordinakundeak 28 urteko keinuz beteriko zikloa ixtea erabaki zuenean. Hau idatzi zuen Gomezek 2014an: “praktika hori antidoto bikaina da heriotzaren logika onartzearen aldeko erantzunei aurre egiteko”⁴⁷.

“Edozein heriotza” esaten denean, indarkeria hori gauzatzen duen pertsona bat berak egindako erasoaren ondorioz hiltzen denean ere kontuan hartu behar dela esan nahi da. Hori da Gesto por la Paz koordinakundearen bereizgarrietako bat eta, agian, baita herritar gehienentzat ulertzeko eta onartzeko zailena den printzipioetako bat ere. Hala ere, praktika horrek eskatzen duen ahaleginak barneko eta kanpoko humanizazio mekanismo garrantzitsuak hartzen ditu barne; izan ere, alde batetik, indarkeriak ezarri nahi duen hildako onen eta hildako txarren moral bikoitza hausten du eta, beste alde batetik, herritarrak babesten ditu indarkeria horren zenbait ondorio onartzeko tentaziotik.

Printzipio hori onartzea zaila da; izan ere, zabaldu den uste orokorraren arabera, praktika horrek biktimak eta borreroak berdindu egiten ditu. Ez da hala. Gesto por la Paz koordinakundeak berdintzen duena bizitzaren goreneko balioa da, eta hori ez du oztopo aldi berean inolako leungarririk gabe indarkeria mota oro arbuiatzeko eta, beste ezeren gainetik, gizaki batek beste bati eragin dakioken bidegabekeriari handiena arbuiatzeko. Hala, Gesto por la Pazek gaitzesten duena giza bizitzaren alferrikako galera da, bizitza horien jabeak hil edo erail aurreko uneetan egiten ari zirenari buruz dugun iritzia edonolakoa izanik ere. Hildakoek bizirik zeudenean egindakoa epaitzeak honako eztatanda hau dakar: batzuentzat terrorismoa dena, besteentzat heroien lana da; batzuentzat erailketa hutsa dena, beste batzuentzat askatasunaren aldeko sakrifizioari gorena da; batzuentzat bizia demokraziaren alde ematea dena, besteentzat zapaltzailearengandik askatzea da. Hala ere, norberaren balio-kodea gorabehera, eta guk gure indar guztiekin defendatzen ditugun balioak edozein direlarik ere, hildakoen azken egia da bizia galdu dutela. Ondorio horrek bere horretan jarraituko du, baita indarkeria bukatzen denean ere.

⁴⁶ GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA koordinakundea (2013), Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzaren laguntzarekin editatua.

⁴⁷ GOMEZ MORAL, Ana Rosa. *Contra todas las muertes*. Bake Hitzak, 54. zk., 2004ko maiatza, 19.-22. orrialdeak.

Hauek dira Elgoibarrekin zerikusia duten kasuak, hala gertakariak herri horretan izan direlako, nola horietako protagonistak herrian jaio edo bizitakoak direlako, gertakaria beste nonbait izan bada ere. Hona hemen bi kasuak:

1. Heriotza ondorio izan duten kasuak

- 1983ko apirilaren 19a. José Antonio Garate Askasibar, 25 urtekoa. Elgoibarko baserri batean jaio zen, baina, zazpi urte zituela, bere familia Eibarrera joan zen bizitzera. Herri horretako Jata enpresan egiten zuen lan. ETAm-ko militantea zen, eta, auto baten barruan bonba bat manipulatzeko ari zela, eskuetan lehertu zitzaion, Garibay aparkalekuan, Arrasateko Biteri etorbidearen ondoan. Dirudienek, lehergailua egoera txarrean zegoen. Gertakari berean hil zen Félix Badiola Etxaburu ere, eta beste bi militante zauritu ziren: Agustín Sarasketa Escibano eta José Luis Herrera Pérez. Hirurak Eibarren bizi ziren.

2. Zaurituak ondorio izan dituzten kasuak

- 1984ko azaroaren 27a. Iñaki Jaio Bustuinduik zauri larriak izan zituen Elgoibarren polizia-sarekada batetik ihes egiten saiatzean. Harekin batera atxilotu zituzten HBko alkateorde Mikel Alberdi Zubizarreta eta Juan Ignacio Irujo Garate, ETAm-ko komando bateko kide izatea eta hainbat atentatu egin izana leporatuta. Poliziarengandik ihes egiteko, Iñaki Jaio, 26 urtekoa, bere etxearen ondoko beste etxe batean sartu zen eta hirugarren pisuko balkoitik salto egiten saiatu zen, baina Poliziak tiro egin zion eta barruko patiora erori zen. Edurne Bustindui, Iñaki Jaioaren ama, Basurtoko Ospitalera joan zen, bere semea –larriki zauritua eta poliziaren zaintzapean inkomunikatua– ikustera; han, adierazpen hauek egin zizkion *El Diario Vasco* egunkariari⁴⁸: “heldu garenean jakinarazi digutenez, goizeko lehen orduan erizaina konturatu da Iñakik serumak itxita zeukala. Bere ondoan polizia nazional bat dago gau eta egun. Imagina dezakezue zer gaizki sentitzen garen. Ez dugu ulertzen zergatik ezin dugun bisitatu. Unetxo batez baino ezin izan dugu harekin egon, buruko plaka batzuk ateratzera zeramatenean”.

⁴⁸ *El Diario Vasco*, 1984-11-29.



6. ZENBAIT TESTIGANTZA: INDARKERIAZ, BIZIKIDETZAZ ETA MEMORIAZ

Ondoko lekukotza hauek jasotzean, helburua ez da izan Elgoibarko iritzi politiko, sozial edo ideologiko guztien bilduma osatu bat burutzea, gurea xumeagoa baita. Aipaturiko lan horrek oso luze joko luke eta kasu honetan ezinezkoa litzateke, hainbat baldintza direla eta. Jarraian, hamar pertsonari egindako elkarrizketetan jasotako bizipenak eta iritziak biltzen dira, indarkeriak bizikidetzan izan duen eraginaz; baita ere memoria partekatu bat eraikitzeke gutxieneke proposamenei buruz. Izan ere, herritar anitzen islatzat hartu ditugu, gaiaren konplexutasuna eta ñabardurak agortutzat eman gabe, jakina.

Beraz, Elgoibarren bizi edo herriarekin nolabaiteko lotura duten zenbait pertsonen kontakizunak eta iritziak jaso nahi izan ditugu. Iraganeko indarkeria egoera desberdinak oroitzea, indarkeria horien ondorioei buruz gogoeta egitea eta etorkizuneko bizikidetzari begira proposamenak edota desioak biltzea izan da gure saiakera.

Iritzi aniztasuna bermatzeko, gure mugak azaldu ditugun bezala, gertakarien inguruan beste horrenbeste adierazi nahi dugu, zailtasun handia baitago iragan hurbilean, Elgoibarren gertatutako guztia zehatz-mehatz biltzeko. Hori ere ez da gure helburua, beti ahaztuko baitzaigu esanguratsua den zerbait. Kontuan hartu behar da, alde batetik, txosten honek diktadura garaiko hainbat urte ere jorratzen dituela eta gaur egun oraindik zenbait artxibo aztertzeko topatzen diren zailtasunak; eta beste aldetik, memoria historikoari lotutako material ugari -idazkiak, irudiak, ...- galdu egin dela, horiek gordetzeko zeuden zailtasunak direla eta.

Bestalde, ia solaskide guztiek sentsazio bikoitza agertu dute, euren kontakizuna azaltzean. Batetik, sufrimenduzko une gogorrak oroitzeak sortzen duen garraztasuna, eta bestetik, pairatutako min hura ahaztu gabe, bizikidetzaren giro berri bat ezagutzeko duten itxaropena eta horretan laguntzeko borondatea. Gure ustez, aipaturiko testigantza horietan -bakarka eginiko elkarrizketa luzeetan-, jasotako adierazpenek nahiko ondo islatzen dute, beste elgoibartar askok hein handi batean partekatu dezaketen hainbat bizipen eta sentsazio iraganekoak, baita gerorako nahiak ere.

Hala ere, jabeturik gaude indarkeriazko gertakari batzuk guztiz erabakigarriak izan direla gure bizitzetan, euren eragina norbanakoarengan modu desberdinean izan duten arren. Bestalde, kasu batzuetan gertakariok oharkabea ere igaro izan dira bakoitzarengan, adina dela eta, edo beste alde batera begira egoteagatik.

Zenbait bizipenek arrasto berezia utzi ohi dute norberarengan eta eragina izan ohi dute gerora bizitzan zehar. Atal honetan, indarkeriari lotutako esperientzia esanguratsu batzuk biltzen dira, gure solaskideen pentsamoldean eta euren bizitzetan hartutako hainbat erabaki garrantzitsuetan zerikusia izan dutenak.

Txostenean zehar solaskideen adierazpenak zenbait ataletan egilearen izenik gabe txertatuta topa daitezkeen arren, jarraian euren irudipen batzuk jasotzen dira, izen abizenekin.

6.1. INDARKERIAZKO GERTAEREK SOLASKIDEENGAN ERAGINDAKO ZIRRARAK

Ondoren biltzen diren bizipen esanguratsu hauek ez dute indarkeriazko gertaeren zerrenda edo sailkapen bat osatzeko helbururik, solaskide izan diren pertsona horiengan zirrara berezia sorrarazi duten hainbat uneren oroitzapenak baizik. Norberaren memoria eraikitzean, bizitzan zehar jasotako zirrara horiek ibilbide luze baten erakusle dira, bizipen horiek arrasto sakonak uzten baitituzte norbanakoaren memorian, hain zuzen ere, etorkizunean memoria kolektiboa osatuz joango direnak. Hori dela eta, kontakizun batzuetan frankismoaren garaiko aztarna ugari jaso ohi dituzte; beste batzuetan, ordea, azken hamarkadetara mugatu ohi dira, soilik. Jakina, biak hala biak guztiz baliagarriak izan daitezke, txosten honen xedea betetze aldera.

Aipaturiko oroitzapenak, bi multzotan bildu ditugu atal honetan, kronologia alde batera utzita. Lehenengoan, eremu zein testuinguru irekia hartu da, solaskide bakoitzaren ibilbidea gorde asmoz; bigarrenean, esparrua mugatu egin da Elgoibarko errealitateri atxikirik, bertakotasunari lehentasuna emanez.

6.1.1. ESPARRU OROKORREKO GERTAEREI BURUZ

Nerea Alustiza Alonso, PSE-EEko zinegotzia.

Behin, etxetik gauez tiroak entzun nituen. “No eran balas de goma, eran tiros”. Aitak armagintzan egiten zuen lan eta bazekien bereizten, balas dum-dum erabiltzen zuten. Garai horretan hil zuten Roberto Perez Jauregi, Burgosko Prozesuaren inguruan. Horrek egiten zaban biharra nire aitarekin. Geroago, Lorentxo Zabala sekuestrau egin zuten. Bera jaio eta bizi izan zan gure etxian, gure portalian.

Txikitatik inpaktatu ninduten, Lorenzo Zabalaren bahiketa eta Berazadiren erailketa. Gero, “las penas de muerte”. Onaindia Eibarren bizi izan zen, nire amak ezagutzen zaban Etxabe, apaiza. Baina niretzat topea izan zen Miguel Angel Blanco.

Inpaktu gehiago, gure aldetik akabau edo hil egiten zabenian gure taldeko kide bat, adibidez, Carrasco, Priede, Elexpe, ... Niretzat gogorrena? Ba, eskerrak, Benjamin Atutxaren ez-bahiketarekin, zinegotzia eta laguna. Nahi zebe egitea Miguel Angel Blancori egin zeitzena. Nahi zebe harrapatzea Eibar eta Ermu ondoan dagoen presan. Lehen joaten nintzen egunero eta han beti Benjaminekin, bera korrika, buelta bat eta beste buelta bat. Eta komandoa han zegoen. Eskerrak bere bizkartzainari, lortu zeban gazte bat eta elkarrekin korrika ibiltzen ziren. Azkenean, hori esan zebe komandoko jendeak, ezin zebela lortu, beti baten batekin zegoelako.

Mari Juli Arregi Gorrotxategi, ezker abertzaleko kidea.

Nire aita eta nire ama datoz gerrako errepresiotik. Nire aititixak, biak egon ziren. Bat egon zan gerran eta ibili zan Valentzia aldian. Nire ama, amama eta hiru anai-arreba egon ziren Frantzian errefuxiatuta. Etxerik gabe geratu ziren eta ezer gabe bueltatu zirenean, baserrira joan ziren, ez zeukaten ezer. Eta bestearen aldetikan, hiru ziren eta bata joan zen Frantziara eta bestea Mejikora, gerra eta gero, Argelès-sur-Mer eta Gourseko kanpo de konzentrazioetan egon eta gero. Horrek nik uste dot markatzen

zaituela. Ama oso nazionalista zan, abertzalea, aita gutxiago, bueno, gehiago ezkerreko joera zeukan. Gero, gu izan ginan ikastolako lehenengo umiak. Frankismoan ezin zen ezertaz hitz egin eta horrek markatzen zaitu, pixkat.

Franco hiltzen da ni 15 urterekin, baina Franco hil aurretik ibiltzen ginan jaialdi guztietan. Nik gitarra jotzen nuen. Franco hil zenean hemen eferbeszentzia politiko antzeko bat izan zan, jende asko inplikatu zen. LAIA n hasi ginen, asanblada handiak egiten ziren hemen. Inpaktu handia sortu zitzaidan, Aitor Argarate atxilotu zutenean. Komisaldegian ez dakit zenbat denbora egon zan, esajerazio bat, atxilotuta egun askotan. Kriston entzerronak, eliza osoa beteta, amnistiaren aurretik izan zan. Tortura asko, asko torturatu zuten. Horrek inpaktatu ninduen pila bat.

Justo Arriola Etxaniz, “A los pies del caballo” liburuaren egilea.

1993ko abuztuaren 23an, okupatutako lokalaren kanporaketa arriskutsuak zirrara handia eragin zidan. Ertzaintzak argia moztu eta gasa bota zuen barruan berrogei gazte geundela. Dena zen iluntasuna, beldurra, itolarria, mina eta garraxi lazgarriak. Gehienek kalera irten zuten. Zazpi gaztek bi ordu eutsi genuen barruan. Lau egun lehenago Juan Calvo gas toxiko berberen ondorioz itota hil zuten Arkauten!!! Sei gazte atxilotuak izan ginen eta furgonan beste birekin elkartu ginen. Handik gertu afaltzen ari zen udalbatzak (HBkoak ezik) ezezkoa eman zieten elkarrizketari baita gomazko piloten erasoak gelditzeare ere. Jasandako tortura publikoki salatu genuenean beraien isiltasun konplizea nabarmena izan zen.

Juan Jose Bastarrika Garate, Euskadiko Ezkerrako zinegotzi ohia.

Hemen pasatu da behin amnistia eman zanean, 1977an, ETA politiko-militarrak segitzen du; ETA militarrek segitzen du. ETA politiko-militarrak behin Autonomi Estatutua onartzen darian, hasten da planteatzen desagertzea. ETA militarrek segitzen du. 79an onartzen da Autonomi Estatutua. 80an, ETA militarra dixe demokrazia rebentatzera. Ez du lortzen eta handik aurrera darama biolentzia selektiboagoa, politikoak eta abar, baina zer gertatzen da? ETAk bilatu izan du beti negoziazio politikoa, ez du lortu, frakasatu egin du eta militarki derrotatua izan da. Herri honetan garbi hitz egin behar da, bestela gaur egun oindio batzuk segituko zeben biolentziakin. Oso garbi daukat. Ze ez da autokritikarik egon, ez da egon, derrotatua izan denez. Orain ze pasatzen da? “No tiene que haber ni vencedores, ni vencidos. A ver, vamos a ver”. Ezta hori hola. Konbibentziaren bueltan hori makilatu nahi izatia, irteera bat eman behar zaiola? Joder, errekonozitu ezazue, autokritika eizue eta “¡Ya está!”. Ez ibili hemen, “¿Mediadores internacionales? Habéis sido derrotados militarmente, reconocerlo. ¿Para qué ha servido, para nada, tanto muerto, tanto sufrimiento? ¡A casa, joder!”.

Ane Beitia Arriola, Elgoibarko alkatea eta EAJko kidea.

Ni hasi nintzanean ikasten, medikuntza, Bilbon, Deustuko zubitikan pasa behar izaten ginan askotan eta han zegoen Euskalduna. Garai hartan -1983- tiroak egoten ziran egun batian eta bestian ere bai. Egoten zan zubixa itxita ta ni ikaratzen ninduana gehixenbat zan, zelako lasaitasuna geneukan batzuetan handikan juteko eta handikan pasatzeko, zegoen liskarra egonda. Manifestazioak ikusten

genitun pila bat eta tiroak entzuten genitun. Hura gerria bezalakua zan eta enfrentamenduak ziran egunerokuak. Harek markatu nau.

Gatazkak zeuden lan kontuengatik. Jendia hasten zan mobilizatzen talde handixetan ta zelako garra edo sumina zeukaben, oso potentiak ziren. Jendiak bere bizimodua egiten zaban beste esparru batzuetan, batzuentzako normalizatua zan, baina neretzako, ez; ni hemendikan herritik junda. Zelan bizi leike holako liskarra egunero egonda, holako normaltasunaz? Jendiak eingo balu bezala edo eingo bagendu bezala, hau hauen arazua da eta guk gure bizimodua jarraitzen dogu, eztaikit pa.

Arantxa Berasaluze Iriondo, EAJko gertukoa.

1939an gerra bukatu apirilean eta ni irailean jaio nintzen. Nire familian egon ziren sufrimenduak gerra denboran. Abertzaleak ziren eta mantendu zen abertzaletasun hori beti. Gerra garaian hiru senide fusilatu zituzten. Nik etxean beti entzun dut, berriz ez horrelakorik eta ni horrekin hezi naiz, berriz ez horrelakorik. Gero, hortik aurrera izan degu euskara debekatuta eta dotrina bi eratara ikasi behar, eskolan erderaz eta apaizarekin euskaraz. Kolore zuria, gorria eta berdea, horrek ere ibili ezindakoak ziren. Ikurrin bat azaltzen zenean nonbaiten, denok pozten ginen. Nik gogoratzen dut Donostiako Buen Pastor dorrean ipini zutenean -Joseba Elosegí-. Amaren ahizpa bat bizi nuen Buen Pastorren eta “Begira-begira zer jarri duten hor”, nik hura ikusi nuen. Mundu horretan bizi nintzen.

Gero, Meliton Manzanás hil zuten eta lehenengo momentuan nire ideia izan zen, merezita dauka. Baina pertzepzio hori ja gero joan zitzaidan, gero damutu naiz hori pentsatzea momentu hartan, bizitza kentzea horrela pertsona bati. Garai horretan izan zen Burgosko prozesua eta iruditzen zitzaidan niri, nahiko prozesu gogorra izan zela. Han zegoen jendea, nik ezagutzen nituen prozesu hartakoak, Jon Etxabe, Altzolakoa. Eta pentsatzen nuen prozesu hartako jendeak ez zeukala odol deliturik, ez dakit edukiko zuten ala ez, baina nik ezagututako jendea zen eta nik askotan pentsatu dut, nik nola ihes egin nuen mundu horretatik?

Carrero Blanco ere orduantxe izan zen. Orduan, pentsatu nuen ETAkoak listoak zirela momentu hartan, hura horrela egitea. Zergatik? Ba, Carrero Blanco zelako Francoren ondorengoa izango zena. Kontestu horretan, halako justifikazio bat neure buruari ematen nion, baina gero pentsatzen nuen, baina zelan egingo dut nik hori.

Bruno Guerrero Labanda, konstituzionalista.

92an soldaduskan nengoen, gidaria nintzen eta bere onetik aterata zeuden gazteak, Madrilgo “Capitanía General”-era eramane behar izaten nituen, psikologoak ikus zitzen. Kontua da egun horretan, ez dakit zergatik, zerbitzua bertan behera geratu zela. Bueno, ba egun horretan “Capitanian” zortzi pertsona hil ziren, ETAren atentatu batean. Hildakoetako bat, betiko ibilbidea burutzen ari zen tipo bat, eta askotan egiten genuen topo ibilbide horretan. Ni izan nintekeen horietako bat, gidaria esate baterako.

2005etik aurrera ni erabat integratua sentitu nintzen, baina beheraldi potolo bat izan nuen. 11M-ko eguna izan zen. Ni Torrejonen bizi nintzen eta tren hori lauhun mila miloi bider hartzen nuen. Ez genekien nire anaia non zegoen, non zeuden lagunak, eta noski, hain garbi esaten zen ETA izan zela, emazteari esan nion, “hartu eta alde egingo dugu” [Elgoibartik]. ETA ez zela izan jakitea,

oneski, liberazioa izan zen niretzat. Mundu guztia zegoen baita “zera hauek” ere, aurpegiak erabat itxuragabetuta. Eta horra non, zorionez, ez litzateke gauza bera izango ETA izan balitz. Oso gaizki pasa nuen ordu horietan. Arnaldorekin askotan egiten dut topo korrika egitera joaten naizenean, eta hari entzun nion, ba berak jakingo du, hain konbentzitura esaten badu, hala izango da. Gertatzen dena da gauean Aznar Entzuten jarraitu nuela. Baina Arnaldok esaten badu ez direla izan, ez dira izan, hala ematen zuten aditzera bere hitzek. Baina bestalde telebistetako makineria guztiek bestea esaten dute. Azkenean frogatu zen arte. Oso gaizki iruditu zitzaidan, lotsagabekeri bat, batez ere horrelako ezbehar bat sufritu duen herrialde bat engainatzen aritzeagatik.

Pello Mendizabal Alberdi, Herri Batasuneko zinegotzi ohia

Umea nintzela inpresionatu ninduen gauza bat izan zen gu gelan geundela eta orduan Burgosko Consejoa izan zen, gu gelan egotea eta jendea korrika. Eta gero etxerantz joaterakoan plazatik pasatu eta jende pila, asanblada bat edo. Beste zera bat, hemengo enpresario bat, SIGMAko enpresarioa, Aingeru Berazadi ETAk bahitu zuen eta hil egin zuen. Orduan zenbat jende bildu zen funeralean, akto bat egin zen SIGMAn. Horrek ere inpaktatu ninduen. Jada gazteagoa 78-79 urtean, kalean ibiltzen ginen garai hartan gazteak eta Guardia Zibilaren presentzia itogarria zen. Hori akordatzen naiz, sasoi hartan Oestean bezala, pelikuletan Oestea bezala, kalean jendea apartatu egiten zen eta edozeini zer edo zer esan. Gauza horiek, beldur hori, bai, badaukat.

Gasteizen egin nuen Filosofia y Letras eta orduan martxoaren 3ko gertaerak izan ziren. Ni elizan nengoen, orduan, gertatu zenean. Bakoitzak bizi izan du berea. Niri tokatu zait Iruñera joatea jaietan eta ez zuzenean bizi, ez nengoen plazan, baina bizi izan nituen ondorio guztiak, German Rodriguezena. Bilbon ere bizi izan nintzen urte batzuk eta Joseba Asensio, “Kirruli”, hau tuberkulosiaz hil zen espetxean. Eta orduan funerala edo nahi izan zen akto bat egin gorpurekin. Mahai Nazionallean zegoen jendeak nahi zuen gorpua eraman akto batera eta polizia inguratuta. Eta jo eta jo, gure kontra gomazko pelotak. Oso gogorra. Haiek gorpua eramaten eta hauek jotzen. Hurbiltzen ginen eta horien tiroak. Holaxe.

Noemi Otegi Lopez de Murillas, EAJko kidea.

Eta 12-13 urterekin nik erabakitzen dudala, ba politikoki situatzen naizela Eusko Alderdi Jeltzalean eta PNVkoa naizela. Ez da erabaki samurra, ezta erreza, Ordizia batekoa izanik eta hain gaztea izanik, baina oso argi neukan eta inongo lotsarik gabe eta inongo damurik gabe argi plazaratu nuen. Bizi izan genituen presioak, nire atzetikan kantuan –himno espainiarra- etxeraino jarraitzen ninduten, hamalau urterekin, Ordiziatik Itsasondoraino. Lazo urdina jartzeko gai izan nintzen behin baino gehiagotan gaez Ordizian. Tentsio une ikaragarriak bizi izan genituen.

Nire memoria Yoyesen heriotzarekin hasten da -8 urterekin-. Gogoratzen naiz arratsalde horretan amona etorri zala gure bila, aita eta ama manifestaziora joan nahi zutelako. Gogoratzen naiz plaza hartaz, gogoratzen naiz herrian zegoen zurrunbiloaz. Gogoratzen naiz plaza horretan emakume bat hil zutela, niretzat hori izan zen, puff... Hemen hil dute emakume bat eta bere semea ondoan zegoen, bere etxekoak ere gertu. Ondoren nire gelakide Amalurren aita hil zuten, guardia zibila, ama abertzalea. Nik oso goiz izan dut kontzientzia gure herrian zerbait larria gertatzen zela. Nirekin ikasitakoak atxilotuak izan dira. Nire bizitzan gatazka izan da parte garrantzitsu bat eta bizi izan dut oso barrutikan.

A. S. J., ertzain baten bikotea.

Kolektibo gisa, ertzainak begipuntuan zeuden, ezin da mesprezuarekin begiratu ezta goitik behera ere. Noizbait egunerokoa izango da, polizia munizipala ikusten dugunean bezala. Logroñon zaude, Laurel kalean trago batzuk hartzen eta polizia Nazionala pasatzen ikusten duzu. Eta euskaldun batek ikusten dituenean esaten du, Joder! Patruilatzen ari dira, orain gutxi garbitzailea pasa den bezala edo suhiltzaileak edo anbulantzia. Edo herrietan Guardia Zibilak eta herritar batek kafea hartzen duten bezala.

Hiri handietan lan egitea oso impersonala zen, oharkabean ibiltzea errazagoa zen. Gero Gipuzkoa barreneko herrietara bidaltzen zutenean, gorrotoa somatzen zuen, ez zen aurreko destinoetan bezala, zenbait girotan sartzen ez bazen behintzat. Ondoren Elgoibarren, sentipena ez zen beste beste herri horietakoa izan. Polizia Munizipalarekin sorpresa atsegina hartu zuen lan egiteko zuten moduagatik.

Etengabe erne ikusi izan dut, bere neurriak hartzen, zenbait giro saihesten eta zenbait taberna, baita taberna barruan kokalekuak zaintzen ere. Lanbidea isilpean gordetzen, arropa barruan zintzilikatzen, bainuontzian. Halere azkenaldian desberdina da, agerikoagoa.

6.1.2. ELGOIBARKO ETA NORBERAREN ESPARRUKO GERTAEREI BURUZ

A. S. J.

[Ertzaina den bere bikoteaz ari da] Gimnasia joaten hasi da, lehen ez zen maiz joaten, bizitza aldatu zaio, jakinda ez dela behin betikoa, inork ez baitu armak entregatzeaz hitz egin. Lehen egoerak eragindako estresak profesionalki eta pertsonalki ukitzen zuen. Orain bere lana atseginagoa da. Oraindik ere arreta jarri behar da, izan ere lasaitasun tensoa baita bizi duen egoera, oraindik ere okerrera egin dezake. Beldurra ez du baina bai ardura.

Bartxilerra bukatu nuenean galdetu zidaten: Eta zuk zer izan nahi duzu? Eta nik esan nuen ertzaina izan nahi nuela, “Lan Arriskuen Prebentzioa” ikasteko aholkatu zidaten. Sentitu nuen ez zidatela kasurik egiten, zertan nabil ni “Lan Arriskuen Prebentzioa”ez badut gustoko? Nahi nuen eurek ni gidatzea, hori zen beraien lana. Solasaldi horiek horretarako ziren, zuk zure etorkizuna antolatzeke, eta gainera hezitzaile batzuen harridura aurpegiak ikusi behar.

Noemi Otegi Lopez de Murillas

Hemen nengoela, bizi izan ditut niretzako atentatu bortitzenak edo barruraino iritsi zaizkidanak. Gaur egun nire lagun mina den Eduardo Madinaren atentatua hemen bizi nintzela izan zen. Oso lagunak ginen eta gara, bera Juventudes Socialistasen zegoen eta ni EGIIn. Gero Uriarena, niri Jaurlaritzan tokatu zitzaidan euskal Y grekoaren prozesuan parte hartzea, Garraio Departamenduan nengoen Sailburuaren aholkulari gisa eta Uriaren erailketa hemen nintzela gertatu zitzaidan. Eta niretzako bi horiek dira pertsonalki bizi izan ditudan unerik okerrenak.

Herrian, 2000tik hona egon dira ziurrenik atentatu konketuak, enpresariei mehatxu egoerak, atxilotuak, dudarik gabe Otegiren kasua, ikaragarritzko injustizia, baina beste maila batean gaude. Nik

uste, gatazkak hito desberdinak dauzkala, batzuk ikaragarritzko pisua dutenak eta besteak eguneroko bizitzan zama gutxiago zeukatenak. Enpresariak ez dira izan inoiz beraien egoera plazaratzeko, begira hau eta hau. Beraiek oso barrenean bizi izan dute egoera. Baina ikusi duzu zelako sufrimendua zeramaten, zelako zama.

Pello Mendizabal Alberdi

Atxilotua hiru aldiz izan naiz. Bat, Gasteizen ikasten nengoela, HB sortu zenean eta Mahai Nazionala atxilotu zutela eta erabaki zen Gasteizen ere egitea halako entzerrona bat protesta egiteko. Orduan grisak ziren, atera gintuzten eta atxilotuta eramane gintuzten. Gau bat izan zen, polizia batek eman zidan metrailadorekin. Beste behin, Donostian manifestazio batean, errefuxiatuen kontura zen. Denak korrika, taberna batean sartu eta eramane ninduten Gobernu Zibilera eta bidean paliza ederra eman zidaten, eurek tentsionatuta daude eta. Beste behin, Bilbon bizi nintzen eta polizia atzean izan nuen 6-8 hilabetez, oso gogorra. Atzetikan atxilotu arte, galdera batzuk eta pare bat ostia, 80ko hamarkadan.

Bruno Guerrero Labanda

Ni Elgoibarrera 29 urterekin etorri nintzen. Hasiera batean izugarri kostatu zitzaidan, Madrildik nentorren eta pintaketan kontua tokatu zitzaidan, kontzentrazioak. Atentzioa ematen zidaten, ez nuen sekula horrelakorik ikusi eta. Nik pentsatzen nuen alde egin beharko nuela, depresioak jota nengoen, ez nintzen ohitzen.

Lanean hasi nintzen, jendea ezagutu nuen, tankera askotako jendea, eta inflexio puntua, 2005ean, Elgoibarko lagun bat ezagutu nuen eta soziedade batetara eramaten ninduen, orain bazkide naizen elkartera. Orduan, nire izaera politikoarekin zerikusirik ez zuten lagunak egiten hasi nintzen. Garagardoak hartzeko jendea, afaltzera joateko, bizikletan aritzeko. Solasean gaudenean beroaldiak ere izaten ditugu.

Arantxa Berasaluze Iriondo

Eta nik gogoratzen dut Berazadi, bahitu eta negoziazioak zeudela. Bat eta beste entzuten ziren irratitik. Eta gero akabatu zutenean, niretzako hura oso gogorra izan zen. Pertsona bat besterik gabe, zer argumentazioekin akatu zuten? Hiltzeko arrazoirik ez dago sekula ere.

Arreserena izan zen oso gogorra, auzokoa zen, ezagutu dut bere familia, bere emaztea. Herriarentzako lana egindako gizon bat zen, bera zan UCDkoa. Nik ideologia errespetatu egiten dut, ni izan naiteke kolore batekoa eta hura bestekoa eta zeaitik ez denok. Denak esaten zebe, hori zelan egin leike? Hori zeaitik? Herrirako lan asko egindako gizon bat zan eta sekula ez genuen entzun gizon horregaitik gauza onak besterik. Eta besterik gabe, bera zerrenda horretan zihoalako. Baina zer dela eta, baina zeintzuk dira erabakitzen dutenak, hau fuera, bestea fuera, hori zan neretzako jasanezina, pertsona heltzea momentu horretara.

Ane Beitia Arriola

Aingeru akabau zabenian, nik hamar urte eukiko nituan orduan. Hura da lehenengo etortzen jatana Elgoibarren, baina neretzat lehenengua da Arrese. Ni institutuan nenguanian akabau zaben gizona, kartetan jolasten ari zala Iriondo tabernan. Bazkal ostian, jun ginanian institutura. Ez naiz akordatzan zein etorri zan, baina hasi zan komentatzen han semiaren kuadrilan inguruan ta zelan Arrese akabau zabela Iriondonian edo tirokatu zabela behintzat. Ez dakit nola definiu, baina rebuelua. Nik hamabost edo hamasei urte izango nituen. Nire barruan, samin hori, pena hori gizon horregatik; ze zan gizon ezaguna, alkate izandakua urte askuan eta gainera, semiak nik ezagututakuak ikastolan.

Behin, eduki genduan gauza oso kuriosua berarekin, Jaime Arresekin. Ikastolatikan beheruntz gentozen eta kontrol bat zeguan han, Maalan bertan. Hamabi terditan, bagentozan denak behera eta guardia zibilak jarri zian parera begira bezala, gugana begira, pixka bat kontrolatzera. Eta Jaime gerturatu zan euren gana, esatera ikastolatik jaisten ari ginela, atentzioa deitzera.

Nire aita alkate zala, egoera politikoa gogorra zan. Ez zan pankarta bat, paper handi bat zan idatzita. Aita zegoen urkatuta, baina izen abizenekin eta egon zan egunetan, Banco Santanderren paretian ipinita. Horrek, ostras, eragina dauka hemezortzi-hemeretzi urteko gazte baten. Bai, amorrua handixa ematen zidan eta gainera, inor ez zan izan hura kentzeko kapaza. Badakizu zer egin zaben aitag, ba beorrek kendu eta kajoian eduki gordeta, porque bazekixan zeinek ipini zeban hori.

Juan Jose Bastarrika Garate

Ni politika kontu honetan hasi nintzan frankismoaren kontra gartzetan eta askatasunaren alde, besteik gabe. Ni orduan situatu nintzen ezker abertzalean, non situatuko nintzen ba. Nere aita tornuan hil zan, familixan gauzak pasa ziran, ez neukan aukera haundirik. ElAn, Euskadiko Ezkerran,... prozesu guztia. Euskadiko Ezkerra desegin zanian, ba ez nintzen inora joan, ez nintzan identifikatzen inokin.

Nik uste dot reflexio jenerala zala eta igual batzuk, ba lehenago barneratzen genuen, izakeragaitxik edo pentsakeragaitxik, indarkeriakin amaitu behar zala. Euskadiko Ezkerran debate hori behin demokrazian sartu ginanian, oso bizi zauan. Ikusi baino eztao prozesua nola joan zen. Nik uste dot haustura izan zala edo definizioa Elgoibarren Arrese akabatu zutenean, orduan plenuan EEk inori kontsultatu gabe kondenatu egin zauan, manifestaldirik, deialdirik ez zan ein, baina bai, kondenatu genuen. Orduan Iñaki Bengoetxea zegoen (zinegotzi). Ni 83an sartu nintzen. Pertsonalki behin demokrazian sartu ondoren, nik ez nion funtziorik bilatzen (indarkeriari).

Justo Arriola Etxaniz

Lau alditan izan naiz atxilotua. Batean, ertzainek egurtu ninduten komisaldegian eta epaiketa irabazi naban. 1993an Gartzetxea sortzeko okupatu egin genuen leku munizipal bat eta bi egunen buruan kanporatu gintuzten. Abokatua eskatu naban, euskaraz egitea ere bai eta gero, erropia ez nuela kenduko-ta salto egin zuten nire gainera eta erropia apurtu. Borrakada pila jo zidan batek. Mina jasanezina egin zitzaidanean “Lurrian erdi hilda naganian eruiazue hospittalera” esan nion. Orduan erasotzailea joan egin zan eta beste bat etorri zan, barrezka: “Esto parece una película. ¿Cómo te llamas, Tobi?”, “ahora tú me vas a chupar la polla” eta halakoak esan zizkidan. Ez zidaten eman ez

mantarik ez azpikorik, ezta urik ere. Batek garbi zioen: “En esta casa te tratan como a un enemigo y ya sabes, al enemigo ni agua”.

Inkomunikatuta egon ginen, euskeraz hitzegiteko eskubidea ukatu ziguten, ziegako argia gau eta egun piztuta. Salaketa jarri genuen eta irabazi ere bai. Hiru ertzain zigortu zituzten: batentzat bi hilabeteko kartzela zigorra lesioengatik eta bi kalte-ordain Rafa Feijooentzat eta niretzat; beste bientzat isuna bidegabeko isekagatik, erropia apurtu zidan bati eta zakila miazkatuko niola lau bider esan zidan beste bati.

Nire beste hiru atxilotetak: bat, ertzainen kontrako “No les des kuartel” kartelak ipintzea leporatu zidatenean; beste bat, Urbina-Maltzaga-Urbina autopistaren kontrako ekintza zuzena eta baketsu bat egin genuelako eta, azkena, Urbinako AHTren obretan eserialdia egin genuenean.

Mari Juli Arregi Gorrotxategi

Martxoan, 77an, egon ginen atxilotuak 10 egun komisarian. Torturatuak eta gero kartzelara zuzenean pasa ginen. Alibio bat izan zen. Torturak salatu? Ez, oso gazteak ginen. Komisarian esaten ziguten, “¡Como se os ocurra denunciar esto, volvéis a venir aquí, a comisaría!”. Orduan, ez genuen ezer esan. Gero, bai, Juan Mari Bandresek eta, egin zuten komisio bat bezala, hori egon behar da grabatuta. Inork ez daki oso ondo, grabatu egin ziguten denoi torturak. Ni akordatzen naiz joan ginela, Donostian, sala handi batean, bakoitza pasatzen zen eta esaten zuen pasatutakoa. Instituzioen aurrean ez, nik uste det abokatuen roiloren bat izan zala, Annie Puyo eta Barrenetxea zeuden. Izango zen 80an edo 81ean. Geroago, Pako Etxeberriarekin ere egin genduan.

Gero, beste aldera pasatu ginen. Nik, kartzelatik urten berri guardia zibila atzean naukan egun guztian, bi tipo beti atzean neuzkan, orduan ospa egin nuen. Ez nuen nahi barrura pasatzerik, ez nuen gauza handirik, lasai-lasai gelditu neiken hemen. Nire aitak ez zuen sekula ulertu hori. Nik egin nuen urtebete bakarrik kartzelan. Beste aldera 80an, bizitza gogorra, paperik gabe. Gazteak ginen ere, gero buru gehiagorekin beste modu batera egingo genituen gauzak, baina pasatutakoa pasatu da, alperrik da.

GAL aldian, Hodei han jaio zan. Nik ikastolara eramaten nituen umiak, neukan kotxe zahar bat eta begiratzen nuen kotxea azpitik, arrankatzen nuen, behera eta gora egiten nuen, eta gero umiak sartzen nituen. Ikusteko nola bizi ginen. Pare bat aldiz korrika atera ginen. Eta etxe ondoan Txapela hil zuten. 1988ko urtarrilean estatu frantsesetik expulatu ninduten, berriz ere komisariatik pasa eta kartzelara bi hilabetez.

Nerea Alustiza Alonso

Amak esaten zoztan, Apuntatu zaitez PSOEn! Baina ni nire ikasketak egiten ari nintzen Bitorixan, Historia ikasten, nire lagunekin, ja, ja; ez nekien ezer ere ez hortaz. Amaitu nabenian karrera hasi nintzen biharra egiten udaletxian, lehenengo kulturari eta gero kontserjerxian, egiten nuen lan telefonuan. Orduan, Miguel Angel Blanco atxilotu zabenian, Eibarren izan zen un impacto. Ermukua zan, Eibarren egiten zaben biharra, bere nobixa Eibarkua zan. Atxilotu dabenian, jentia zegoen kalia eta Eibartik hasi zen Ermuruntz jentia ibiltzen eta Ermuko jendea hasi zen Eibar aldera. Eta elkartu ziren tartian probintziako muga.

Ni momentu hartan nengoen udaletxian biharra egiten telefonuan eta hasi ziran deiak, la embajada de Bulgaria, la embajada de... Nahi zezenak Ermura deitzea eta ez zekenian oportunidadetik kolapsauta zegoelako telefonua, udaletxekua. Hasi ziren faxak de toda Europa eta kaleko jentiaeren deiak. Orduan ikusten zenuen jentiaeren amorrua eta elkartasuna.

6.2. GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK ETA BIKTIMAK

Aurreko atalean indarkeria mota desberdinek solaskideengan eragindako zirrarak jaso badira, hurrengo honetan beste urrats bat eman nahi da. Batetik, giza eskubideen urraketa horien inguruko gogoetak biltzea da helburua, eta bestetik, indarkeria horiek sorrarazi dituzten biktimek jaso duten babesa edo aitortzaz iritziak jasotzea.

Elgoibarko kasuan, diktaduraren azken urteetan pairatutako errepresioaren gehiegikeriaz gain, Franco behin desagertuta eta hurrengo urteetan jazo ziren -bereziki 70 hamarkadaren bigarren zatian- indarkeria kasuek herriko bizikidetzan eragin zuzena eduki zuten. Zenbait testigantzen arabera, erakunde armatuek (ETA, ...) buruturiko erailketek nahiz segurtasun indar desberdinek eragindako errepresio bortitzak jendarteko zatiketa edo urrunketa giroa sorrarazi zituen.

6.2.1. GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK

Erailketak, sabotajeak, mehatxuak, errepresioa, torturak, presoan urruntzea eta abar, zerrenda mingarri baten osagarriak izan dira. Giza eskubideen urraketa ugari horien ondorioz, egoera sumindu eta herritarren artean harremanak hoztu egin ziren. Tentsioa zein beldurra nagusitzen joan ziren eta azken batean, bizikidetzak kaltetuta ateratzen zen Elgoibarren.

Eraildakoak

Begi bistakoa da, herri honetan azken hamarkadetan eman diren giza eskubideen urraketa larrienak erailketak izan direla, erakunde armatuek (ETA, Komando Autonomoak,...) eragindako 8 pertsona hildakoen balantzearekin. Horiek izan dira, gainera, Elgoibarko herritarrek gehien hunkitu dituztenak, bortxazko gertakarien zerrenda luze batean.

Soldadutzan nengoela akordatzeko naiz, Elgoibarko alkatea izan zena, Arrese, hil zuten Komando Autonomoek. Inpresio egin zidan, fuertea egin zitzaidan. Familia ezaguna zan. Bera alkatea izan zen frankismoaren azken urteetan, trantsizio politikoa hasi aurretik.

Ba beituizu, hasten bagera pentsatzen politikoki, biktimak izan dira sektore guztiak. Eta gero erailia zana eta horren ingurua.

Egiza esan, termino humanoetan gertakari oso gogorrak bizitzia tokatu zaigu.

Miguel Angel Blancoren hilketak eta gero diñozu, "A esta gente no se le puede dar tregua".

Gero, eduki nabenean aukeria zinegotzia sartzeko, ez nuen pentsatzen Miguel Angel Blanco-ren hilketian; ba hori, aukera bat neukala gauzak egiteko herriaren alde.

Nik daukadan oroitzapena, beti bakezalea eta baketiarra izan naizela eta edozein eratako gatazkak beti atzera botatzen ninduela. Orduan nire jarrera hain argia zan indarkeriaren aurrean, berdin zitzaidan zer indarkeri, ez naukala erreparorik altu esateko pentsatzen nuena.

ETAk bi enpresari hil zituenean, esan zaban trafikanteak eta konfidenteak zirela eta horregatik garbitu zituztela. Euren familiek ezetz esan zezen, baina Elgoibarren zurrumurruak egon dira. Ez zan ezker abertzaleko susmoa bakarrik, hori zabalagoa zan. Momentu horrek oso gogorrak izan ziren, hor banaketa bat egon zan jendearen artean.

Nola bizi izan dudatan gatazka? Triste. Egon dira pertsona batzuk kartzelan egon direnak eta beste batzuek egon dira hilda. Eta niri hori oso gogorra iruditu zitzaidan eta baita ere gero bizitza kentzea pertsona bati, hori ja pentsatzen dot eta gainera kentzea epaiketa bat gabe. Ni beti egon naiz “pena de muerte” horren kontra. Kanpoan, urruti pasatzen denean ez duzu hainbeste bizi izaten, baina herri mailan, pertsona ezagunak.

Beste bat akabau zabena, guardia zibila. Hau gertutikan ezagutu neban, Expósito, bere familia hemengua da. Jendiak asko estimatzen zaban. Kale gizon bat, normala oso ondo integratua zegoan eta Maalatik pasatzen ari zala ere bai, akabu egin zaben. Albuan, gertu-gertu daukazun pertsona bat, zelan akabau leikie? Ba guardia zibila delako edo beste partidu politiko batekoa delako edo ez jakuelako gustatzen. Zaila da, ez dakizu zer daukazun, gorrotua edo penia, baretzen zaren arte.

Hala ere, badira elkarbizitzaren alorrean arazo berezirik sumatu ez duenik ere.

Nik ez dot uste sekulan egon dala herri mailan tensio potente bat. Ez dot uste egon dianik halako situazio larrixak. Hombre! Hor Patxi Zabaleta hil zezenian, montatu zian manifestaldixan egon zan tensio pixkat. Nik uste dot hor lehengo aldixa zala, sentitu zala HBn mundua pixkat paretan kontra. Izan leike reakzio bat, baina “que va”, hori pasatzen da, bakoitza berera bueltatzen da eta kitto. Ordura arte ixilik edo atrebitu ez zana, nolabait betetzen jun zan gizartearen zati bat, ba bueno, esan zuen kalera nixe. Gertatu da ETaren biolentzia egon dan bitartian, gizartearen erdixak ez dula ahotsik euki, hori normaltzat hartzen badeu, bai, neretzat ez da normala. Baina hori ez da enfrentamentu batera eraman.

Beldurra, tentsioa, mehatxuak, ...

Indarkeriak sortutako kalte zuzenaz gain, bada beste ondorio larri bat zailagoa dena antzematen, ez baita hain nabaria, beldurra. Hori dela eta, indarkeriaren kolpeak jaso eta babes falta sentitzeagatik, kasu batzuetan Elgoibartik alde egin eta beste herri batera joan ziren bizitzera.

Jaime Arrese hil eta haren familiak alde egin behar izan zuen herritik. Ez ziren gustura sentitzen hemen. Beldur handixa zeukaten, euren aita hil zuten ideologia batengatik. Orduan, herri maila, herri txikixa da eta denok dakigu zein zein gean, orduan ni baldin banaiz modu batekoa eta zu baldin bazea nire jefea edo nire buru, izan leike eskola batian edo lantegi batian. Orduan beldurra daukazu, ni neuk ez dot sentidu, ni ez naiz biktima.

Nik uste dut beldurrera ohitu ginela, beldurra bizitzera ohitu ginen, kausa bategatik edo beste bategatik atxilotua izateko beldurra, mehatxu bat jasotzeko beldurra, zure iritzia argi eta garbi plazaratzeko beldurra. Hori da pixka bat herri guztietan, baita hemen ere, azpimarratuko nukeena, nola ohitu garen beldur horretara. Eta ez dakit inporta zaidan asko ere beldur horren pisuak zer daukan justizia gehiago, zer gutxiago, ez naiz inoiz horretan sartu. Ez dago eskubiderik beldurrarekin bizitzeko, ez dago zergatik, pentsa dezakezu nahi duzun bezala, izan zaitezke zaren bezalakoa.

Estortzioaren inguruan eta “víctimas de persecución”-en inguruan, nik kasuak ezagutu ditut, baina Elgoibarretik haratago.

Nire gurasoak ditut gogoan, leihoa isten, manifestatzaileek atea ere jotzen zuten, etxera sartu nahian, harrapatu nahi zituztelako eta atera irekiz gero barrura sartzen ziren ezkutatzeko. Nik horrelakoak ikusi nituen 7 eta 9 urterekin, 10 urterekin, zorarena zen. Ez zenuen ezertxo ere ulertzen, Pilotakadak, marroiez jantzitako agenteak kalean zenbiltzan, leihoetako zirrikituetatik begira aritzen ziren, horrek egonezina sortzen du. Gero hazten zoazen heinean, gertatzen dena ulertzen duzu eta egia esan nik beti oso argi izan dut. Nik ez nuen ulertzen nola egon zitekeen jendea erailtzearen alde. Badago alderdi politiko bati bozka ematen dion jende ugari, eta nik neure artean, baina alderdi politiko hau, ETaren adar politikoa da.

Bizikidetza kaltetuta zegoen, erailketek sortutako tentsioa nabariak ziren. Norberaren iritzia adierazteko beldurra zabaldua zegoen.

Nik uste dot, hemen gertatu izan zaigula, urte askuan gizartearen zati inportante bat, konstituzionalismoari lotutakua edo nahi dezuen bezela deitxu, sektore horren askatasuna sekuestratuta egon dala, guardaespaldasak, bildurra. Herriko jendea etzan ausartzen bere pentsakera agertzen, hori nolabait sekuestratua egon dala eta gainera ematen zen biolentzia eta bortxakeria sektore horren kontra, helburua hori zen nolabait ere, ezta? Niri iritziz.

Guardia Zibilak hiltzen ari dira, Irene Villa hiltzen ari dira, Miguel Angel Blanco hiltzen ari dira. Eta horren alde zaudete? Nola demontre esango duzu ezer? nola esango duzu hori, jende guztia edo gehiena alde dagoenean? Alde daudenak ez dute inongo arazorik, baina kontra gaudenak isildu egin behar.

Nik askotan gogoratzen dut, bere garaian Aznar boterean zegoenean, ba taberna batean garagardo bat hartzen ari nintzela edo beste edozer gauza, eta zeresanik ez Gaztetxean, edozein tabernatan jendeak iraindu egiten zuen. “Put a seme hori”, ba horrela izanik, nik ere gauza bera esan nezake Idigoras edo Otegi agertzen zirenean. Baina nik ez dut horrelakorik esan, ez nik ezta beste inork ere, orduan ezin zen horrelakorik esan. Etxean esaten zidaten “zuk, zenbat eta gutxiago hitz egin hobe”. Batzuek euren iritzia eman zezaketen jendaurrean eta beste batzuek ezin genuen egin, ondorioen beldur ginelako.

Hala ere, zenbait unetan beldurrak eragindako isiltasun hori apurtzeko ausardia eskuratu zen.

Hor hasi ginen pixka bat, lehen atrebitzen ez ginena, ezer ez esaten, atrebentzia gehixokin, 90etik gora izango da. Lehenago ere bai, 77an izan zen apurketa bat. Ni afiliatu ez, baina linea PNVkoa, hor hasi nintzen eta hor jarraitzen dot. 77an ezker abertzaleak edo Herri

Batasuna edo dena delakok, horrek ez zuen nahi Estatutuan edo sartzea. Nik uste dot hor izan zela pixka bat bretxa, abertzale mundua zatitu ginena.

Azpiri eta Zabaletaren erailketen ondoren, orduan bai egon zan –tentsioa-. Ni orduan ez nintzan Elgoibarren bizi, baina hor jendea kalera erten zan, jende asko; amorratuta erten ziran. Baina nora guaz, baina hau ze pentsakera, ze bizimodu klase da? Zeu zaralako epaile tirokatzen dozu baten bat eta akabatzen dozu bere bizitzakin, eta bere inguruko bizitzakin?

Mehatxatuta egonik, bizkartzainak eramatera behartuak izan direnak, sarritan ez dute ulermenik jaso euren inguruko jendearen aldetik.

Bizkartzainak egin behar dabe bere lana. Urteten zarenean egon behar dire ondoko atean, nire kasuan sekulan bez. Klean egon beharrean, egoten ziran garajeen. Auzokoak joan ziren udaletxera, alkatetzara. Eta ez eurok, gure komunitadeko errepresentatearen bitartez, esaten kejututa zegoazela nire bizkartzainekin. “Nadie me dijo nada en la escalera, ni en el portal, ni en el ascensor”. “Unos falsos y unos hipócritas totales”.

Nik ez dot bizkartzainikan sekula eroan eta ez dot ikusi nere burua arriskuan, baina gure alaba txiki-txikixa zala, Segurtasun Saileko lan poltsa batean nengoan eta deitu zidaten lanian hasteko, Babes Zibileko irakasle izateko, polizia ikastegixan. Eta lehenengo esan zidatena han, ez komentatzeko non egiten naban lan, ze han atentatu zuten. Eta nik esaten naban, zelan ba ez dot esango nire lanbidia zein dan? Nik ez dakat ezer ere izkutatze hori.

Ertzainen artean egunerokoan bizi izan duten estresa ere hor dago, beti kezkatu eta arreta handiz ibili beharra, mehatxupear baitzeuden. Tentsio horrek ohiko bizimodua baldintzatu die, azkenean ohiturak barneratu eta agian oharkabea betetzeraino; baina sarritan ez da horrela izan euren hurbilekoen kasuan.

Taberna batera joan eta leku zehaztutara begira ibili beharra. Estresagarria da, ezin duzu zure bikotea eskutik heldu, gaiztoek ikusiko zaituztelako. Berak oso barneratua dauka baina nire ustez estresagarria zen oso. Taberna batean sartu eta lehendabiziko gauza “Check in”-a egin. Ados, Ontzat ematen dut! Bai ni adi nengoen, bera babesteko modu bat zen. Inoiz ez nau gaizki sentiarazi izan, ezta gehiegi kezkatuarazi ere, berak lasai zegoela adierazten zuelako, erabat barneratua duzulo, ez zen batere oharkabetzen. Konturatzen zarenerako berak guztia kontrolpean du.

Torturak

Solaskide bat baino gehiago mintzatu da torturen inguruan. Orain artean, euskal gizartean ika-mika ugari izan da gai honi buruz, urteetan zehar milaka salaketa jaso badira ere. Alde batetik, salaketa horiek ugariak izan arren, sinesgaitzak izan dira epaitegien begietara, eta bestetik, tortura aztarnak egiazta zitzaketen frogak eskuratzeko bidea oztopoz beterik zegoen. Ildo honetan, Elgoibarko 28 tortura kasu salatu dira gutxienez, giza eskubideen urraketa hau aztertzen ari den ikerketa batzordearen aurrean, EHUko IVAC-KREIren gidaritzapean -Eusko Jaurlaritzak balizko tortura kasuak argitzeko berariaz sustatu duen ikerketa-. Dena den, oraindik badira gertaera horiek ukatzen dituztenak, nahiz eta Amnesty International erakundeak plazaratutako bere azken txostenean⁴⁹ oso nabarmenki azaltzen

⁴⁹ AMNESTY INTERNATIONAL, 2017. Iraganari aurre egin, etorkizuna eraikitzeko; egia, justizia eta erreparazioa Euskal Herriaren testuinguruan, 27. orrialdea

duen, aspalditik daramala bere kezka adierazten, Espainiar Estatuan erabilitako tortura praktika horiez.

Hemen torturatu egin da, hemen atxilotetak egin dia, hemen hil egin da, ETAk hil du, baina Guardia Zibilak hil du, Polizia Nazionalak hil du, Ertzainak hil du, Ertzainak torturatu egin du, astakeria izugarriak egin dia, hemen jendea dao kartzelan oraindikan borroka politikoa egiteagatik eta hori oso ondo dakite denek. Orduan lehengoz hasi gaitezen aitortzen dana. 4000, 5.000, 6000 tortura kasu Estatuak onartu behar ditu.

78an izango zan, ez dakit, baina nere kasua izan zan Ruperez sekuestratu zutenean, etorri ziren ba bila, gauian, pastelerixan gainian, tion etxian bizi nintzan eta sekuestroaren bueltan etorri ziran bila. Bueno, hara eramaten bazaituzte ez dago bromarik eta kitto, ez? Interesa zan Ruperez non zeuan jakitxia, ez atxilotua ez. Gaba hartan ez dakit tortura deitu leioken, baina bueno tratu txarrak bai. Beste batzuekin konparauta, ezer. Orduan beti torturatuko zan? Seguruenik, jeneralian bai. Garbi dao torturatu dala eta torturia ezin dala erabili. Gainea, gaur egun dauden medioekin. Ni eraman nindutenean, 21 urte eukiko nitxun eta jakitziarren txixa nun ein naban azkenekoz ere bazekixen, ateraitzu kontuak. Eta neri gaur egun edo orain dala 10 urte torturatu behar izatea informazioa ateratzeko, daukaten informazioa guztiarekin. Beharrik ere ez diot ikusten. Kendu dezagun alde etikoa eta junda praktikora, ez dut entenditzen.

Esate baterako Lasa eta Zabalaren kasua, ETB2n dokumentala ikusi nuen eta lazgarria zen. Torturatuak aitortza jaso duten? Tortura kasu guztientan, hau da Lasa eta Zabala... nik ezetz uste dut. 40 urtez egoera izan dena izan bada, ezin dena da batzuk ezin zintzoagoak izatea eta besteak ezin gaiztoagoak. Orain arte egindakoa gutxiegi izan den? Nik baietz uste dut. Eta zerotik hasi nahi bada, argi daukat norbaitek torturak jasan baditu aitortu behar dela, egindako gaizkiaren jatorria onartzen ez bada, ez dago konponbiderik. Bizitza hondatzen dizu.

Badira beste indarkeria kontu batzuk ere. Beitxu Lasa eta Zabalarri zer pasa jakuen eta beste hainbati be. Hemen atxilotuak izan dianak be, bateatik edo besteatik, torturatuak izan dia. Baina ezagutzen dot beste familia batzuk be bai, jun egin bihar izan dianak herritikan, mehatxuengatik; hamen ez, baina alboko herriren baten, bai.

Badakit Galindo pertsona gaiztoa zela eta ... bat zela. Gauza bat da norberak egiten duen hautua eta besta bat egia ukatzea. Hau diot bai bando bategatik eta baita besteagatik ere. Galindo lotsagabe bat iruditzen zait eta gainera kondekoratu izana zentzugabekeria. Justizia posizionatu bada, ezin dena da batzuek kartzelan egotea pertsona bat hiltzeagatik eta beste batzuk berriz ez, objektibotasuna guztientzat. Enbutuaren legeak ez du baliorik kasu honetan.

Nik ez dut sinesten ezta berak ere. Giza eskubideen balioak eta haiekiko errespetua oso irakatsiak dituzte, eta Ertzaintzak gauzatutako ekintza bakoitzean ikusten dut nik hori. Protokoloak geroz eta tinkoagoak dira. Torturen inguruan hitz egiten denean, esaten du ez dagoela torturarik, ez dagoela ez lekurik, ezta denborarik ere. Eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik tratu txarra jaso izanaren sentipena du kolektiboak. Horrelako baieztapenen aurrean, babes ezaren sentipena dute EJren aldetik. Eusko Jaurlaritzak sortzen du zalantza,

eta torturagatik salaketa jarri eta faltsua dela frogatzen denean ez du salaketarik jartzen ertzainak defendatzeko.

Hala ere, zenbaiten iritziz Ertzaintzaren ardurapean emandako balizko kasuren bat frogatuko balitz eta zantzuak ez ezik, froga argiak agertuko balira, Ertzaintzaren onurarako izango litzateke.

Kasuren bat emango balitz, legea bere osotasunean ezarri dadila.

6.2.2. BIKTIMAK, AITORTZA ETA BAZTERKETAREN ARTEAN

Orokorrean, erailketek sortutako biktimen izaeraz ez da zalantzarik sortzen, baina beste zenbait kasutan ez da argi geratzen biktima izaera hori, nahiz eta indarkeriaren eraginak pairatu izan dituzten. Besteak beste, mehatxupean bizi izan diren enpresariak jazarpena jasan dute edota indarkeriaren jomugan zeuden hainbat politikari zein zinegotzik bizkartzainen babesaz bizitzera behartuta izan dira.

Bestalde, biktimenganako errekonozimenduak egon dira azken urteotan, baina batzuk kritikoki agertzen dira. Zenbaiten iritziz aitortza horiek beste batzuen historiak direlako eta beste batzuen ustez, aldiz, aitortza berandu iritsi delako.

Gizarteak egin du, lehendakarixak ez, bueno berandu. Aspaldian egon behar zala, barkamena eskatu beharra zauala biktimei. Zeaitxik biktimei eman zaien tratua izan da, hitzik ere ez daukat, iruditzen jata, ziara baztertuak, ahaztuak, izan dala. Nik eztakit, nola aguantatu daben hainbeste urte organizatu gabe eta erantzun gabe. Gero, euki dabe, euki daben prozesua euren artian ere. Ez zebe denak berdin pentsatzen eta abar, baina nik usten dot ez zebela merezi tratu hau, oso berandu ailau dala.

Udaletxeak egin izan ditu biktimen inguruan. Hor dago zuhaitz bat, baina ez etzazu pentsau jende gehiegi joaten denik. Udaleko politikoak, jendea ere joaten da, baina ... hurbiletik biktima izan dutenak. Estatuaren gogorkeria sufritutakoak, gaur egun dira kartzeletan jipoitutakoak. Jende hori ez, jende hori ez da sentitzen identifikatuta hor.

Udaletxeari buruz, nik uste dut egin izan direla gauzak, monolito bat biktimen inguruan, plaka bat jarri, baina udaletxeari dagokio hori egitea? Eta non dago herria momentu horietan? Agian herriari dagokio zer edo zer egitea horren inguruan, herritarrei. Pertsonalizatzea ez da erreza, eta argi dago bakoitzak bere erara bizi izan dituela gauzak, baino udaletxeari ez dagokio biktima horiek "akonpainatzea", agian herriari dagokio lan hori. Ezin dugu dena instituzioen eskuetan utzi.

Errekonozimendua falta da oaindio. Biktima horien errekonozimendua, batetik eta bestetik bihar da sakondu edo benetan ein. Zer falta da? Ointxe egiten ari garena, adibidez. Mahai baten gainean jartzea, arazo bat eduki dogula. Eta aurrera pausoak emateko bihar dogula oaindio asko ta asko rekonoziu, esan, bildurra soltau.

Azaroko ekitaldixan, biktimen egunian, gonbidatzen ditut Elgoibarren jausitako guztiak, Elgoibarren hildakoen familia guztiak. Eiten dogu ekimen xume-xume bat, Gernikako arbolaren kimu bat eta hantxe lore sorta bat baino ez dogu lagatzen. Oin dela bi urte,

Gogoratik gonbidatu gintuztenian bakoitza gure herrixetatik gure argazkia eramateko, orduan hasi ginen gaia lantzen, tarjetoi bat atera, Gernikako arbolaren kimu bana oparitu biktimei, beste errekonozimendutxo bat. Batzuek errazago etortzen dira, baina batzuek ez dabe nahi inondik inora beste haren ondoan jartzea.

Nik gonbitia telefonoz eitxen diet, gainera esaten diet zelan dan errekonozimendu bat, oroitza pen bat bezela. Eztala beste ezer ere, isil-isilkan, ez dogula ezer ere esaten. Ez dogu eitxen ezta bost minutu ere ez, gehixenetan minutu bateko ixil unea. Gerturatzan da nahi dabana, badakixebe udaletxetik ertengo garala lore sortiakin, hamabixetan, puntu-puntu, hantxe lagako dogu lore sortia. Andra honi nik esplikatzen diuaz eta bi aldiz tokau jat esplikatzia eta bixetan esan dit, “¿Pero víctimas, todas?”. Eta nik, “todas las que tenemos registradas, víctimas solamente son las de ETA, las que ha matau ETA”. Hamen, ETAk akabatutakoak daude. “Pero si vais a hacer cualquier otro reconocimiento, no contéis conmigo, no quiero que me llames”. “Yo te invitaré siempre a hacer este reconocimiento”. (...) Eurok bakarrikan dia biktimak, bestiak ez dia.

Expósiton andria argazkixetan dau lehenengo ekitaldixa ein zanian, bi mila ta zortzixan. Andria jun izan da ta aurten ez da etorri oso makal daolako, baina bestela etortzen da plazaraino edo semeren bat. Etortzen dana da, Carmen Elías, Baglietoren andria.

Beste batzuk, ordea, segurtasun indarren eskutik torturak, jipoiak, polizia abusuak edota atxiloteta arbitrarioak jasan izan arren, ez dute biktima aitortzarik jaso izan. Aitzitik, beste kasu batzuetan, ez dute biktimatzat hartu nahi izaten euren burua, militantziaren ondorio gisa ulertzen baitute.

Prebio bat. Nik gauza hauek guztiak bizi izan ditut militantzia batetik, ezker abertzaleko militantzietatik. Hor igual ematen dizu beste ikuspegi bat, ematen dizu ikuspegi militante bat. Badakizu zer dagoen eta momentu batean hau tokatzen da. Baina hori esanda, nik uste dut ezetz. Egia da, Elgoibarren gertatu dira gauza oso gogorak (Arrese, ...) baina iruditzen zait hor falta dela, ezta? ... Egia da, beti esaten da, igual nahastea da, baina gerraren zama hor dago, ezta? Oraindikan ere, hori guztia argitu gabe, ari da poliki-poliki, baina hortik gatz, nolabait. Gertatu zena izugarria eta oraindik ez da aitortu.

Bueno, Elgoibarren ez dago –gertuko- hildakorik, baina sufrimendua baita ere egon da, Arnaldorena, nire anaiarena eta beste kasu batzuk ere bai. Anaiak zortzi urte eta erdi egin zituen, tarte diferenteetan, gehi urte eta erdiko epaiketa Madrilén; bizitza hankaz gora jarri 2000. urtetik 2015eko abenduan irten arte.

Aipatu ditugun kontuak batez ere drogarenak eta batez ere ETAK hiltzen dituen bi pertsona hauek, trafikantetzat jotzen ditu edo dena dala eta horiek dira bi pertsona herrikoak bata Aztiri eta bestea Patxi Kakatza. Nahiz eta jende askori entzun diot, drogaren kontuarekin jendea haserre zegoen, kaleko jendea, pertsona hauei apuntatzen zan, kalean zegoen bolobolo. Ni ez nengoen hemen.

Egoera horiek bizi izandako zenbaiten iritziz, seme-alabak izan dira biktimak azken batean. Agian, ez zuzenean, bai ordea, ondorio gisa. Ikuspegi horren arabera, nagusiki umeak izan dira biktimak, eurek adin txikikoak zirelarik pairatu baitituzte egoera larriak.

Nik uste, biktima gehiago direla gure seme alabak, gu baino. Oso markatuta daude gurasoen bizitzarengatik. Bueno, igual denak, ez? Gerran ere markatuak izango ziren seme-alabak. Besteen seme-alabak? Bai, haiek ere bai.

Ziurrenik denbora gehiago behar omen da biktima batzuk eta besteen artean, elkarrekiko aitortza eman ahal izateko. Oraingoz, biktima mota desberdinen arteko hurbiltasun keinurik ez da gertatzen.

Nire ustez biktimen kontuan ezinbestekoa da akonpainamendua, plakaren kontua ez zait iruditzen. Modu traumatiko batean norbait galdu duen edonorentzat, benetan lasaigarria dena da, ondoan izatea, beraiekin egotea eta kontsolatzea, norberak ahal duen heinean bai instituzio gisa, edo udaletxe gisa.

Nik uste det ezetz. Elgoibarren ez da ezer egin. Zerbait gerturatu gara, denbora behar da. Nik badakit zuk gaizki pasatu duzula eta zuk gauza bera ere, baina oraindik ez da berbalizatzen.

Nik pentsatzen dot gu ondo eitxen ari garala, juten gara danok, danok nahi dogu errekonozimendu hori ein eta ezker abertzaleko gure zinegotziak etortzen dianak be bai. Haiek be daude entzuteko prest eta ixil-ixilkan egoteko prest. Beste biktima hauek zelan aurrera pauso bat eman, hori ezta kitt, baina nik jarraitxuko dot beti gonbidatzen. Denbora gehixau behar izan daiteke, bai. Eta ikustia hamentxe gaudela eta eurak izan dila biktima zuzen zuzenak, baina soziedadia ere izan da biktima, azken finean.

Batzuek aitortza gehiago jaso dute besteek baino; gainera, zalantza agertzen dute aitortzarik nahi ote duten ere, nahiz eta torturak jasandakoak izan.

Garai hartan nahiko normala zan -torturatua izatea-, mundu guztia pasatzen zena komisariatik torturatu izaten zan. Gaurko begiradatik esaten duzu, zer astakeria! ... Ez dakit nahi dudanez. Ez dakit, niri egia esan, ez zitzaidan gustatuko Guardia Zibila etortzea esaten, zure tortura gaizki egon da. ¡Me importa un pepino! Uste dot hemen biolentzia erabili duena estadia dala, eta poliziak barkamena eskatzea neri berdin jata. Euskal Herritik jun behar dira, hori bai da beharrezkoa neretzat, barkamenarena ez. Pentsatzen dot, eurak ere igual pentsatzen dute berdina, ez dakit. Nik ez dut sentitzen behar hori. Segun eta nork, bai. Zeren batzuk pentsatzen dute ondo zegoela eta gainera, nahi dute barruan jarraitzea.

Egoera batzuetan, ertzainen kasuan edo haien senideen artean, biktimizazio paraleloa edo zeharkakoa sufritu dutela diote eta ez dutela aitortza nahikorik jaso izan.

Azken aldiz, orain dela gutxi esan zidaten “Ah, zu zipaioaren neskalaguna zara!” Orain hilabete gutxi, gainera bera ez zen uniformeaz jantzita joaten ordurako. Beraz etiketatua! Halere ez dit traumarik eragin. Horregatik guztiagatik nahiago dut nire izena agertzen ez bada. Ez da lotsa sentitzen dudalako, oso harro nago berataz. Nire lagunak mutil-laguna medikua badu, zergatik ezin dut nik esan nire mutil-laguna ertzaina dela? Eta zeinen ondo egiten duen! Ez zait justua iruditzen.

6.3. BIZIKIDETZA GAUR EGUN: ERAGOZPENAK ETA AUKERAK

Indarkeria kasu larrienak arestian utzi ditugun arren, oraindik badira iraganeko garai gogor haiek gogorazten dituzten zenbait egoera eta bizikidetza normalizatu baterako bidean oztopo bilakatzen direnak. Batzuen iritziz, presoen afera litzateke horren lekuko. Beste batzuentzat, berriz, ezinbestekoa da iraganean ETaren indarkeria babesten zutenek jarrera horri buruzko begirada kritikoa plazaratzea, lehenik eta behin. Baina eztabaida hori ematen ari den bitartean, aldaketa baikorrak sumatzen ari dira herriko giroan, egunerokoan. Adibidez, martxan da bizikidetzaren inguruan eraikitako eztabaida foro anitza, udaletxean bizikidetzaren egitasmoari emandako babes bateratua, Arnaldo Otegiaren kartzelaratzeari eragindako elkartasun zabala edo Olasoko Kolonbarioaren irekitze ekitaldi partekatua.

6.3.1. BIZIKIDETZARAKO ERAGOZPENAK

Azken bost urteetan, bizi giroa nabarmen hobetu bada ere, batzuen iritziz gaur egun badaude iraganetik datozen zenbait arazo konpondu gabe jarraitzen dutenak eta etorkizunari begira eman beharreko urratsetan oztopo direnak oraindik.

Presoak

Presoen gaiaren inguruan badira zenbait iritzi ... Batzuen ustez, ezinbestean konpondu beharreko arazoa da aurrerantz egiteko. Presoak Euskal Herrira hurbiltzea ez dirudi oso eztabaidagarria denik, baina batzuen eskaria haratago doa; preso guztiak kaleratzea baita arazoaren benetako konponbidea.

Presoen gaia konpondu beharrekoa da, jende horrek jarraitzen du zauriak ezin itxita eta jarraitzen dute biolentzia pairatzen. Elgoibarren dago bat bakarrik (Sebas Etxaniz). Kalera urten behar du, zuzenen kalera, ze bestela hau ez da bukatzen eta PP hortan dago, ez dute nahi bukatzea honekin eta soluzionatzen bada presoen gaia, beste gauza batzuetan hasiko gara eta hor entretenerituta bezala gaudela, hori konpondu arte.

Bai, hori ere hor dago, urruti daude kartzelan daudenak eta haren bizimodua ez da batere... Momentu honetan Elgoibarren preso politiko bat dago eta Asturiasen dago eta beren etxeak nahi badute joan bera ikustera Asturiaseraino jun behar dabil. Hemen herrian izan ditugu orain arte hiru preso politiko. Iaz bi etxeratu ziren. Nik kontsideratuko ditut preso politiko bezela.

Presoen egoera beste urraketa bat da, hamen agertzen da sufrimendu gisa. Oin dala gutxi, Sare plataformak eskatu zigun plenuan sartzia Sebastian Etxanizen gaia, plenuan. Aho batez onartu genduan danok eskaera bat, ekarri dezatela etxera, gaixorik daolako eta adinean dixelako ere bai, ba ditulako 71 edo 72 urte.

Arnaldoren jarrera oraintxe bertan -askotan egiten dut topo berarekin korrikan aritzen nazienean, ez du jakingo nor naizen- presoen kontuan egin zen lagapenarekin, aurrera pausua eman dutela sumatzen dut. Ez dakit nahikoa izango den, baina aurrera pausua eman dute nire ustez. Izaera indibiduala emanez presoen kontuari. Ezker abertzaleak norabide horretan pausuak ematea aparta iruditzen zait.

Ez dut sinesten Ezker Abertzaleak barkamena eskatzen duenean, ezta ere preso batzuek honako hau diotenean: “Hau esan eta 5 urte kenduko dizkidate”. Otegik ez du barkamena eskatu! Otegi hemengoa da, antzoki batean bere kide guztiak batu, 500 bat pertsona edo, eta bihotzez esan dezala sentitzen duela, eta joan daitezela guztiak, telebistako kateetakoak, kamerekin. Baina horretarako gertatu denaren inguruan burua hotz izan behar da eta esan, “demonstre, ba uste dut hau ez dela bide egokia izan”. (...) Ez dut inongo arazorik presoak gerturatzearekin, etor daitezela, zigorra betetzen badute.

Hala ere, badira egungo egoeran bizikidetzarako inongo oztoporik topatzen ez dutenik. Iritzi horren arabera, belaunaldi gazteek ez omen dute inolako arazorik. Beraz, ez zaio elkarbizitzaren gai honi buelta gehiagorik eman behar.

Nik ez dot somatzen, nun dago enfrontamendua? Nik ez daukat problemarik mundu horretako inorekin hitz egiteko baina bakoitza bere tokixan eta bakoitzak pentsatzen duenarekin eta nik hau beraiei esango diet eta esango diot Aitxa Santuari. Hola pentsatzen dut eta hola izan da. Nik uste dot indarkeria desagertzekoan, horrek asko erraztu dituela gauzak, elkarbizitzarako.

Nire alabak 30 urte dauzka eta bestiak 26, euren erlazio normaletan ez dute. Zeinek dauka problema? Problema daukate eurak eta biktimak. Konpondu eizue, eskatu barkamena, belaunikatu eta ein behar dana ein. Eta damutzen ez danak kondena kunplitu, segizue kartzelan eta ... ¡Se acabó! Bukatu dezagun historia honekin.

Hausnarketaren beharra

Zenbaiten iritziz, beharrezkoa litzateke iraganean gertatutako sufrimenduaz gogoeta sakona egitea, era desberdinez gauzatu daitekeela jakin arren; begirada autokritikoa, damua, edo dena delakoa izanda ere. Batzuek gainera, iraganari buruzko hausnarketaren beharra sentitzen dute, egungo egoerari zentzua bilatze aldera.

Damua, askotan ari gea esaten damua, nik ez dot esaten “barkau iazu” eskatu behar danik, baina igual bai eskatuko nieke “ez nuen ondo jokatu”.

Nik usten dot ezagupen pixkat euki behar doguna, danen partekua, eh. Iragana ezagutu, barneratu, sakondu iraganian, ze nik pentsatzen dot gauza asko ez dakiuzela. Ba gerrian, nire aitxixak sekula ez dau kontau eta nik bakitt hortaz sufrimendua egon dala etxian. Baina sakondu, horixe, denbora badarama be bai. Eta barneratu, norberak ein daixela “análisis de conciencia” eta partekatu, talde txikixetan egin dogun bezela. Neretzako sufrimendua dana, igual zuretzako ez zenduan ikusten, nik esan dizuten arte. Hori zabaldu eiñ biha’da, partekatu eiñ biha’da. Eta gero rekonoziu, rekonoziu eindako kaltia, biktima hauekin eitxen ari dan moduan, ETako biktimekin.

Nere bizitzan oso inportantea izan dela gatazka hau konturatu naiz, nere bizitzan garrantzi handia izan duela nik sufritu dudalako eta gertu izan dudalako jende asko sufritu duena. ETaren lehendabiziko su etena izan zenean, gogoratzen naiz jendea oso pozik zegoela, baina nik sentitu nuena izan zen hutsa. Ezin nintzen pozik sentitu, ez nion zentzurik aurkitzen inon ere eta zentzugabeko istorio horretan jarraitzen dugula oraindik.

Elgoibar herri lasaixa ikusten dot bizitzeko, bizikidetza kontuetan. Trankilamente egon geikelako batzuk bestiekin kalia bizitzen, baina gehixe sakondu gabe. Nik daukat ahizta bat dala oso ezker abertzalekoa, baina oso; etxian diskutitu geinke, baina etxetik kanpo, horrek liskarrak eta, nik uste dot ez dittugula superau.

Erabakitzeo eskubidea

Egungo egoerari begira ipinita, bada Espainiako legerian beste arazo larri bat topatzen duenik. Hauen ustez, Espainiako Konstituzioak euskal herritarren borondateari bideak ixten dizkio bere etorkizuna erabakitzeo orduan, horixe bera liskar iturri bilakatuz.

Ez dago borroka armaturik, ez dago hildakorik, ez dago zaurituik, hori objetiboa da. Horrek esan nahi du erakunde batek praktikatu duena borroka armatua 50 urtetan erabaki duela ez praktikatzea. Horrek eskatu beharko luke parte guztietatik kokatzea momentu berrian, guazena aurrera begiratzea, lehengo zauri guztiak ahalik eta ondoen itxi, ez da errexia. Eta gero aurrera begira zabaldu ditzagun ateak, ez dezagun ipini mugarik, demokrazia berez izan behar du herri gehiengo batek onartzen duena egitea. Zergatik Euskal Herriak nahi badu bide bat hartu, nork utzi behar du? Badago Espainiako Konstituzioan artikulua bat esaten duena espainolek erabaki behar dutela eta ejertzitua dela garrantzia batasuna defenditzeko, jakinda Espainiako errealtatea, hori kendu egin behar da, bestela faltsukeriatan gabiltz.

Kataluniak independente izan nahi du eta ez du inor erailtzen. Beharrezkoa da jendea hiltzea, Euskal Herria independente izateko?

Hizkuntza eta identitate nazionala

Indarkeriaren arazoaz gain, hizkuntza eta identitate nazionala ere bizikidetzarako arazo bihurtu ohi dira zenbaitentzat. Umetan, frankismoaren garaian, euskara ukatua edo debekatua ezagutu zutenak, hizkuntzarekiko zaletasuna gorde dute betidanik eta euskaraz bizitzea oso gogoko dute.

Euskara beti barruan eraman izan dugu. Gazteen artean orduan herrixetan mugimenduak sortu ziren Elizaren inguruan. 1956-57an, hasi ginen gazteak euskara munduan, ... abertzaleak. Herri handietan zegoen Acción Católica eta JOC (Juventudes Obreras Católicas), baina gu ginen Baserri Gaztedi, Mendar herri txikia zen eta.

Garai horretan hasi ginen euskara mundu horretan lan egiten, klandestinoak ziren orduan, egutegi bat ere klandestino zen. Ikastolak ere izkutuan ematen ziren.

Bestaldetik, ordea, badira euskara hizkuntza propiotzat hartzen ez dutenak eta enplegu publikorako hesi modura erabili ohi dela pentsatzen dutenak.

Ni ezin naiz lanpostu publiko baterako aukeratua izan. "Agravio comparativo" bat iruditzen zait. Hemen bizi den edonor Sevillara joaten bada, oposaketak egin ditzake autobus- gidari izateko, nahi duenerako egin ditzake oposaketak. Eta ni poz pozik nago hemen bizita; baina bai, momentuz estatu bat baldin bagara, gauza guztietarako gara estatu bat. Guztiok aukera bedinak izan behar ditugu. Izugarri gogaitzen nau horrek.

Elebiduna izatea plus bat iruditzen zait. Baina aukerarik ere ez izatea? Ondo deritzodana da lanean daudenak birziklatzea. Baina elebidunak direnen aldean, nik aukera berberak ez izatea! Bestalde, nire bi seme-alabak D ereduan daude eta euskara ezinhobeto dakite. Oso zaila egiten zaidala esan beharra daukat, dakinana erantzuten diet eta zerbait ulertzen ez badut, “en erdera, mesedez” esaten diet. Sekula ez naute gutxiago sentiazari izan euskara ez jakiteagatik, inoiz ere ez.

Ildo honetan, hamaika adibide aurki daitezke zentzu bateko zein besteko tentsio egoerak adierazten dutenak; zenbaiten iritziz, oraindik bazterkeria hor dago eta. Dena den, urteetan eraikitako hesiak gainditzeko, harreman pertsonal zuzenak lagungarri direla diote; baita jatorrizko sentsibiltate desberdinak elkar ulertzen joateko ere.

Euskadin orokorrean ezin zara euskalduna eta espainola izan. Ni Euskal Herriatik kanpo hezi ninduten eta han “la vasca” nintzen, “la etarra” eta hori ikaragarria da. Ez dakit eukaraz baina hemen jaioa naiz. Urte asko kanpoan eman ditut eta bi aldeak bizi izan ditut, ni euskalduna sentitzen naiz, baina baita espainola ere. Ezagutzen nautenek badakite eta onartzen dute. Baina badaude beste euskaldun batzuk, Euskal Herriatik kanpo gertatzen denaz ezertxo ere jakin nahi ez dutenak. Tristeia dela iruditzen zait.

Hesiak dihardute eta beti jarraituko dute. Eta zer esanik ez Euskal Herrian, komunitate itxia baita. Ez da armarik behar indarkeria jazartzeko. Baina hesiak gainditzen dira alderdi humanoa gailentzen denean. Kanpoko zurea bezainbeste dela onartzen duzunean.

Urtero, uztailak 11n, Espainiako kamisetarekin joaten naiz lanera, munduko txapeldunak geratu gineneko data da. Sekula, inoiz ez didate ezer esan, aurten seigarrena izango da. Hori da normaltasuna. Herrian, igerilekura joaten bazara, berrehun pertsona ikus ditzakezu euskadiko selekzioaren kamisetarekin, berrehun ez baina hirurogeita hamar bai eta ez da ezer gertatzen. Niretzat normaltasuna da norberak nahi duena egin ahal izatea, jariatua izatearen beldur izan gabe. Halere, 2010ean Mendaroko lagun bat jipoitu zuten, egun hartan espainiako selekzioaren kamiseta eramateagatik. Ez dut ulertzen. Normaltasuna behar da edozertarako. Normaltasuna ez da norberak uste duena egitea baizik eta besteek egiten dutena ere errespetatzea, errespetu faltarik gabe eta minik egin gabe, inork seinalatu gabe, hemen arazoa hori zen, seinalatzen zintuztetela.

Arnaldo Otegiaren kartzelaratzea

Azken urteotan, Elgoibarren izandako injurtzien artean, zenbaiten ustez, Arnaldo Otegi jasandako sei urte eta erdiko kartzela aldia dago. Entzutegi Nazionalak ezarritako zigorra guztiz bidegabetzat jo dute solaskide gehienek. Herrian bertan, bere askatasunaren alde izandako manifestazio zein elkartasun adierazpen ugariak ere horren lekuko dira. Elgoibartar honen aurkako sententziak kritika ugari jaso zituen eta ordezkari politiko gisa duen oihartzun publikoa dela eta, bere kasuak herriko nahiz Euskal Herriko mugak ere zeharo gainditu zituen.

Bai, horrek markatzen zaitu. Azkeneko atxiloketa oso gogorra izan zan, alabak oso gaizki pasatu zuen, semeak ere bai. Jendeak sentitu du injustu bezala. PNVko jendea ere hurbildu zaigu, bai, hau injustizi bat da. Eta PSOE ingurukoa, baita ere. Ideologikoki oso jende desberdina urreratu zaigu.

Bai, nik uste dot jendeak nabaritu duela. Hau injustuagoa. Estatuak ez du nahi hau bukatzerik, oso komodoa dago, egoera honetan, beste gauza batzuk estaltzeko balio dio, badakielako hau bukatzen denean, zer datorren, ez.

Nik pentsatzen dot hor ere danok egon garala bat, justua ez dana, ez da justua. Arnaldo kartzelan egon danian, ez zanian egon bihar, nik uste dot denak bat ein dogula. Egongo da baten bat, ez? Baina hori plazan ez dau hola esango, ez dalako igual ausartuko, eh, pentsau pentsauko dou baten batek. Etorri zanian, ez nintzan egon hor ekitaldixan bertan, egon nintzan hemen inguruan, plazan. Eta hurrengo egunian ikusi neban kaletikan, jo eta zelan ez dozu ba agurtuko gizon bat egon dana kartzelan. Bere emaztea ezagutzen dot gehixau. Nik nahi izan neban diar eitxia Mari Juliri, ba gutxienez, ba eztaikit nik, esateko pozten nitzala eta ni pertsonalki pozten nintzala batez ere bereatik. Bera ere egon zan atxilotuta bere garaixan. Lortu neban Mari Juliren telefonua eta berari deitxu biharrian, lehenau ikusi neban Arnaldo.

Zenbaitetan alaba zaharrenak galdetu izan dit, eta kartel horretan edo bestean gure abizena daukan gizon bat agertzen da eta, zergatik atxilotu dute galdetzen dit, eta Otegiren kasua esplikatu behar diotenean, ba noski ez diot ezkutatuko.

6.3.2. BIZIKIDETZARAKO AUKERAK

Etorkizunerako bidean dauden oztopoak jaso ditugun bezalaxe, egokitzen jotzen dugu baita ere begirada baikorra pizten duten zantzuak aipatzea; zenbaiten ustez, bizikidetzarako aukera berriak izan daitezke eta.

Nik neuk ez ditut –elkarbizitzarako arazorik-. Nik ditut nire inguruan ideologia desberdinetako pertsonak eta oso tratu ona euki dudana. Ideologia batek ez du pertsona bat egiten. Nik neuk esan behar badiot norbaiti zeozer, hau ez zait ondo iruditzen edo, esan diot trankil, ez dot pentsatzen eurak ere ez zidatenik esango trankil. Ni bizikidetza taldean nago eta oso ondo konpontzen gea geure artian nahiz eta iritzi desberdinekuak izan, baina gu taldetxo bat gea. Guk errespetu handia diogu elkarri. Oin nik uste dot gaur egungo generazio hauek beste mundu baten bizi dila, ez dute ezagutu mundu hori, horiek ez dute jasan hori gehiegi. Bizikidetza taldean, bai, talde txikian errespetu handia diogu elkarri.

Egiten ari diren jardunaldi hauetan, urrian egon ginen jende diferentea talde txikitan bilduta. Han suertatu ginen herriko jendea, gutxienez bakoitzak bere ikuspuntua azaltzen du, ezta? Nik uste dot talde bat egotea inportantea dala eta taldeak emango diola bizitza. Udaletxeak bakarrik? Askoz be aberatsagoa da nire ustez, ze talde hori anitza da eta oso inportantea da batera joatea. Nik Elgoibarren uste dot nahiko batera doazela eta ari dila, parte biak ipintzen ari dila.

Otegiren kasuan, etorri zenean asko poztu nintzen, eta poza handi ematen dit bere etxetik pasa eta balkoian ikusi. Etorri zenean bere harrerara joan nintzen eta alde egin nuen gero. Azken finean ere, hor badago famili bat sufritu izan duena, eta seme-alaba batzuk bere aitaren eza izan dutenak.

Aldaketa baikorrek herriko giroan

Herritarren arteko bizikidetza zatituta zegoeneko urteak eta tentsioa nagusi zen garaia aipatu dira arestian. Iritzi gehienak bat datoz, aro hori gainditutzat ematerakoan eta zenbait aldaketa antzeman dituzte.

Elgoibarren lehen baino manifestaldi gutxiago dago eta baita lehen baino gauza gutxiago ere, dudarik gabe. Nik normaltasun handiagoa sumatzen dut. Nik orain 10 edo 15 urte ez nukeen Espainiako kamiseta eramango, gaur bai. Bai normaltasun handiagoa dago baina, ez dut uste hori lortu behar dudan zerbait denik. Lagunak ditut, oso oso lagunak direnak eta abertzaleak direnak eta ez dut arazorik haiekin.

Konstituzionalistatzat jotzen dut neure burua, hain zuzen ere azken hauteskundeetan Ciudadanos-i eman nion bozka, lehen aldiz bozkatu nuenean Izquierda Unida-ri eman nion bozka, PSOEri ere eman izan diot, baina normalean Alderdi Popularrari. Nire bozka ez dago inoren menpe, egin dezakedan gauza bakarretakoa izanik! Hain zuzen ere nire bozka aldatu eta Ciudadanos-i eman nion, Arantxa Quiroga kaleratu zutenean, aurrera pausuak ematen hasia zen kontu honetan. Desilusio izugarria sentitu nuen. Gero, Alonso dator eta kontatu du kontatu duena.

Joan den astean Madrilgo lagunak etorri ziren eta harrituta geratu ziren harreman arruntak nituelako. aurreiritziak dituzte. Bisitan etorri diren lagun guztiek, hogeit bat izango dira, sorpresa atsegina hartzen dute, batez ere aitak. Hona nentorrela esan nionean! Aita etortzen denean hilabete osoa ematen du hemen. Hemen bizitza izugarri atsegin du, jendea. Etorri diren guztiak harrituta dira, aurreiritziekin etortzen dira eta zeresanik ez kalean metrailetekin ibiltzen garela usten dutenek, baina Madrilen vermuth-a hartzera irteten diren bezala, hemen txikitoak hartzen ditugu.

Hala ere, denbora luzeagoa behar dela eta urrats gehiago eman behar direla uste dute oraindik, bizikidetza giro egokia lortzeko.

Nik uste denbora behar dela, klabea hori dala nik uste dot. Goitik behera edo behetik gora nondik etorri behar? Biak batera igual, ez? Nik uste, goi mailan gertatzen dena da bakoitzak nahi duela bere tokira eraman, bere aldera eraman, herri mailan naturalago egiten da, bizitzen da.

Bizikidetzan aldaketak ematen ari dira, nik uste dut baietz. Guk familian ez dugu izan hausturarik, baina lagun batzuekin bai. Ez da gustukoa haserretzea, kapaz gera hitz egiteko eta mahai berean bazkaltzeko baina gehiagorik gabe. Baina, denbora beharko dugu. Berradiskidetze bidean pausoak ematen? Bai, nik uste baietz.

Badirudi Ertzaintzari dagokionez ere urrats berriak sumatzen direla.

Orain euren lana atseginagoa da, humanoagoa. Autotik jaitsi eta jendearekin hitz egiten dute. Jendearen aldetik jasotzen duten erantzuna da, atseginez eta harrituta "Bazen garaia!".

Oraindik normaltasunera iristeko denbora gehiago pasa beharra dagoen arren, Ertzaintzan hasi omen dira aldaketa batzuk ematen.

Ertzaintzan aurrera pausuak ematen ari dira. Esate baterako eskoletan, solasaldiak uniformearekin ematen dituzte.

Jazarpen indarkeria desagertu zenean, mehatxupean bizi ziren pertsonen bizimodu normalizatua topatu zuten berriro, bizkartzainik gabe ibiltzerakoan. Indarkeriaren eraginez, bitarte horretan, lagun batzuekiko harremana galdu eta beste lagun berriak aurkitu zituzten.

2011ko udan, hor esan neban –bizkartzainekin- ezetz. Ja zuk daukazu zure bizimodua, zure lagun berrixak, horiek ez dute arazorik lehen bizkartzainekin egon badira, gero baita, zurekin egoteko, hor ez dago halako mozketak, mozketia dator aurretik. Nik aldatu neban lagunak, lortu neban beste lagun berrixak.

Adibide ugari daude normaltasun giroa azpimarratzen dutenak, duela urte gutxi ezinezkoak ziratekeen irudiak, alegia.

PSEren elkartera joaten da herriko jendia, auzoko jendia. Hori bai, hor ez daka arazorik. Kaleko jendia poteatzera edo kafetxo bat hartzera, ba beste taberna bat izango balitz moduan. Eta sartu naiz tabernetan, dakenak Euskal Presuak, ba kafe bat hartzera eta esaten ba, beitu, “con la cara por delante, ni una mala cara”, eta hori be eskertzekua da.

Herriko jaixetan, jendiak ikusten zaitxunian, gainera zan euskeraren alde, han plataforman, han geunden danok. Jendiak ikusten zaitxunian danok, hiruok. Ez dakit, danok batera gauzela eta horrek be emoten dau berdintasuna eta goxotasuna, ez? Borobiltasuna.

Jendea politikaz hitz egitera animatzen da, bere iritziak ematera, garbi ikusten den gauza bat da. Azkenaldian politikaren inguruko eztabaida ugari izaten ditut, lasaiago hitz egin daitekeenez, talka egiten dut askotan, EGBko talde bat dugu eta afariak egiten ditugu, eta batzuetan gai batzuen inguruan hitz egiten dugu, eta kontuz, batzuetan tentsioa nabari da, gero garagardo batzuk hartu eta listo.

Udaletxean ere giro normalizatuaren seinaleak ikusten dira. Bateren batek, eredugarritzat jotzen ditu zenbait egoera, adibidez, herritarrek alderdi desberdinetako zinegotziak udaletxetik elkarrekin irteten ikusten dituztenean edota jarraian taberna batera sartzen.

Amaitzen dogunian batzorde bat edo, ba kafe bat hartzera, nik ez dakat arazorik. Jendiak ikusten bazaitube, danak elkarrekin taberna batian.

Nik Elgoibarren ikusten dotena eta leku guztietan azaltzen dot, gu garela hemen eredu bat. Kaleko jendiak udaletxeko eredu ikusten dabenian, jendiak ikusten dau reflejua. Horrek danok batera baldin badoiaz. Orduan, hemen Elgoibarren, eskerrak danok elkarrekin joan garala. Inor ez gara bata bestearen gainetik ipini.

Udaletxe bertatik, alderdi desberdinen arteko adostasunez, bizikidetzaren aldeko hainbat ekimen sustatu dira. Horiekin batera, herritarren arteko beste dinamika osagarri batzuk ere sortu dira, aldi berean.

Bizikidetzan prestatzen saio batzuk egin genittun hasieran, udaletxeko zinegotzixak, lehenengo politikarixentzako eta gero, hoiek danak herrira zabaltzia; eskoletara, herritarrengana. Ekartzen genun espezialista bat giza eskubidietan aditua eta antolatzen zian hasieran, ba adibidez txarla batzuk, ikastolako gela haundi batian edo auditoriumean. Beti egoten zan kafetxo bat edo toki intimo bat, gero partekatze edo tokixoren bat egote aldera. Eta hortikan sortu zan gurian herritarren taldea bebai.

Behin etorri zian Goikoetxea zanan emaztia, Pili Zabala eta beste hainbat biktima. Baketik-ek lagunduta, oin dala hiru urte. Hasi ginan aurreko legealdixan eta eitxen genittun hiru motako ekintzak: bat, gure prestakuntza, bestia herritarrentzako ekintzak eta beste batzuek, eskoletakuak. Gero udal aldizkarixan beti ertetzen da Ikerren [Usón] testuren bat eta jendiak estimaz irakurtzen du, ze ezaguna itxen jako agertzia.

Nik pentsatzen dot hurbiltze aldera, oin gehixau partekatzen dogula, ze gorroto guztiak ateratzen ditugu, hoietan partekatzen dittugu danak, saminak, gorrotuak, penak,... Oin dala hilabete batzuk, herrira zabaltzen genittuan saio hoietatikan erten zan talde bat, eurok jarraitzen zabena hilero elkartzen, bere kabuz. Euren burua aurkeztia nahi zaben herrira, biluztia nahi zaben, zeintzuk zian eta zabalik zeudela beste jende bat erakartzeko. Eurok dia alderdi diferentekuak eta eskatu ziguten ea ein geiken eurok lideratutako saio bat. Etorri zian Baketik-eko bi dinamizatzaille eta taldeka ein genduan, zer da biktima, zer da sufrimendua norberantzako; baina talde txikitxueta. Politxa izan zan. Hogeita hiru urteko pertsona bat zauan nere taldian; berak, igual, ez dau ezagutzen gure taldian zauan hirugeita bost urteko tipo baten sufrimendua. Norberak esaten zauan beria, beria bakarrik. Nik pentsatzen dot aurrera pausuak ematen diela. Herritarren talde hortan, beitu zelako ekintza politxak eitxen ditzuen.

Olasoko kolunbarioa

Baikortasun ukitu bat emate aldera eta bizikidetzaren alorrean nabarmendu diren aurrera pausoen artean, azpimarragarria da, 2017ko otsailaren 31n, Elgoibarren eraikitako kolunbarioaren irekitze ekitaldi berezia, non Duintasuna izeneko eskultura kokatzen den. Izan ere, duela 80 urte, estatu kolpearen ondorioz, Euskal Herriko hainbat bazterretan lurperatuta aurkitu diren hildako ezezagunen hilobi bateratua bilakatzea da, egitasmoaren helburua. Olasoko hilerriaren albo batean kokatuta dago eta atzera begira egindako oroimen ekimena den arren, gerra zibileko biktima “ahaztuen” oroigarria baita, etorkizunerako ikur bateratzaile gisa ikusten du hainbatek. Aipagarria da ekitaldi hartan eman zen aniztasuna, ohikoan elkarrekin agertzen ez diren politikari, erakunde ordezkari eta elgoibartar ugari ere bertaratu baitziren.

Hori bai izan zala erakargarria, kolunbarixua. Bueno, hori zan gerra tarteko biktimak, ez? Denok bagauz batera, bai da hasteko momentu bat, ez? Orduan ikusten dozu jende guztia. Jendia behintzat juaten da, ze egiten dau esfortzu hori, etxetik urten eta juan. Ba honaino etorri bazara, ... Ez da izan behar bakarrik gauzak egitea. Ikusten darian elkartasuna gauza desberdinetan. Neretzat kolunbarixuana ez da tontakeria, hurbiltasuna emoten dau. Ordun, naturalki badaoz momentuak eta osotasuna ikusten darian, efektua eitxen dau, ez?

Adibidez, guk Kolunbariuakin ein genduan moduan, pertsonen duintasuna, hantxe daukagu guk duintasunaren Kolunbariua. Hori gorde behar dogu nahi ta nahi ez, izen abizenak eukitta eta izen abizenik euki gabe be bai. Hori da helburua, errekonozitu eta duindu.

6.4. MEMORIA ETA GEROA

Geroari begira, guztion ekimenez eraikitako memoria partekatuak gutxieneko baldintza batzuk gorde beharko lituzkeela argi dago. Solasaldietan egindako saiakeran nabarmendu dira bateragarriak izan daitezkeen zenbait ezaugarri. Euren egitasmoa marrazterakoan ia guztiek bat egiten dute, ahaleginak denen aldetik egin behar direla azpimarratuz. Etorkizuna era sendo batean eraiki nahi bada, mundu guztiak zerbaitetan lagundu behar duela, alegia.

Zailtasun handiak daude, ordea, elkarren arteko memoria bat osatu ahal izateko. Ahaleginak biderkatzen ari diren arren, bakoitzak bere esparrutik begiratzen du bestea, oraindik.

Preso joan direnak eta torturak jasan izan dittuenak, inkluso, gerra zibileko torturak jasan izan dittuenak frankismoan, batzuek esan dabe. Baina, adibidez, nire aitxitxa zenak gerra zibilean parte hartu izan zaban, baina harek ez zaban komentatzen ezer ere. Eta askotan zer zan? Hurrengo egunian lanera jun behar izaten ziran eta bildurra zekaben. Nik ez dot jakin gerra zibilaz gurian ezer ere, bakarrikan aitxitxan anaixa akabau zabela. Nik pentsatzen dot ez ditugula denak ezagutzen. Osotasunian nahi badogu ikertzia edo giza eskubide urraketa guztiak ezagutzia eta pixka bat erreparatzia ahal dan neurrixan. Ze urraketak egon dira asko, batetik eta bestetik.

Nik pentsatzen dot holako testigantza, dokumentu, horiek ondo lotuta ei bihar dittugula, norberak ikasi eta transmititu edo taldian. Nere familian adibidez, senarran aitxitxa guardia zibila zan, karabinerua, Nafarroako mendixetan kontrabandua zaintzen. Baina honek etxian entzun dauena eta nik entzun dotena, ezta berdina; eta nik kontauko dotena eta berak kontauko dabana, ezta berdina. Diskusio hori ez daixela egon. Goazen zeoze batera eitxera, danok batera. Entzuten badittugu zuria ta neria, ta bestiana ta bestiana. Hau ez da objetiboki transmititu dezakeguna, ze norberak badauka bere memoria. Ez daixela izan alde bateandik, guazen erakartzera beste biktima horrek be bai, ez dabenak nahi etorri edo nere aitxitxan modukoak, Gerra Zibileko gauzak ez zittuenak kontatzen; danak parte hartu behar leukiebe relato horretan. Eta azken 80 urteetako memoria eraikitzean, urruneko memoria eta hurbileko memoria, hori lotu egin bihar dabe; horrek lotuta jun bihar dia. Zelan esaten dau tipo batek, “nada es por casualidad, es por causalidad”, batak bestia dakar.

Eskola munduan, neri esplikatzen ziabena ikastolan eta esplikatzen ziabena nere gizonari nazionaletan, etzan berdina, oin dala berrogei urte ere ez. Arrisku hori ikusten dut, hori ez dogu nahi. Nik pentsatzen dot mantxo joan behar garala. Baina zelan? Ez daukat horretarako formularik. (...) Gazteek ez daukate superatuta, askok ez dakixebelako zer gertau dan eta hori jakin eñi biha'da, baina transmisio horrek, enpoderatze horretan gure gaztiak edo gure umiak, horrek darama denboria.

Hor badago zuhaitz bat [oroimen eta omenaldi gisakoa], baina ez pentsau jende asko juten danik. Aurten ere egin da. Urtero egiten da ekitaldia, baina juten dia udaleko politikoak,

baina bestela jendia juten da, baina batez be, gertutik biktimak izan dituztenak. Nik ez dut uste Estatutik indarkeria jasan duten biktimak identifikatuak sentitzen direnik hor.

Biktima mota desberdinen artean ez da keinurik izan, ez da hurbilketarik egon oraindik, ez naiz konturatu ni behintzat. Gogortuta dago bakoitza bere pentsamenduetan, hilketarik ez dago baina bakoitzak berean jarraitzen du, nik jarraituko dot neurian, amore ez emateko, adibidez, horrek ez du nire moduen pentsatzen eta nik ez dot amore emango horretan, ...

Memoriaz mintzatzean, berehala agertzen den galdera zera da, zer kontatu eta zer irakatsi belaunaldi berriei, seme-alabei, familian zein eskolan.

Zer egin dezakegun eskoletan, adostu beharko genuke. Jende ezberdinak izan dituzten bizipenak izango lirateke gure historia eta hori izango litzateke haurrei ulertarazteko bidea. Bizipen modu asko eman dira, bizipen asko entzun beharko lituzke gure umeek. Baina ez dago zertan konparatu behar. Zeinek sufritu duen gehiago, baten beldurra besteena baino gehiago da? Beti gabiltza neurrien horien bila eta hau ez da konkurtso bat jakiteko zeinek sufritu duen gehiago. Hau izan da egoera madarikatu bat, non konturatu geran ez duela ezertarako balio izan. Ez dugu jakin, ez bizitzen prozesua eta ez ixten orain ere.

Nere seme-alabei zeoze esan behar banie, izango zan terrorismoak ez daukala zentzurik. Ikusita hemengo esperientzia, ez daukala, ez duela pena merezi kasu baten ere ez, inoiz ez duela merezi, ze gerora ikusita ze eboluzio euki duen. Hasiera batean ba diktadura batean eta abar, baina gero ikusita nola amaitu dan, ikusita nola deribatzen dan, ez dula merezi. Nik ez nieke sekula esango armak hartzeko diktadura baten kontra, sekula. Hemen gertatutakoa ikusita, zer gertatu dan jakin behar debe, nik uste dot baietz, hori ezagutu beharra dao.

Nire seme-alaben belaunaldiaren kasuan desberdina da. Egia jakin behar dute, zehaztasunarekin. Bai bai kasu batean eta baita bestean ere, eta behar bezain azkarraz izango dira konturatzeko kontrakoa akats bat dela, nik uste. Benetan diot gazteek gauditua dutela. Hezkuntza ezinbestekoa da gauzak gertatu diren moduan kontatu ahal izateko, egia oso gordina bada ere.

Noizbait seme-alabak izango banitu, izugarri gustatuko litzaidake, hitz egiteko beldurrik gabe biziko balira, Pentsatzen dutena esateko beldurrik gabe, euren ideiak azaltzeko beldurrik gabe, garai hauetan, hitz egiteko beldurra izatea, idealak azaltzeko beldurra izatea, ez dut ulertzen. Ni ez nintzateke erlaxatuko. Baliteke oso presente egotea oraindik ere, baina ETak estrukturatua izaten jarraitzen eta gutxien espero dugunean berriz ere gerta liteke. Baina suposatzen da eurek aurrera pausua eman dutela, eta orain beste pausu bat emateko unea da; baina erlaxatu gabe.

Denbora epe bat pasatzen utzi beharra azpimarratzen du bateren batek, tarte gehiago behar omen da gauzak baretu eta beste ikusmira bat izateko; orduan, adostasun sendoagoak egon daitezke kontakizuna egiteko.

Eskoletan, hemendik 10 urtera, perspektiba pixka hartzeko. Gainera ez dakit nola idatziko dan historixa, igual pixkat posatzen bada. Hemendik 10 urtera, jende diferenteak idazten duenarekin eta esaten duenarekin idazten bada, testu konsensuatu batzuk, ba ondo egongo zan.

Indarkeriaren erabilpenak ez duela ezertarako balio, sufrimendua sortzeko baino; eta ideia horrekin batera, indarkeriazko gertakariak –gerra zibila barne- ezin direla errepikatu, azaldu dira zenbait solaskideen aldetik.

Berriro ez! Eta nik hori, “berriro ez” ondo ikasi neban, aman aldetik batez be.

Hasteko argi edukitzea ez duela balio izan, beldurrerako edo odolerako baizik, nahi nuke jakitea eta argi edukitzea hori ez dela bidea sekula santan. Indarra ezin dela erabili inoren kontra. Nik nahi dut nire seme alabak jakitea, hau ezin dela errepikatu, sekula ezin da errepikatu.

Zailtasuna sumatzen da hurbileko iragana azaltzeko orduan, urruneko iraganean gertatutakoak kontatzeko baino.

Transmisioa ez dakit nola egin daiteken, Gernikaren bonbardeaketaren urteurrenean Lizasoren kopia batzuk entzuten ditugu etxean, urtero jartzen dizkiet. Ematen du errezagoa dela Gernikaren inguruan hitzegitea, gatazkaren inguruan hitzegitea baino. Kartelak eta ikusten dituenengan galdetzen dit eta nik oso era objetiboan azaltzea gustatuko litzaidake, baino nik nere sesgoa daukat, nere motxila eta ez da nere alabaren motxila izan beharrik.

Etorkizuneko elkarbizitzaz jardutean, behetik hasita eta talde txikitan egin beharra azpimarratzen da.

Gizartea antolatzeko, seguru aski, talde txikietan hasi beharko ginateke mugitzen, ezberdinen arteko konfiantza guneak bilatzen, eta zenbait puntu ikutuz, ezin da gatazka osoa mahai gainean jarri. Gertakari batzuen inguruan elkar hitz egin daiteke, eta gertakaritxo horietan dauden pertsona ezberdinak bateratu.

Zalantza ugari agertzen dira, hemendik aurrera nondik eta nola jorratu behar den bidea zehazterakoan, baina ez dago dudarik ezinbestean eutsi beharreko lana dela.

Gure joera da ur sakon horietara ez sartzea eta guzti honekin ez gara ur sakonetara sartzen. Herri bezala iruditzen zait, histori hau partekatze bidea bilatu behar dugula, eta ur sakon horiek ikutzeko era bilatu behar dugula gauzak ez errepikatzeko, historia behar den bezala kontatu ahal izateko eta gauzak behar diren bezala gogoratzeko. Baino hau ez dakit dakigun egiten, nik ere ez nuke jakingo nola egin.

Hemen gatazka politikoa atera zela “por arte de magia” eta hori ere ez da egia,

hori atzetik dator eta hor dagoen arazoa ez bada konpontzen ez dakagu zer eginik, gatazka berriro bueltatuko da, errotuta.

Instituzio mailan ez dakit gauzak ondo egiten ari diren. Herri mailan egin beharko litzateke zerbait, berriro ez gertatzeko gertatu dena. Eskubideak errespetatu egin behar direla, bestela berriz ere bueltan gaude. Nik uste det baietz, baina gauzak muturrera eramaten badira berriro egoera berdinean jarriko garela, gauzak ondo egiten ez badira bai.

Desberdinen arteko hurbiltze ahaleginak ere laguntzen dute zauriak sendatzen.

Buruan daukat pertsona bat etorri zitzaidalda, biktima, igual bera ez, baina koinatua. Eta etorri zen hori esatera, ez zitzaiola ondo iruditu Arnaldoren atxiloketa eta injustua zela. “Zure barruan zer ...?” Mugitu egiten du, ... onerako.

Egia -egia guztiak- azaleratzearen garrantzia askoren ahotan azaldu da, errealitate desberdinak ezagutu ahal izateko; kasu gehienetan bakoitzak alde bakarreko edo bere gertuko kontakizuna jaso baitu soilik.

Lagun honek Egiaren Komisioaren inguruan hitz egin zidan, gogoan dut harritu ninduelako, beti entzun duzulako kontakizuna. Beti ikusi izan duzu “Informe Semanal” en edo irratan edo prentsan. Eta lagun honek nik ez nekizkien gauzak kontatzen ditu. Nire aita Guardia Zibila zen eta baita aitona ere. Kontatu zidan, kuarteletako nagusiek, mandoek, guardiak kalera ateratzera behartzen zituztela egunero, normaltasuna adierazteko. Ilegorri batek, “Larios” bat eskatu eta tabernatik ateratzen ari zela tiro bat eman zioten. Krudelkeriaz kontatzen dizu, urte asko pasa badira ere, baina...

Lagun hau HBkoa da, Bildukoa. Maiz hitz egin izan dugu politikaz. Beste aldearen kontakizunak entzuten dituzu. Nire lagun Ck, konstituzionalista denak, ez du inongo oztoporik uste duena esateko. Gauza bat gertatu da, baina errepresioa eman dela ere badakit, eman dela, ez dakit nola deitu, tortura edo tratu txarrak, baina jipoitu dela bai. Ni ere jipoitu ninduen Guardia Zibilak, ez kontu hauengatik baina...

Azken urteotako memoria, Euskal Herrian gertatutakoaz, osatzear dago oraindik eta egia guztiak bildu ezean ezingo da osatu, hainbatek dioen bezala. Hala ere, badira bestela ere pentsatzen dutenak.

Oraindik nik uste dut jaso gabe dagoela, eta jaso behar da. Frankismoaren azken urteetan zenbat atxiloteta egon zen, jendea eramaten zen kuartelera, palizak jo, manifestazioetan sartu Guardia Zibila eta atxilotu, besoa apurtu. Orduan, hor horiek ere jaso egin behar dira.

Indarkeria poliziala ere argitara atera behar da. Bai, koarteletan sufritutako torturak: goardia zibilek nire bi lagun -neska bata, mutila bestea- bortxatu egin zituzten, baita kaleetan modu bortitzean jazotako errepresioa: urte askoan ertzainek babes politiko osoarekin eta zigorrik gabe gazteak zauritu ditu eta jendearen adierazpen askatasuna zapaldu dute.

Ematen du unidirekzionala, ezta? Hauxe izan da biolentzia, hauek dira biktimak eta hori ezin dugu ahaztu. Baina, hostia, hemen gauza gehiago gertatu da. Lehenagotikan, gerratikan, maneiatu behar direnak eta azkeneko 50 urteetan ere. Eta oraindik jaso egin behar da. Elgoibarren badago talde bat 1936, eta ari dia gauzak ateratzen, oraindik jasotzeko dago 70tik-80ra gertatu ziren gauza asko jasotzeko daude. Lehenengoz dena mahai gainean.

Nik pentsatzen dotena da hor gabiltz borroka batean eta esan nahi dot, Espainako Gobernuak ez du aitortu tortura bat ere egon danikan azken 50 urteetan. Nola onartuko du ezer Espainiako Gobernuak? Onartzen duen gauza bakarra hemen terrorista batzuk espainiarren bizitza lasaia eta ona saiatu ziala apurtzen, gaiztoak zialako.

Etorkizunera begira, bizikidetzan ez dot arazorik ikusten. Nik ez daukat zurekin problemarik, ez daukat bestiakin problemarik. Jartzen gara, zu hor, ni hemen, baina kitto, eehh! Hemen hau ta hau pasau da, eta nik ez daukat zurekin elkarbizitzarako problemarik, baina, bakoitza bere tokixan.

Hainbat proposamen

Elkarrizketetan jaso diren ideien artean, solaskideek eskari zehatz batzuk adierazi dituzte desio moduan, egunen batean ikusteko asmoz.

Pertsonalki Arnaldori eskatuko nioke adore pixka bat gehiago izateko. Baina bai Arnaldori eta baita beste guztiei ere... esparru guztietan, Arantxa Quirogaren kontura bueltatuz. Adore gehiago izan dezatela denek, gertutasunetik, komunean jarritz, eta horri esker desberdintasunak nabaritutuko dira.

Nik uste dot herri honen parte haundi batek Estatu independente bat nahi dabala izan. Izan gea beti "pueblo apaleao", ez dugu gure nortasuna garatzeko aukerarik izan eta sektore batek independentzia nahi dugu eta beste sektore batek ez du nahi, komodo sentitzen da. Baina herri honen arazua galdetzen konpontzen da, bestela Kataluñako bidia geratzen jaku.

Informazio guztia atara behar da, informazio guztia. Gero memoria bakarra eta hori, iruditzen zait hitz potoloak dia, memoria bat egin behar dogu ... Bueno, ipini dezagun dena mahai gainean, atera dezagun dana (egia mota guztiak).

Inportanteena da partekatzea, memoria guztiak eta danak kontutan eukitzia. Oin hiru alderdik jarri garan moduan, beste alderdi guztiak edo beste esparru guztiak ere bai jarri daixezela eta ea erakar ditzakegun beste biktima hoiek, eurok biktima sentitzen dianak eta ez dabenak pentsatzen guk biktima hori hortan sartu ditzakegunak.

Guk ikusi dogunian Erreterin egin dabena, azkenean ein doguna, ba guk ere saiakera antzerakua. Baina beste batzuek ez daukabe ideiarik ere zer eitxen dan. Gure herritarren taldea atera den moduan, eman bere garrantzia horri. Agertzen da talde bat non elkartzen dian astelehen baten hilan bukaerian eta jartzen dia mahai baten inguruan eta ataratzen dittue euren barruak, ez?

Udalak 80ko hamarkadan drogarekin eta batez ere heroinarekin gertatua ikertu bihar dau, fenomenoaren hedapenean zegoen interes politiko-poliziala argitu. Egia atera behar da, horrek sufrimendu handia eragin zaban eta.



7. TESTUINGURUAREN KRONOLOGIA: MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIA GERTAKARI BATZUK, ELGOIBARREN

Atal honetan, udalerrian gertatutako indarrezko gertakariak berrikusiko ditugu, guztiak ez badaude ere. Ezinezkoa izan da guztiak biltzea, besteak beste, jazarpen, estortsio, mehatxu, eraso, irain, larderiako pintada eta egoiliarak dituen etxebizitzaren ondoan edo azpian izandako lehergailuen eztandek edo suteek eragindako beldur kasu guztiak identifikatu ezin izan direlako. Horrez gain, ezin izan ditugu askotariko protesta eta grebetan zaurituriko pertsona guzti-guztiak bildu, ez eta hiriko altzarietan eragindako kalte guztiak, erretako zaborrontzi guztiak, kuartel baten aurretik igaro eta giza eskubideen urraketak jasan behar izateko beldurra eta halakoak ere zenbatu.

Agian egunen batean bilketa hori egin ahalko da eta gertatutakoa xehetasun handiagoz aztertu ahalko dugu. Bitartean, hemen jasotakoak gertatutakoaren erreferentzia gisa ulertzekoak dira. Hutsune horiek betetzeko eta zuzentzeko lana, bai eta egin ahal izan ditugun akatsak zuzentzeko lana ere (eta aldeztu aurretik barkamena eskatu nahi dugu horrelakoengatik) hemen egin dugunetik abiatuko da, eta tokiko komunitatearekin partekatu nahi dugun memoria osatzeko balioko du.

7.1. FRANKISMOAREN AZKEN URTEAK

1947ko eta 1951ko greben ondoren, 1956an langileen eta ikasleen beste hainbat protesta piztu ziren; horren eraginez, Espainiako Ministroen Kontseiluak lehen aldiz salbuespen-egoera dekretatu behar izan zuen, protesta horiek geldiarazten saiatzeko. 1960ko ekainaren 27tik 30era, Askapenerako Iberiar Direktorio Iraultzaileak (DRIL, gaztelaniaz) sei atentatu egin zituen bonba su-eragileak erabiliz Espainiako hainbat tokitan. Donostiako Amara geltokian eztanda egin zuen lehergailuak neskato bat, 22 hilabeteko Begoña Urroz Ibarrola, erail zuen. 1968ko ekainaren 7an, ordu gutxian, ETak lehenengo pertsona hil zuen, Jose Antonio Pardines Arcay guardia zibila hain zuzen ere; eta Guardia Zibilak lehenengo ETako kidea hil zuen, Txabi Etxebarrieta Ortiz. Azken horren omenezko mezak debekatu egin ziren eta diktaduraren aurkako protestak areagotu egin ziren. 1968ko abuztuaren 2an, ETak aldeztu aurretik prestatutako lehen atentatu hilgarria egin zuen Meliton Manzanos Gonzalez inspektorearen aurka, Irunen.

1956

Otsailaren 10a. Frankoren erregimenak lehen aldiz salbuespen-egoera agindu zuen; hiru hilabete iraun zituen. Espainiarren Foruen 14. eta 18. artikulua baliogabetu ziren; artikulua horiek bizitokia hautatzeko eskubideari eta atxilotuak polizia-etxeetan 72 orduz baino gehiagoraz egonarazteko eskubideari eragiten zieten. Hala ere, apiriletik aurrera hainbat langile-greba egin ziren, baita Elgoibarren (Díaz Monreal, 2013: 149) eta Gipuzkoako beste udalerri batzuetan ere⁵⁰. UGT sindikatutik honela kontatzen dute: “Apirilean grebari ekin zioten, lehenik eta behin Iruñeako langileek, eta gero greba beste euskal eskualde batzuetara hedatu zen”⁵¹. Grebak Debagoienan izan zuen eraginik handiena; bertan, Polizia Armatuaren autobus bat Arrasatera joan zen eta hiru pertsona atxilotu zituen⁵². Ekainean, Espainiako Alderdi Komunistak bere adierazpen historikoa egin zuen, “nazio-mailako adiskidetzeari” eta “konponbide demokratiko eta baketsu” bat eskatuz. Irailean, atzerriko Eusko Jaurlaritzak Munduko Euskal Kongresua antolatu zuen Parisen.

⁵⁰ “La huelga general de 1956” (139.-157. or.), erreferentziak 149., 150., 151. eta 153. orrialdeetan. DÍAZ MONREAL, José Luisen lan honetan: *La huelga de 1951 y otros conflictos en Navarra durante los años cincuenta*. Iruñea: Pamiela, 2013.

⁵¹ <http://ugtdocumentacion.blogspot.com.es/2008/09/huelgas-1950-1975.html>. Azken kontsulta: 2017ko otsailaren 17a.

⁵² GARAI, Juan Ramon. *1947ko maiatzaren huelga Gipuzkoako Debagoienan*, 15. orrialdea.



1960

Martxoaren 30a. Martxoaren 22an Jose Antonio Agirre lehendakaria hil zen, eta haren familiari ez zioten ezta eskala jartzeko baimenik ere eman. Hainbat udalerritan bere omenezko meza egin zen, baita Elgoibarren ere, San Bartolome parrokian. Irteeran, plazan bertan, Guardia Zibila zegoen, mezara gerturatutakoak zaintzen eta oharrak hartzen.

1961

Pako Juaristi, Bittor Arrieta, Felix Arrizabalaga, Julian Mugica eta Deunoro Oriden atxilotu zituzten, azken hori zumaiarra. Guztiak Ekineko kideak edo Ekinen aldekoak ziren eta, dirudienez, erregimenak debekatutako liburuak banatzea leporatu zieten⁵³. Espetxean urtebete eman ondoren, behin-behinean aske utzi zituzten, epaiketaren zain.

1962

Otsailaren 19a. Gipuzkoako hainbat enpresatan izandako protesta handien ondoren, Poliziak eta Guardia Zibilak hogeita hamar pertsona inguru atxilotu zituzten Elgoibarren, Arrasaten, Hernanin

⁵³ Felix Etxeberriari elkarriketa, LASA, Xabierren lan honetan: *Felix Etxeberria Parapango akuilua*. Elgoibar: auto-edizioa, 2014, 110. orrialdea.

eta Erreterian, lege kanpo propaganda egitea eta elkartzea leporatuz. Tratu txarrak eta isunak jaso zituzten eta kaleratu egin zituzten edo enpresen zerrenda beltzetan sartu zituzten.

Greba batean parte hartu ondoren kaleratua izateagatik zerrenda beltzetan zure izena sartzeak automatikoki esan nahi zuen beste enpresa batzuetan lan egiteko ateak itxita zeudela zuretzat; izan ere, zerrenda horiek lantegi batetik bestera zebiltzan, eta langilerik borrokalarienak zigortzen zituen.

Maiatzaren 2a. Etenaldiak eta grebak Elgoibarko hainbat lantegitan.

Maiatzaren 4a. Salbuespen-egoera deklaratu zen Gipuzkoan, Bizkaian eta Asturiasen, hiru hilabetez. Atxilotetak. Francoren gobernuak “kanpoko propaganda gaiztoari” egotzi zion “ezohiko lan-egoera”; bitartean, Gipuzkoako gobernadore zibilak “propaganda komunistak artifizialki sorturiko ezohiko egoera” aipatu zuen. Beste neurri batzuen artean, Gobernuak agintariek eskumen hauek bereganatu zituzten:

- Bide publikoan taldeak osatzea edo ibilgailuak uztea debekatzea, eta udalerri batetik bestera joatea debekatzea.
- Indar publikoaren jarduna oztopatu dezaketen pertsonen zenbait tokitara sartzeko mugak jartzea edo sarrera debekatzea.
- Ordenari eusteko beharrezkoa bada, edozein pertsona atxilotu ahal izatea.
- Haien aurrekariak edo jokabidea direla eta jardura subertsiboetan ari direlako susmoa piztu duten pertsonak beste udalerri batera edo beste etxebizitza batera eraman ahal izatea.
- Aurreko baldintza horiek betetzen dituzten pertsonen etxebizitza nazioko udalerrian edo lurraldean finkatzea⁵⁴.

1963

Irailaren 7a. Martxoan Baionan gose-greba batean parte hartu ondoren, Francisco Aguirre Osorok, Elgoibarren jaio zen eta Zaldibarren bizi zen mekanikariak, Frantziako Gobernuak errefuxiatu politikoaren estatusa ematea lortu zuen.

1966

Ekainaren 12a. Poliziak lau pertsona atxilotu zituen ETako kide zirela leporatuta eta euskal festa bat ospatu bitartean goi-tentsioko kable batean ikurrina bat jarri izana leporatuta. Haietariko bat, Mendizabal abizena zuena, espetxean sartu zuten, eta gainerako hirurak ekaina bukaeran askatu zituzten.

1967

Urriaren 1a. Hiru autobus Elgoibartik atera ziren, Batasun Egunean edo Euskal Egunean parte hartzeko asmoz, Urbian urtero egiten zen elkarretaratzean. Gobernadore zibilak ekitaldia debekatu zuenez,

⁵⁴ Espainiarren Foruetako 12.-16. artikuluei eta 18. artikuluari eragiten dieten Lege Dekretuaren xedapenak. *Pueblo*, 1962-05-05. Linz, Juan J. *Archivo Linz de la Transición Española*. Madril: Instituto Juan March de Estudios e Investigaciones, 2006. Azken kontsulta: 2017ko otsailaren 17a. Sarean eskuragarri: <http://www.march.es/ceacs/linz/>

Bermeorako bidea hartu zuten. Han, parte-hartzaileek “Gora Euskadi” eta “Askatasuna” oihukatu zuten, festa-giro baketsuan. Orduan, Guardia Zibila agertu zen eta hainbat pertsona atxilotu zituen; horrez gain, besteak beste Elgoibarko parte-hartzaile ugari identifikatu zituen. Handik denbora batera, 15.000 eta 20.000 euro arteko isunak iritsi ziren. Hori ikusirik, hainbat pertsonak ez ordaintzea erabaki zuten eta, aurkeztutako errekurso guztiak ukatu ondoren, 1969an Martuteneko kartzelan sartu zituzten, hilabeteko zigorra betetzeko.

- Errekurso guztiak ukatu ondoren, gutxienez 28 emakume eta 10 gizon kartzelan sartu zituzten 1969an, isuna ez ordaintzeagatik⁵⁵. Hauek dira haien izenak: Maite Ajuria Legarreta, Andoni Alberdi, Arantza Andonegi Garcia, Maria Jose Arakistain Oñederra, Maritxu Aranberri Ostolaza, Maite Arozena Alberdi, Ciriaco Azkoaga, Begoña Astigarraga, Rosa Barrenetxea, Petra eta Maria Angeles Barrenetxea Bereziartua, Belen eta Lurdes Belategi Okina, Maria Dolores Canales Vallejo, Ana Churruca, Maite Eizagirre, Belen Elortza Arrieta, Mari Carmen Elustondo, Josu Etxaniz Aranberri, Maria Conchi eta Maria Jesus Gabilondo, Maria Luisa Garate, Pedro Garcia, Marga Gurrutxaga Muguruza, Jose Maria Gurrutxaga Eizagirre, Nieves Iriondo, Maria Luisa eta Javier Mendizabal Aiestaran, Jose Mari Muruamendiaraz, Rosi Osoro, Xabier Uriguen Aranburu, Arantxa Iriondo Garate, Maria Dolores eta Pedro Mari Urkidi Iriondo, Maria Cruz Urzelai David, Maria Isabel Vazquez Gonzalez, Jose Angel Zubiaurre Azkue eta Maria Isabel Zubiaurre Barrenetxea.

- Martuteneko kartzelan, 1961ean legez kanpoko liburuak banatzeagatik espetxeratutako elgoibartarrekin topo egin zuten. Haiei epaiketan bi urteko zigorra jarri zieten, eta besteak iristean zigorraren bigarren urtea betetzen ari ziren.

1968

Apirilaren 21a. ETak lehergailua jarri zuen udalerriko Etxe Sindikalean.

Abuztuaren 4a. Gipuzkoan hiru hilabeteko salbuespen-egoera deklaratu zuten, ETak Irunen Meliton Manzanos Gonzalez inspektorea (59 urte) atentatu batean hil ondoren; inspektore hori behin baino gehiagotan salatu zuten atxilotuak torturatzeagatik, Amanci Conde elgoibartarra tartean⁵⁶. Hainbat pertsona atxilotu zituzten, besteen artean Jose Agustin Iriondo Barrenetxea, elgoibartarra eta Gasteizen bizi dena. Azaroaren 4an salbuespen-egoera beste hiru hilabetez luzatu zuten Gipuzkoan.

Abuztuaren 19a. Guardia Zibilak Joseba Iñaki Elustondo Oñederra atxilotu zuen. Askatu egin zuten. Torturak salatu zituen.

1969

Urtarrilaren 24a. Salbuespen-egoera deklaratu zen, oraingo honetan Espainia osoan. Martxoaren 25era arte iraun zuen. Espainiarren Foruen 12., 14., 15., 16. eta 18. artikulua baliogabetu ziren; era horretan, are gehiago murriztu ziren korrespondentziari, bizileku-askatasunari, etxebizitzaren bortxazintasunari, biltzeko eskubideari eta elkartzeko askatasunari buruzko eskubideak. Aldi berean, “ordena publikoa mantentzeko ezohiko neurriak” ere ezarri ziren. Beste batzuen artean Francisco Severiano Juaristi Iriondo, Julian Mugica Iturzaeta eta Felix Arrizabalaga elgoibartarrak atxilotu zituzten ETarekin lotuaz. Hirurak 1970ko urtarrilaren 16an Ordena Publikoko Auzitegian epaituak izan ziren.

⁵⁵ Lola Canalesen lekukotza, Xabier Lasaren lanean, *Op. cit.* 345.-348. orrialdeak.

⁵⁶ *El País*, 28/01/2001.

Martxoaren 10a. Guardia Zibilak Jon Etxabe Garitazelaia atxilotu zuen Eibarren, baina ihes egitea lortu zuen. Elgoibarren jaiotako apaiz hori ETAko militantea zen eta 1970eko abenduan Burgosko Auzian epaitu zuten, beste 16 pertsonarekin batera.

Apirilaren 11. Mogrovejon (Santander) Jon Etxabe Garitazelaia atxilotu zuten, hilabete lehenago ihes egitea lortu zuena. 23 egun eman zituen polizia-etxean eta, ondoren, Zamorako kartzelara bidali zuten. Guztira 53 apaiz egon ziren preso kartzela hartan (2014an, Maria Servini epaile argentinarraren aurrean salatu zuen atxilotuta egon zen bitartean torturak jaso izana)⁵⁷.

1970

Ekainaren 26a. Ordena Publikoko Auzitegiak Jose Agustin Iriondo Barrenetxea epaitu zuen.

Azaroaren 1a. ETAren komando batek gau osoan zehar Jose Angel Agirreren, Elgoibarko Banco Guipuzcoanoren sukurtsaleko zuzendariaren, familia bahitu zuen. Hurrengo goizean, 7:00ak inguruan, komandoko kide batzuek familia etxean atxikitzen zuten bitartean, gainerakoak zuzendariarekin batera banketxera joan ziren, kutxa gotorra ireki zezan. Lanera iristen ari ziren banketxeko langileak, besteak beste bi emakume, hanketatik eta eskuetatik lotu ondoren, lau milioi pezeta eraman zituzten.

Abenduaren 3a. Greba orokorra egin zen Elgoibarren, ETAko 16 kideren aurkako Burgosko Auzia salatzeko; auzi horren bitartez hainbat heriotza-zigor eskatzen ziren, Meliton Manzanas inspektorearen heriotza eragin zuen atentatuan parte hartu izana leporatuta. Udalerriko plaza batera eta bestera ari zen jendez beteta zegoela, Guardia Zibilaren hainbat jeep iritsi ziren. Agenteetako batek pistola atera zuen, eta jendeari segika hasi ziren; horrek jendea korrika hastea eragin zuen.

Abenduaren 4a. Elgoibarren beste manifestazio bat egin zen, greba orokorraren bigarren egunean. Egun horretan, Espainiako Gobernuak beste salbuespen-egoera bat deklaratu zuen Gipuzkoan, hiru hilabeterako. Espainiarren Foruen 14., 15., 16. eta 18. artikulua baliogabetu zituzten, Burgosko Auziaren kontrako protesten eta ETAk Eugen Beihl Schaeffer Alemaniako kontsula Donostian bahitu ondoren. Eibarren, Poliziak larri zauritu zuen 21 urteko Roberto Perez Jauregi PCE(i)-ko kidea, dum-dum bala baten bidez (bala hedagarria). Abenduaren 8an hil zen. Abenduaren 14an, salbuespen-egoera Espainia osora hedatu zen, Burgosko Gerra Kontseiluaren aurkako protesten indarraren eraginez.

Abenduaren 5a. Abenduaren 5eko Diario Vasco egunkarian hau agertu zen aurreko eguneko greba orokorrari buruz:

Lan-arloari dagokionez, [Julio] Iranzo [gobernadore zibil] jaunak esan zigunez, ezohiko egoera larritu egin da. Hogeita mila langile inguru ez dira lanera joan. Aurreko eguneko hogeita hamar mila langileren aldean, murrizketa nabarmena da.

Ordena publikoa asaldatu da Errentarian, Hernanin, Pasaian, Aretxabaletan, Andoainean, Villabonan, Tolosan, Ordizian, Elgoibarren eta Eibarren. [Azken udalerririk horri dagokionez, hau dio]: Eibarren, indarrek bonba negar-eragileak erabili behar izan zituzten. (...) Atxilotutako langileak, jakinarazi digute orain arte 50 atxilotu daudela...

Abenduaren 5etik 10era. Manuel Conde Isasmendi, Ignacio Andonegi Juaristi, Manuel Conde Isasmendi eta Joxe Mari Etxeberria Larrañaga Guardia Zibilaren kuartelera deitu zituzten, besteak beste hilaren

⁵⁷ ETXABE, Jon (2014). *Zamorako Landan*. Intxorta 1937 Kultur Elkarte.



Felix Etxeberria, bere atxiloteta gogora ekartzen.
Xabier Lasa, "Parapango akuilua".

3ko deialdia zela eta. Joxe Mari Etxeberria Larrañagak mehatxuak jaso zituen eta hainbat zaplazteko jo zituzten; horrez gain, bere anaia Felix Etxeberriari (44 urte) kuartelera joan behar zuela esateko agindu zioten. Hilaren 10ean, Felix Etxeberria kuartelera joan zen. Atxilotu, galdekatu eta torturatu egin zuten, batez ere oinazpitan, zaharo batekin. Gainera, ihesen legea aplikatuko ziotela mehatxu egin zioten. Grebaren aldeko propaganda egin izana, presoentzako dirua bildu izana eta ezkutuan euskara-eskolak eman izana leporatu zioten. Atxilotuei 10.000 eta 17.000 pezeta arteko isuna jarri zieten "baimenik gabeko manifestazio bat egiten saiatzeagatik eta propaganda subertsiboa egiteagatik". Handik bi egunera, zenbait agente etxera joan zitzaizkion bila.

*Beharrezkoa da argitzea. Ni prest nengoke epaile baten aurrean jasan nituen torturak kontatzeko*⁵⁸.

1971

Uztailaren 5a. Ordena Publikoko Auzitegiak Maria del Rosario Iglesias Aloiz (alde eginda zegoena) eta beste hamasei pertsona, gehienak Debagoienekoak, epaitu zituen. (1970. urtean Arrasaten atxilotua izan zen, nahiz eta Elgoibarkoa izan).

1973

Martxoaren 10a. Dinamitz eraso egin zioten Leruneko futbol-zelaiko tabernari, Elgoibarren. Horren jabea Conde jauna zen. Kalte material handiak eragin zituen. Hiru urte lehenago, taberna horri berari nahita su eman zioten.

Apirilaren 10a. ETak lehergailu bat jarri zuen La Terraza tabernan. Tabernaren jabea Manuel Quiroga zen; ETaren esanetan, estatuko segurtasun indarrei laguntzen zien. Hamaika solairuko eraikin baten bigarren solairuan zegoen, eta ez zen inor hil; hala ere, kalte materialak handiak izan ziren, milioi bat pezeta ingurukoak. Tabernaren azpiko pintura-biltegiak ere kalte handiak jasan zituen, eraikinaren kristalak apurtu egin ziren eta tabernaren inguruko ate zein leihoen markoek kalteak jasan zituzten.

1974

Irailaren 17a. Guardia Zibilak Elgoibarren Jose Domingo Osoro Loyola eta Jose Antonio Arribillaga Askasibar atxilotu zituen, ETA V. Asanbladako komando bateko kide zirela leporatuta. Operazio horretan bertan beste hiru pertsona atxilotu zituzten Bergaran eta beste bi Soraluzen. 1973ko martxoan eta apirilean Elgoibarren bi lehergailu jarri izana leporatu zitzaien.

Abenduaren 2a eta 3a. Greba orokorra deitu zen, eta eskualde osoan etenaldi handiak egin ziren. Aldi berean, kartzeletan gose-grebak egiten ari ziren.

⁵⁸ ETXEBERRIA, Felix. *Berria*, 2014-06-08.

Abenduaren 11. Beste greba orokor bat egin zen, aurrekoa baino are handiagoa, bizitzaren garestitzearen kontra eta amnistiaren alde. Karga polizialak eta atxilotetak egon ziren.

1975

Apirilaren 25a. Ministroen Kontseiluak salbuespen-egoera dekretatu zuen hiru hilabeterako Gipuzkoan eta Bizkaian. Horretarako emandako arrazoia Frankoren erregimenak programatutako gerra-kontseiluen kontrako “giro gatazkatsua” izan zen. Espainiarren Foruen 12., 14., 15., 16. eta 18. artikulua baliogabetu ziren.

7.2 FRANCOREN HERIOTZATIK KONSTITUZIORA ARTE

Francisco Franco diktadorea 1975eko azaroaren 20an hil zen. Espainiako Gorteetako hauteskunde orokorrak 1977ko ekainaren 15ean egin ziren. Bigarren Errepublikatik egiten ziren lehen hauteskunde askeak ziren, nahiz eta zenbait alderdi, besteak beste, Karlisten Alderdia, ez zituzten hauteskundeetarako legeztatu, eta beste alderdi hauek hauteskundeen deialdia baino bi edo hiru hilabete lehenago baino ez zituzten legeztatu: EAJ, martxoaren 23an; ESB, apirilaren 3an; PCE, apirilaren 8an... 1976an, Ordena Publikoko Auzitegia ezeztatu zuten, eta Auzitegi Nazionalak ordezkatu zuen hori. Espainiako Konstituzioa 1978ko abenduaren 6an onetsi zen, nahiz eta Euskadin abstentzio ugari egon ziren.

1976

Martxoaren 18a. 18:00ak aldera, pistoladun bi pertsonak Eibarko herritar Jose Luis Ugarteri autoa kendu zioten, eta gizona udalerrir horretatik hurbil dagoen mendi batean utzi zuten. Seat 127 ibilgailu horrekin, Elgoibarrerako bidea hartu zuten.

Martxoaren 18a. 18:45ak pasatxo zirela, ETApn-k Angel Berazadi Urbe, Estarta y Ezenarro enpresako zuzendari kudeatzailea, Elgoibarko “Sigma” eta Ayala SA enpresako administrazio-kontseiluko burua eta ideologikoko EAJren ingurukoa, bahitu zuen Bilbo-Behobia errepiderako sarbidean, Elgoibartik Donostian zuen etxera zihoala. Bere autoa, Mercedes 280 bat, autobideko Restop-ean aurkitu zuten, ondo aparkatuta eta giltzak kontaktuan zituela. Ibilgailu horren ondoan, Eibarren lapurtutako Seat 127 autoa aurkitu zuten.

Martxoaren 22a. La Gaceta del Norte egunkariaren arabera, berrogei enpresarik jaso zituzten, Angel Berazadik bezalaxe, ETAREN gutunak, erakunde horren gastuak ordaintzeko “kuota” gisa dirua eskatuz. Hainbat enpresarik babesa eskatu zuten jasotako mehatxuak zirela eta.

Martxoaren 24a. Komunikabideetan Angel Berazadiren bahiketaren atzean nor zegoen eztabaidatu zuten. Egunkari batzuek Eduardo Moreno Bergaretxe “Perturren” eta Jose Luis Etxegarai “Marken” argazkiak argitaratu zituzten, eta bahiketarekin zerikusia zutela esan zuten.

Martxoaren 26a. Angel Berazadiren familiak prentsaurrekoa eman zuen. Bertan, jasotako babesa

eskertu zuten eta bahitua ahalik eta lasterrena askatzeko baldintzak ezagutzeko ematen ari ziren urratsen berri eman zuten. Horrez gain, tamalgarritzat jo zuten “herritarren iritzia nahasi ahal izan duten erreportaje sentsazionalistak, inolako logikarik eta egirik gabeak” argitaratu izana. Aldi berean, Cifra agentziak argitaratu zuen ETApM-k 200 milioi eskatzen zituela erreskatearen truke. Familiak ez zuten horri buruzko ezer esan.



Bahitzaileek Angel Berazadi ateratako argazkia.
“Hautsi”.

Apirilaren 5a. ETApM-k Frantziako hedabideei oharra bidali zien; bertan, azken abisua ematen zen eta jakinarazten zen 48 orduko epean eskatutakoa bete ezean Angel Berazadi hil egingo zutela. Espainiako Gobernuari negoziazioak oztopatzea leporatu zioten, eta zehaztu zuten Berazadi bahitu zutela “iraultza-zerga ez ordaintzeagatik” eta enpresan zuen “jarrera antisozialagatik”. Familiak, larri, beharrezko kudeaketak egin zituen eta Lapurdira zein Madrilera joan zen.

Apirilaren 6a. ETApM-k emandako epea bukatu eta gutxira, hainbat gauza gertatu ziren. Egun horretan, aurreko egunean Segoviako kartzelatik ihes egin zuten preso gehienak harrapatu zituzten, bai eta babes-komandoko emakume bat eta bi gizon ere. Guardia Zibilaren tiroek iheslari bat hil zuten eta beste bat zauritu zuten. Halaber, apirilaren 5ean, Donostiako polizia-etxeko bi inspektore, Jose Luis Martinez Martinez eta Jesus Maria Gonzalez Ituero, desagertu egin ziren Hendaiara bidean zihoazela, eta inork ez zekien non zeuden. Gertakari horiek ETArri egotzi zizkieten.

Apirilaren 6a. Zarautzen manifestazio bat egin zen, Angel Berazadi aska zezatela eskatzeko. Manifestazioaren buruko pankartan hau irakur zitekeen: “Aingeru bizirik behar dugu”. Horrez gain, etenaldi partzialak eta aldizkakoak egin ziren Sigman, sekzioka, enpresaren martxa guztiz geldiarazi gabe, Angel Berazadi elkartasuna adierazteko. Haren omenezko meza bat ere egin zen.

Apirilaren 7a. Berazadi-Estarta familiak jakinarazi zuen “negotiazioak martxan jarraitzen zuela”. Are gehiago, familiako kide batzuek baieztatu zuten egun horretan bertan “Perturrekin” akordio bat lortu zutela. Aldi berean, “Perturren” ama, Marta Bergareche, etxean atxiki zuten, hiru egunez, poliziaren zaintzapean. Frantziako Poliziak 40 iheslari inguru atxilotu zituen Iparraldeko hainbat udalerritan.

Apirilaren 8a. Angel Berazadi Uriberen (58 urte) gorpua goizaldeko hirurak aldera aurkitu zuten, garondoan tiro bat zuela, Azkarateko gainean, Elgoibar-Azkoitia errepidean, komando batek Itziarko baserri batean 21 egunez bahitua izan ondoren. Bikote batek gorpua lurrean etzanda ikusi zuen, errepidearen ondoko bihurgune batean, Elgoibartik bi kilometroa. Hori izan zen hilda amaitu zuen ETApM-k bahitutako lehen enpresaria. Gobernazio ministroak, Manuel Fraga Iribarne, adierazpen bat irakurri zuen Gobernuaren izenean. Hau esaten zen bertan: “jakin dezatela terroristek gerra nahi badute gerra izango dutela, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Estatuak modu zibilizatuan egingo du, baina modu eraginkorrean eta errukirik gabe”⁵⁹.

⁵⁹ Manuel Fraga Radio Nacional irratian eta TVEn irakurritako adierazpenaren lehen puntua. *Diario Vasco* egunkariko lehen orrian agertu zen, 1976-04-09an.



"Museo de máquinas de coser y costura".

Apirilaren 8a. Sigmako langileek enpresa geldiarazi zuten, dolua adierazteko, eta lantegiaren sarreran hil-kapera jarri zuten. Asanbladan erabaki zuten gau osoan zehar gorpua beilatzeko txandak egitea. Elgoibarko Udalbatzak ezohiko bilkura bat egin zuen Angel Berazadiren erailketa arbuizatzeko.

Apirilaren 9a. Goizaldean, Guardia Zibilak hainbat pertsona atxilotu zituen, Angel Berazadi bahitu eta erail zuen ETApren komandoaren azpiegitura aurkitzen saiatzeko. Bahiketarekin zerikusirik ez bazuen ere, Jose Ramon Urzelai Etxeberria, Elgoibarko herritarra, hiru egunez atxilotu zuten eta Ocañako kartzelara eraman zuten. 1972 eta 1974 artean beste arrazoi batzuk zirela eta kartzelatan egon zen. Torturak salatu zituen.



Apirilaren 9a. Sigmako langileek Angel Berazadiren hilketxa lepoan hartu eta San Bartolome elizaraino eraman zuten. Han egin zen hileta. Milaka pertsonak hartu zuten parte segizioan. Udalerriko hainbat enpresak lana eten zuten, dolua adierazteko.

Apirilaren 12a. Gobernazio Ministerioak ohar bat argitaratu zuen; bertan adierazten zen azken egunetan ETArri loturiko 87 pertsona atxilotu zituztela eta horietatik hiruk, hirurak itziartarrak, Angel Berazadiren bahiketarekin zerikusia zutela.

Ekainaren 23a. Eduardo Moreno Bergaretxe, "Pertur", ETApren kidea, itxuraz Angel Berazadiren bahiketako negozio-prozesuan parte hartu zuena, Hendaian desagertu zen. 40 urte igaro badira ere, gorpua ez da agertu.

1977

Urtarrilaren 25a. Aitor Argarate Epelde ikasle elgoibartarra atxilotu zuten Berangon. 21 egun eman zituen atxilotuta, horietatik 20 inkomunikatuta. Basauriko espetxean sartu zuten, prebentzioz, eta torturak salatu zituen. Pistola batekin taxi-gidari bat apuntatzea leporatu zioten, bera eta beste pertsona bat Unbe mendira eraman zitzaizkion. Taxi-gidariak ezetz esan zien eta korrika atera ziren; handik gertu atxilotu zuten.

Urtarrilaren 25etik otsailaren 15era. Ekimen ugari egin ziren, milaka sinadura bildu ziren eta ehunka pertsonak San Bartolome elizan itxialdia egin zuten, Aitor Argarate La Salveko kuartelean jasaten ari zen inkomunikazio-egoera luzearen amaiera eskatzeko. Bilboko Zientzia Fakultatean ere zenbait etenaldi egin ziren, gaztea bertan matrikulatuta baitzegoen, lehen mailan.

Urtarrilaren 28a. Bi hilabeteko salbuespen-egoera dekretatu zen espainiar estatu osoan. Bertan behera geratu ziren Espainiarren Foruko 15. eta 18. artikulatuak, korrespondentzia- eta etxebizitza-urraketei eta atxilotuak 72 ordu baino gehiago polizia-etxe eta kuarteletan edukitzeari buruzkoak.

Otsailaren 14a. Greba orokorra egin zen Elgoibarren, Aitor Argarateri elkartasuna adierazteko; greba horrek “haren jaioterriko industria-jarduera osoa gelditu zen”⁶⁰. Hilaren 15ean, El Diario Vascok titular hau zekarren lehen orrialdean: “Erabateko etenaldia Elgoibarren”. Barnean, berriz, beste hau: “Elgoibartarrek Aitor Argarate gaztearen atxilotetari erantzun diote”. Testuak hau zioen: “Herria erabat geratu da; gizarte-baldintza guztietako jendeak erantzun du, inolako ñabardura politikorik gabe”. 1.500 pertsona bertaratu ziren elizaren barnean egin zen biltzar batera.

Otsailaren 15a. La Salveko Guardia Zibilaren kuartelean 21 egun igaro ondoren, Aitor Argarate Epelde xedapen judizialaren mende geratu zen, eta Basauriko espetxean sartu zuten. Han, kuartelean tortura “basatiak” jasan zituela adierazi zuen.

Martxoaren 10a eta 11. Greba orokorra deitu zen herrian, ETAko kide Sebastian Goikoetxea Mariezkurrena eta Nicolas Mendizabal Barandiaran hil zituztelako Itsason; greban protesta eta mobilizazio ugari egin ziren.

Abenduaren 14a. Goizeko 7:00etan, zenbait lagunek DKW furgoneta bat lapurtu zuten Basaurin, eta gidariari ahoa estali eta eskuak lotu ostean, hura furgonetaren barruan hartu eta Elgoibarreraino joan ziren. Severiano Ochoa Tobalina zen gidaria, 34 urtekoa.

Abenduaren 14a. Goizeko 9:00ak pasatxo zirela, aurpegia estalita zeramaten ETApam-ko bost kidek 265 eskopeta automatiko lapurtu zituzten Luis Santaolalla Lizundiak Antonio Arrillaga kalean zuen La Industrial Guipuzcoana (LIG) arma-dendatik. Lapurtutako furgonetako gidaria arma-dendako langileekin batera utzi zuten, eskuak lotuta, solairuarte batean. Furgoneta 13:00ean aurkitu zuten, hutsik eta ateak irekita, Azkoitirako errepide batean.

1978

Uztailaren 11 eta 12a. Protestak, etenaldiak eta biltzarrak egin ziren; lehenik, San Fermin jaietan German Rodriguez hil zutelako Nafarroako hiriburuan, eta, hurrengo egunean, Joseba Barandiaran hil zutelako Donostian. Biak ala biak Poliziak botatako tiroen ondorioz hil ziren.

Urriaren 9a. Arratsaldeko lehen orduan, Komando Autonomoek Ford Fiesta bat lapurtu zuten Eibarren, eta jabea lotuta utzi zuten, herritik gertu. Autoa geroxeago Elgoibarren atentatu bat egiteko erabili zuten, eta ondoren Markinan agertu zen.

⁶⁰ *El País*, 1977-01-16.

Urriaren 9a. 18:00ak aldera: 27 de septiembre Komando Autonomoek atentatu bat egin zuten, eta 40 urteko Anselmo Duran Vidal, Guardia Zibileko kabo lehena, hil zuten. Kaboa herritarrez jantzita Bernardo Ecenarro kalera ematen duten eskailerak jaisten ari zen, tren-geltokitik gertu, eta han hil zuten. Egileek ihes egin zuten, lapurtutako Ford Fiesta autoan. Biktima Elgoibarko anbulatorioan artatu zuten hasiera batean, baina Donostiako Arantzazu osasun-egoitzarako bidean hil zen. Zortzi bala jaso zituen.

Urriaren 9a. 20:45ak aldera, Anselmo Duran erail zuen atentatuaren ondoren, Guardia Zibilak zenbait kontrol jarri zituen Elgoibarrera sartzeko eta herritik irteteko errepideetan. Horietako bat San Migel gainean zegoen, Markinako aldean. ETAm-ko bi kide herri horretatik zetozen auto batean, ia hiru ordu lehenago Elgoibarren gertatu zenaren berririk izan gabe. Bat-batean topo egin zuten une horretan R-5 bat ikuskatzear zeuden kontroleko agenteekin. Tiroketa bat hasi zen, eta 20 urteko Angel Pacheco Pata guardia zibila hil zen, sabelean jasotako bi tiroen ondorioz.

Urriaren 10a. Goizeko 11:00etan, Anselmo Duranen hileta egin zen Donostiako Ospitale Militarreko kaperan. Amaieran, hilkutxa haren lankideek atera zuten sorbalda gainean. Beranduago, Gipuzkoako gobernadore zibila bere autoan sartzera zihoala, zenbait oihu entzun ziren, “kanpora” esanez eta hura irainduz. Aldi berean, Angel Pacheco Pataren hileta-elizkizuna egin zen Bilboko La Salve kuartelean. Guardiaren aita, 30 urtez guardia zibila izandakoa, ekitaldian zegoen, eta honela esan zien bertan zeuden agintariei: “Odol gehiegi isuri da dagoeneko, azkenekoa izan dadila”⁶¹.

Urriaren 10a. 20:00etan, PCE-EPKk deitutako manifestazioa egin zen Eibarren, aurreko egunean Elgoibarren gertatutako bi hilketen harira. Manifestazioaren hasierako pankartan hau irakur zitekeen: “Askatasuna, Demokrazia”; eta jendeak “Terrorismorik ez, Konstituzioa bai” oihukatzen zuen. Beste jende multzo batek manifestazioari atzetik jarraitu zion Dos de Mayo kaletik, txistu eginez eta poliziarik ez zutela nahi oihukatuz, ezta Partidu Komunistakoa bazen ere. Ibilbidea Unzaga plazan amaitu zen, bestelako gorabeherarik gabe.

Urriaren 10a. Iluntzean, EAJk manifestazio bat iragarri zuen hilaren 28rako, Bilbon. Manifestazioa bakearen alde eta indarkeriaren kontra izango zen, bizitzaren goreneko balioa modu bortitz eta ulertezinean gutxietsi zuten gertakari berrien harira.

Urriaren 11. AP, DCV, ORT, PC, PSE-PSOE eta UCDk hilaren 28rako manifestazioaren deialdia babestu zuten. Horren kontra agertu ziren EIA, EMK, HASI, LAIA eta LKI. Ordena Publikoko Indarretako kideen ematez osaturiko talde batek adierazpen bat argitaratu zuten, eta bertan EAJri eskatu zioten manifestazioaren deialdia atzera botatzeko, honako arrazoi honengatik: “ez dugu onartzen gure gertuko heriotzak erabiltzea publizitate politikoa egiteko. Ez dugu inolako errukirik nahi eta behin betiko konponbidea eskatzen dugu”⁶². Nahiago zuten agintariei errudunak identifikatzen laguntzea.

Urriaren 28a. EAJk deituta, eta alderdi politiko ugariaren babesarekin, manifestazio jendetsua egin zen Bilbon, goiburu honekin: “Euzkadi askatu ta paketsu baten alde / Por una Euskadi libre y en paz”. Bertaratuek bakea eskatzen zuten eta indarkeriari aurka egin nahi zioten. Bestalde, poliziak eraso egin zien HBk deituriko beste manifestazio batean parte hartzen ari zirenei, “Atzoko eta gaurko gudarien alde” goiburupean. Hainbat atxilotu eta zauritu izan ziren.

⁶¹ *El Diario Vasco*, 1978-10-11.

⁶² *Egin eta El Diario Vasco*, 1978-10-12.

7.3. KONSTITUZIOAREN ONDOREN

1979ko apirilaren 3an, Errepublikatik lehen aldiz, hauteskundeak egin ziren udaletarako, Batzar Nagusietarako eta Foru Parlamenturako. Urte horretako urriaren 25ean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Autonomia Estatutua onartu zen, erreferendum bidez, eta 1980an lehenengo hauteskunde autonomikoak egin ziren. 1981eko otsailaren 23an estatu-kolpe bat egon zen, baina, militarrek Espainiako Parlamentua hartu bazuten ere, ez zitzairen nahi bezala irten. Hil berean, 1981eko otsailean, HB eta LAIAko hautetsiek “Eusko Gudariak” abestu zuten erregearen aurrean, Gernikako Batzar Etxean. Bi egunera, ETAk Jose Maria Ryan Estrada hil zuen, Lemoizko zentral nuklearreko ingeniari burua, astebetetzahituta eduki ostean. Greba orokorra egin zen, hori salatzeko. Hurrengo astean, ETAko militante Joseba Arregi Izagirre hil zen Carabanchelen, Madrilgo Segurtasun Zuzendaritza Nagusian jasandako torturen ondorioz. Greba orokorra egin zen, hori salatzeko. Eta zorigaiztoko hilabete hari amaiera emateko, otsailak 23ko estatu-kolpea gertatu zen. 1982an, PSOEk hauteskunde orokorrak irabazi zituen Espainiar estatuan. 1983 eta 1987 artean, GALEk 27 pertsona hil zituen. 2010era arte, ETAk 800 pertsona baino gehiago hil zituen. 2011n, “jarduera armatuaren behin betiko amaiera” iragarri zuen.

1979

Urtarrilaren 23a. Poliziak Jone Etxabe Garitazelaia herriko irakaslea atxilotu zuen, baina kargurik gabe askatu zuten.

Otsailaren 4a. Poliziak haren anaia Jon Etxabe Garitazelaia atxilotu zuen Gasteizen. Espetxeratu egin zuten. Lehenago ere espetxeratuta egon zen eta 1977ko amnistiarekin libre geratu zen.

Otsailaren 19a. ETApn-ren komando batek, Arnaldo Otegi tartean, Gasteizko Michelinen fabrikako zuzendari Luis Abaitua Palacios bahitu zuen. Bahituta eduki zuten hilaren 28ra arte, Elgoibartik gertuko mendi batean egindako zulo batean.

Martxoaren 17a. Poliziak Mari Juli Arregi Gorrotxategi, Gemma Jayo Bustundui, Rosa Martinez Goikoetxea eta Luis Juaristi Santos atxilotu zituen, ETApn-ko kide izatea leporatuta. Espetxeratuak izan ziren. Torturak salatu zituzten.

Martxoaren 19a. Guardia Zibilak tiroz zauritu zituen Diego Plata Doncel, Francisco Fernandez Gonzalez eta Daniel Campello Tejeiro gazteak, Pelouse diskotekatik atera eta beren etxeetara autoz zihoazela. Tiroz erasotako autoan beste bidaiari bat ere bazihoan, baina ez zuen zauririk izan. Zaurituen bertsioa eta Guardia Zibilaren Komandantziarena ez zetozen bat; azken horren arabera, gazteek ez zuten autoa gelditu guardia zibilek hala eskatutakoan, eta horregatik tirokatu zituzten. Gazteek, ordea, esan zuten ez zutela guardia zibilik ikusi ez entzun; balen inpaktua baino ez zuten sentitu. Azkenean jakin zen tiroak kuarteletik bertatik egin zituztela⁶³.

Martxoaren 20a. Guardia Zibilaren jokabidearen eta atxiloketen aurkako manifestazioa. Aurreko batzarrean erabaki zen greba orokor bat deitzea hurrengo egunerako, eta EAJk, HBk, UGTk eta LABek babestu zuten, besteak beste. Erasotako ibilgailua Foruen plazan aparkatu zuten, eta bala-inpaktu ugari zituela ikus zitekeen.

Martxoaren 21a. Greba orokorra egin zen udalerrian, Guardia Zibilak martxoaren 19an izandako jokabidearen eta atxiloketen aurka. Hau irakur zitekeen El Diario Vascoren lehen orrialdean: “Elgoibar erabat gelditu zen atzo”. Mila pertsona baino gehiago batzar bat egiten saiatu ziren plazan, baina

⁶³ *El Diario Vasco*, 1979-03-22.

ordena publikoko indarrek eragotzi zieten (goizean egin ahal izan zuten). Herriko beste leku batean manifestazio bati ekin zioten, baina hori ere geldiarazi egin zuen Guardia Zibilak. Norbaitek molotov koktel bat bota zuen Land Rover baten kontra, baina ez zuen kalterik eragin.

Irailaren 2a. Manifestazioa egin zen Elgoibarren, aurreko egunean iheslarien aldeko ekitaldi batean hainbat hautetsiri emandako jipoiaren aurka protestatzeko. Hain zuzen, Poliziak Iñaki Kijera Zelarain gaztea (18 urte) hil zuen Donostian, eta Lisardo Cano Calvo (16 urte) balaz zauritu zuen. Manifestazioa Merkatu plazatik gertu zegoela, lau guardia zibil atera ziren ostalaritza-establezimendu batetik, herritarrez jantzita eta pistola eskuan, eta lau tiro egin zituzten airera. Berehalakoan desegin zuten manifestazioa eta izua zabaldu zuten Elgoibarko kaleetan.

Irailaren 3a. Udalerriko Udalbatzak, ezohiko bilkuran eta Luis Arrieta Barrenechea alkate-udalburu zela, aho batez erabaki zuen, beste puntu batzuen artean, honako hau:

Probintziako gobernadore zibilak dimititzeko eta ordena publikoko indarrak Euskaditik ateratzeko eskatzea, Donostian esku hartu duten ordena publikoko indarretako agintariei erantzukizunak eskatzea eta ikerketa bat irekitzea, horretarako batzorde bat eratuta, atzo Elgoibarren gertatutakoak argitzeko eta dagozkion neurriak hartzeko.

Irailaren 5a. El Diario Vascok, lehen orrialde osoa hartuz, erreferentzia egin zion euskal lurralde osoan hiru egunez iheslarien aldeko mobilizazioetan gertatutako indarkeriari; titulu eta aurretitulu hauek argitaratu zituen: “Lasaitzeko deialdia eta gaitzespen orokorra ordena publikoko indarrei. Hau da hiru egun hauetako balantzea: hildako bat, balaz larriki zauritutako bat eta ekintza bandaliko ugari”.

Irailaren 6a. Euskal Iraultzarako Alderdiko (EIA) Juan Jose Bastarrika eta Juan Jose Bengoetxea atxilotu zituzten.

Irailaren 27a. Zenbait “inkontrolatuk” Jose Osoro Loiola preso ohiaren autoa erre zuten.

Urriaren 31. Poliziak Arantzazu Berasaluze Sanmartin, Anselmo Salazar Molinuevo eta Jose Antonio Blanco Perez atxilotu zituen, ETArekin lotura zutela leporatuta. Espetxeratu egin zituzten.

Azaroaren 21a. Guardia Zibilak Jesus Mari Garaialde Muguerza, Josu Esnaola Aranguren eta Jon Suarez Barrutia atxilotu zituen; lehenengoa espetxeratu egin zuten, ETApn-rekin lotura zuela leporatuta, eta bigarrenak torturak salatu zituen. Azkeneko biak aske utzi zituzten.

Azaroaren 26a. Arantza Iriondo Zulaika atxilotu zuten.

1980

Urtarrilaren 18a. Poliziak bi hauek atxilotu zituen Gasteizen, ETApn-rekin lotura zutelakoan: Manuel Beraza Felones eta Jose Mari Juaristi Gabilondo. Espetxeratu egin zituzten. Lehenengoak behintzat torturak salatu zituen. Aldi berean, aske utzi zituzten Jose Luis Agirregomezkorta, Iñaki Oñederra Egaña eta Jose Javier Noguero.

Maiatzaren 12a. 20:00etan, hainbat lagunek autoa, Seat 131 bat, lapurtu zioten Javier Estartari, Elgoibarko Foruen plazan. Autoa Azkarateko gainean aurkitu zuten hurrengo eguneko eguerdian.

Maiatzaren 12a. 21:15ak aldera, Azkoitiko zinegotzi ohi eta Zentro Demokratikoaren Batasuneko (UCD) kide Ramon Baglietto Martinez (42 urte), Elgoibarko Urruzuno kalean altzari-denda bat zuena, erail zuen ETAm-k Azkarateko gainean, Azkoitia eta Elgoibar arteko errepidean, Elgoibartik hiru kilometrora.

Maiatzaren 13a. Ezohiko bilkura egin zen Azkoitiko Udalean; bertako zinegotzi izana zen Ramon Baglietto. Udalbatzan ordezkaritza zuten alderdi guztiek (APA, EKA, HB, EAJ eta PSOE), aho batez, dolua agertu zioten familiari eta gertukoei, eta adierazpen hau egin zuten indarkeriari buruz:

Adierazi nahi dugu herriak demokratikoki aukeratutako udal hau osatzen duten erakundeek beste behin ere kondenatzen dutela bizi dugun indarkeria-giro hau, eta eskatzen dutela behin betiko amaitu dadila; horretarako, gure herrialdea berreraikitze bide politikoak hartu behar dira kaosean erori eta behea jo aurretik, atzera egiteko aukerarik gabe geratu aurretik.

Maiatzaren 14a. Azkoitian hileta egin ostean, Ramon Bagliettoaren gorpua zeraman hilkutxa Eibarko hilerria eraman zuten, han lurperatzeko.

Urriaren 23a. Goizean, Komando Autonomoetako zenbait kidek pertsona bat harrapatu zuten eta ibilgailua lapurtu zioten. Biktima ahoa estalita eta zuhaitz bati lotuta utzi zuten, San Pedro auzoan.

Urriaren 23a. 14:40ak aldera, Komando Autonomo Antikapalistek Jaime Arrese Arizmendiarrera (43 urte) hil zuten, udalerriko alkate ohia eta Zentro Demokratikoaren Batasuneko (UCD) probintzia-zuzendaritzako kidea. Hilketa Iriondo tabernaren barruan gertatu zen. Egun berean, Komando Autonomoek Juan Manuel Garcia Cordero hil zuten, Donostian; eta ETAm-k Felipe Extremiana Unanue, Amorebietan. Komando Autonomoek hilaren 27an hartu zuten beren gain Jaime Arreseren kontrako atentatuta, eta esan zuten “alderdi horrek irudikatzen dituela hobekien gaur egun kapitala eta Estatu”⁶⁴.

Urriaren 23a. Iluntzean, Elgoibarko Udalbatzak ezohiko bilkura egin zuen; Jose Maria Oruesagasti Soralue izan zen buru, Luis Arrieta alkatea kanpoan baitzegoen, lan-kontuak zirela eta. Onetsi zuten, besteak beste, Jaime Arreseren erailketa gaitzestea, eta dolu-eguna deitu zuten udalerrian, hurrengo egunerako.

Urriaren 24a. Sigma itxita egon zen arratsaldean, baita beste zenbait establezimendu eta enpresa ere, dolu-adierazpen gisa.

Urriaren 24a. 19:00etan, Jaime Arreseren hileta izan zen, San Bartolome parrokian, eta Espainiako Gobernuko eta UCD eta PSOE alderdien zuzendaritzetako goi-karguak bertaratu ziren. Elizkizuna amaitutakoan, senideak eta UCDko kideak hilerri-raino joan ziren, hilkutxarekin batera. Milaka pertsonak manifestazio isila egin zuten Elgoibarko kaleetan, EAJk, PSE-PSOE eta PCE-EPKk deituta.

Azaroaren 17a. 23:00ak aldera, sei guardia zibil, herrian ezagunak, San Frantzisko kaleko pubean sartu ziren beren armak erakutsiz, eta bezeroei establezimendutik ateratzeko agindu zieten, “dolu-eguna zelako” (Eibarren ETAm-k Juan Garcia Leon guardia zibila hil zuen, 21 urtekoa, eta larriki zauritu zituen beste bi agente. Aurreko egunean, azaroaren 3an, ETAm-k lau agente eta zibil bat hil zituen Zarautzen). Ondoren kalera irten ziren eta hainbat tiro-segida bota zituzten, bakoitza bost tirokoa. Guardia zibil gehiago etorri ziren, uniformeaz eta herritarrez jantzita, eta herritar askok ihes egin zuten, izututa, inguruko kaleetatik.

⁶⁴ *EI País*, 1980-11-28.

Ordurako, jende asko aterata zegoen tabernetatik, elkarteetatik eta beren etxeetatik, gertakariak ikaratuta, eta 40 pertsona inguru bildu ziren Magdalenan. Kuarteletik zetozen guardiak, bertara iritsitakoan, tiroka hasi ziren eta jendea hainbat norabidetan korrika hasi zen, guardia zibilak atzetik zituztela. Tiroak entzun zituztenean, pubean zeuden guardiak, herritarrez jantzitakoak, bat egin zuten gainerakoekin, pistola eskuan. Oscar Ondarza elgoibartarra Orense tabernan zegoen, Magdalenatik gertu, lagun batzuekin; lehenengo bi tiro-segidak entzun zituztenean kalera atera zen, Magdalena aldera. Guardiak bertara iritsi eta tiroka hasi zirenean, Pedro Muguruza etorbidean barrena joan zen, korrika, eta aparkatuta zegoen auto baten ondoan babestu zen; hantxe bertan, bala baten inpaktua jaso zuen, eskuineko izterrean. Guardia zibilek (...), tiro egiteaz gain, oinezkoak miatu ere egin omen zituzten, eskuak jasota eta hormari begira jarrita; eta bertatik igarotzen ziren ibilgailuak erregistratzen ere aritu ziren⁶⁵.

Hain zuzen ere, Oscar Luis Ondarza gaztea, 20 urtekoa, balaz zauritu zuten izter batean, eta Donostian ospitaleratu zuten. Eztrandak entzun zituztenean auto baten ondoan babestu zuen bere burua, eta han zegoela atxilotu eta tiro egin zioten, Magdalena inguruan (Maala). El País-ek hau gehitu zuen: “lekukoek diote guardia zibilek, herritarrez nahiz uniformeaz jantzita, oinezkoak miatu zituztela eta bikote bat atxilotu zutela, autoan Euskal Herriko gaiari buruzko liburu bat zutelako; kuartelera eraman zituzten”⁶⁶. Eginek titular indartsua argitaratu zuen hurrengo egunean: “Guardia Zibilak Elgoibarko herritarrei tiro egin die”⁶⁷. Askoren harridurarako, Oscar Ondarza bakartu egin zuten eta terrorismoaren aurkako legeria ezarri zioten, baina aurrerago aske utzi zuten, epailearen aurretik igaro behar izan gabe.

Azaroaren 18a. Udaleko lehenengo alkateorde Jose Maria Oruesagasti Gipuzkoako gobernadore zibilarekin harremanetan jartzen edo biltzen saiatu zen, eta hark erantzun zion hilaren 24ra arte ezingo zuela berarekin elkartu. Udalak adierazi zuen gertatutakoa “ikuskizun lotsagarri eta bandalikoa”⁶⁸ izan zela, eta, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen osoko bilkuran: indarkeria gaitzestea bere forma guztietan, askatasuna eskatzea Oscar Ondarza gaztearentzat, gertakariei buruzko ikerketa bat irekitzea eta protestatzeko manifestazio bat egitea osoko bilkuraren ostean, Udalbatzako kideak buruan jarrita. Ehunka pertsonak hartu zuten parte manifestazioan, gertatukoaren aurka protesta egiteko. Aurreko gauean zenbatutako tiroak ehun baino gehiago izan zirela jakinarazi zen, eta aparkatutako zortzi ibilgailuk guardia zibilen balen inpaktua jaso zutela. Batzuek esan zuten ETAm-k goiz horretan egindako heriotza-atentatuarengatik “zigorra izan zela, errepresalia gisa”⁶⁹.

Azaroaren 19a. EAJko diputatu Joseba Azkarragak esan zuen Guardia Zibilak Elgoibarren izandako jarrera “bandalikoa” izan zela.

Abenduaren 23a. ETAm-k atentatua egin zuen Iberduerok herrian zituen instalazio elektrikoaren aurka, Lemoizko zentral nuklearraren aurka egiten ari zen kanpainaren barnean.

⁶⁵ BANDRÉS MOLET, Juan María. EEko diputatua eta Talde Mistoko kidea Diputatuen Kongresuan. 1980ko azaroaren 24an erregistratutako eta 1980-12-23ko Gorte Nagusietako Aldizkari Ofizialean argitaratutako galdera.

⁶⁶ *El País*, 1980-11-20.

⁶⁷ Euskadi 1977-1982. *Eginen urtekaria*, 96. or.

⁶⁸ *El País*, 1980-11-20; eta Juan Mari Bandresen galdera Diputatuen Kongresuan.

⁶⁹ ARRIOLA, Justo (2016). *A los pies del caballo*. Tafalla: Txalaparta, 447. or. Egilearen arabera, bere etxera babes bila sartu zen gazte batek ikusi omen zuen agintariak hau esan ziola zer gertatzen ari zen ikustera gerturatu zen *El Diario Vasco*ko korrespontsal bati: “Eta zu, kontuz ibili, ea zer argitaratzen duzun bihar egunkarian”.

1981

Apirilaren 5a. Antonio Perez Fernandez guardia zibila, 25 urtekoa eta bi seme-alabaren aita, balaz zauritu zuten ezkerreko izterrean, kuarteletik gertu. Agenteak denbora gutxi zeraman Elgoibarko kuartelean. Hedabide batzuek esan zutenez, gertakariaren lekuan “ETAren adar militarrek erabili ohi dituen”⁷⁰ balen zorroak agertu ziren. Beste batzuetan, ordea, ez zuten argi ikusten ezta atentatu bat zenik ere, “ustezkoa atentatua” eta “modu arraroan zauritua”⁷¹ bezalako adierazpenak erabiliz. ETak ez zuen atentatua bere gain hartu inoiz⁷².

Abuztuaren 28a. ETAm-k beste atentatu bat egin zuen Iberduerok herrian zituen transformadore eta aginte-panel banaren aurka.

Abenduaren 31. ETAm-k atentatua egin zuen Mendaro-Elgoibar lineako eroanbide elektrikoko dorretxo baten aurka.

1982

Urtarrilaren 15a. Barrikadak eta errepide-mozketak egin ziren gose-greban zeuden Yaserías eta Puertoko espetxeetako presoen aldeko elkartasuna adierazteko; ordena publikoko indarrek esku hartu zuten.

Ekainaren 20a. Goizaldeko ordu batean, ETAm-k ezin erabiltzeko moduan utzi zuen Iberdueroko banaketa elektrikoko azpiestazioan, San Roke auzoan, zeuden hiru transformadoreetako bat; Goma-2z eginiko lehergailu bat erabili zuen horretarako. Eztandaren ondoren, suak hartu zuen, eta Elgoibar eta Eibarko suhiltzaileek bertaratu behar izan zuten itzaltzeko. Gertuko baserri bateko leihotako kristalak hautsi egin ziren eztandaren ondorioz. Milaka pertsona hornidura elektrikorik gabe geratu ziren Debaren arroan, sei orduz.

Irailaren 8a. Poliziak Arrate Arrillaga Alonso atxilotu zuen Gasteizen, baina gero aske utzi zuten, epailearen aurretik igaro behar izan gabe. Torturak salatu zituen.

Azaroaren 25a. ETAm-k potentzia txikiko bonba bat jarri zuen goizaldean Pedro Miguel de Urruzuno kaleko Guipuzcoano bankuaren sukurtsalean. Bankuko beirak eta inguruko etxebizitzak leihotako kristal asko hautsi ziren.

Abenduaren 31. Guardia Zibilak Iñaki Odriozola Sustaeta atxilotu zuen Donezteben, ETApn-k egindako Saturnino Orbegozo industrialariaren bahiketan parte hartzeagatik. Espetxeratu egin zuten eta torturak salatu zituen.

1983

Otsailaren 23a. Frantziako Poliziak Arnaldo Otegi Mondragon atxilotu zuen, baina epaileak aske uztea erabaki zuen.

Otsailaren 24a. ETAm-k beste atentatu bat egin zuen, lehergailu batekin, Miguel de Urruzuno kaleko Guipuzcoano bankuaren sukurtsalean. Herriko Udaltzaingora deitu zuten lehenengo, eta ez zen kalte

⁷⁰ *El País*, 1981-04-07.

⁷¹ *Eginen* “Euskadi 1977-1982”.

⁷² ETak ez zuen bere gain hartu, ez gertakariaren ondorengo egunetan ezta 2004ko otsailean *Zuzen 79an* argitaratutako historian zehar egindako atentatuen zerrendan ere (*VascoPress* agentziak argitaratu zuen 2004-08-30eko “Crónica” monografikoan).

pertsonalik egon. Inguruko etxeetako hainbat kristal hautsi ziren, eta kalteak egon ziren erakunderako sarreran.

Martxoa. 1997an Polizia Nazionaleko sindikalistek salatu zuten, askotan kritikatu zuten kidego horren eta Guardia Zibilaren arteko koordinaziorik eza, baita horien eta Ertzaintzako unitateen artekoa ere; horrek, kasu batuetan, muturreko egoerak eragin ditu⁷³. Hala, esaterako, 1983ko martxoan, Guardia Zibilaren patruila batek herritarrez jantzitako hainbat ertzain armapean jarri zituen Azkarateko gainean, gaizkileak edo terroristak zirelakoan.

Apirilaren 19a. ETako lau kide bonba bat manipulatzeko ari zirela, lehertu egin zitzairen ibilgailu baten barnean, Arrasaten, dirudienez goma-2a egoera txarrean zegoelako. Bi hil egin ziren: Felix Badiola Etxaburu (24 urte) eta Jose Antonio Garate Askasibar (24 urte); azken hori Elgoibarko baserri batekoa zen jaiotzez, baina 7 urtetatik Eibarren bizi zen. Larriki zauritu ziren Jose Luis Herrera eta Agustín Sarasketa.

Maiatzaren 18a. Guardia Zibilak Jose Manuel Unanue Sorasu atxilotu zuen Itzietan. Torturak salatu zituen.

Ekainaren 11. ETAm-k bonba bat jarri zuen Banco de Vizcayaren sukurtsaleko leihoetako batean, Foruen plazan, baina Ego ibaira ematen duen atzeko atean, Txankakua zubitik gertu. Kalte materialak txikiak izan ziren.

Uztailaren 4a. Koldo Juaristi atxilotu zuten, ETApn-rekin lotura izateagatik.

1984

Urtarrilaren 11. ETAm-k bi bonba jarri zituen urte hasieran: bat Banco de Vizcayaren sukurtsalean eta bestea Banco de Santanderrean.

Martxoaren 15a. 10:00ak aldera, Elgoibarko gazte bat (bere izena ez emateko eskatu zuen), R-6 baten jabea, bi lagunek harrapatu zuten Elgoibarren, eta autoa kendu zioten. Kate bidez zuhaitz bati lotuta utzi zuten, Azkarateko gainetik gertu, eta bere ibilgailua eraman zuten. Baserritar batek lagundu zion askatzen.

Martxoaren 15a. 12:00ak aldera, lapurtutako autoarekin Alzolaraino joan ziren Komando Autonomoetako (CCAA) bi kide; han, lehergailu bat jarri zuten autopistako ordainlekuko kabina batean, eta txikituta utzi zuten. Handik 20 minutura, beste lehergailu batek eztanda egin zuen hortik ehunka metrora, Gasteiz-Ondarroa errepidean, eta bi ibilgailuri eragin zien. Lehenengoan Azkoitiko herritar bat, Diego Rodríguez Penas, eta Isaac Gutiérrez Pérez guardia zibila, 20 urtekoa, zihoazen. Biak harrapatu zituen metrailak. Agenteari ebakuntza egin zioten Donostiako Poliklinikan, eskuineko hankan tibia eta peroneko haustura irekia zuelako, eta Azkoitiko herritarra aurpegian zituen ebakiengatik artatu zuten. Bigarren ibilgailuan Ramon Murillo Pavo arrasatearra zihoan; metrailak bi begietan eta aurpegian eragin zizkion zauriak, eta arratsaldean eman zioten alta Debagoieneko Ospitalean. Dirudienez, Komando Autonomoen jomuga lehenengo ibilgailua zen.

Apirilaren 24a. Frantziako Poliziak Iñaki Alberdi Urkia atxilotu zuen Biarritzen, eta espetxeratu egin zuten.

⁷³ *El País*, 1997-03-01.

Ekainaren 30a. Polizia Nazionalak Pedro Mari Mendizabal atxilotu zuen Donostian. Espetxeratu egin zuten.

Urriaren 9a. N-634 errepideko arekan, Maltzagako bidegurutzean, jarritako bonba batek eztanda egin zuen Poliziaren ibilgailu bat bertatik igarotzean; NANaren zerbitzuko bi funtzionario zihoazen bertan, Josefa Pimentel Muñoz eta Nieves Amigo Redondo, eta biek ala biek zauri arinak izan zituzten aurpegian, baita ibilgailua gidatzen zihoan Jose Rubio Charko polizia nazionalak ere. Elgoibartik Eibarrera zihoazen, Polizia Nazionalaren bi furgonetaren eskoltapean. Bi emakumeak Eibarko Gurutze Gorrian artatu zituzten. Atentatuaren egileek erabilitako autoa pixka bat lehenago lapurtu zioten Jose Maria Alvarez Cid-i, pistola erabiliz, Ermuan. ETAm-k bere gain hartu zuen atentatua.

Azaroaren 6a. Polizia Nazionalak Teresa Iranzo atxilotu zuen. Gero aske geratu zen, epailearen aurretik igaro gabe.

Azaroaren 27a. Poliziak sarekada egin zuen Elgoibarren. Mikel Alberdi, Juan Ignacio Iriondo Garate eta Iñaki Jaio Bustundui atxilotu zituzten, ETAm-ren komando bateko kide izatea leporatuta. Azkenekoa ihes egiten saiatu zen, hirugarren solairuko balkoitik salto eginda, baina Poliziak tiroz zauritu zuen. Torturak salatu zituzten. Horiez gain, Iñaki Basurto Lopez de Abetxuko, Juan Bautista Izagirre Bernedo (torturaren ondoriozko arrastoak geratu zitzaizkion), Eduardo Sanchez eta Fernando Salegi aske geratu ziren epaiketa egin bitartean, fidantza ordainduta. Juan Jose Garate, Jesus Mari Iriondo (Juan Ignacioren anaia) eta Adosindo Cid aske geratu ziren, epailearen aurretik igaro behar izan gabe. Bestalde, Sebastian Etxaniz Alkortak eta Jesus Mari Larizek sarekadatik ihes egitea lortu zuten; dena den, azken hori espetxeratuta dago txosten hau idazteko unean.

Azaroaren 29a. Polizia Nazionalak Jose Julian Agirre Osoro atxilotu zuen, aurreko atxiloketekin lotuta. Espetxeratu egin zuten. Torturak salatu zituen.

Abenduaren 5a. Frantziako Poliziak berriz atxilotu zuen Arnaldo Otegi Mondragon, oraingoan Baionan. Gero aske geratu zen, epailearen aurretik igaro gabe.

1985

Abuztuaren 4a. Eguerdian, ETAk Jose Exposito Afan hil zuen Magdalena plazan, garondoan tiro eginda; 62 urte eta lau seme-alaba zituen. Exposito Afan guardia zibila zen eta erreserba aktiboan zegoen, eta berak ematen zituen arma-baimenak herrian. Aguilar de la Fronterakoa zen (Kordoba) eta 30 urte baino gehiago zeramatzan Euskal Herrian.

Abuztuaren 4a. Iluntzean, Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutako manifestazioaren deialdiari bere horretan eutsi zitzaion. Manifestazioaren helburua zen bi egun lehenago gertatutako ETako kide Juan Mari Otegi Elizegiren (43 urte) erailketa salatzea. GALEk hil zuten, tiroz, Askaraten, Donibane Garazi ondoan (Nafarroa Beherea). Libertad Digital eta Vidas Rotas-en arabera, “bostehun pertsona inguru” izan ziren manifestazioan.

Abuztuaren 5a. Egunean zehar, ehunka esku-orri zuri eta berde banatu eta haizeratu ziren Elgoibar eta Eibarko hainbat puntutan; honako mezu hau zuten: “Lurralde honetan terroristak bakarrik dauden sobera”, eta jarraian “alde hemendik”.

Abuztuaren 5a. 19:00etan, Lucio Beitia alkateak eta EAJ-PNV alderdiaren tokiko batzarrak deituta, ehunka pertsona bertaratu ziren Jose Exposito Afanen hiletara, San Bartolome parrokian. Deialdian adierazi zuten biktima “besteak bezalako herritarra” zela. Triakornioa eta Espainiako bandera jarri zituzten hilkutxaren gainean, eta biktimaren senideek sartu zuten elizan, Guardia Zibileko eta Poliziako unitateen aurrean. Carlos Aguirre parrokoak hau esan zuen sermoian:

Jose Exposito Afan bizitzaz beteriko gizona zen; noiz edo noiz hitz egin nuen harekin gure herrian kezka sorrarazten duten gaiei buruz, eta esan dezaket, haren borondateak eta fede kristauak bultzatuta, bizikidetzaren eta elkarriketaren alde agertzen zela beti. Elkarriketara eta elkarrenganako errespetura iritsi behar dugu; batzuk eta besteak bereizten gaituzten barrerak gainditu behar ditugu, eta hilketak arbuia. Heriotza honek parrokia-komunitate osoari eragiten dio, baita Elgoibar osoari ere, bertako herritar bat indarkeriaz kendu baitigute. Hiltzen duen eskuak ez du ezer eraikitzen, eta maitatzen ez duen bihotzak ez du ezer sortzen⁷⁴.

Irailaren 12a. Guardia Zibilak Jesus Mari Iriondo eta Arrate eta Jose Mari Juaristi Gabilondo anai-arrebak atxilotu zituen Elgoibarren; hirurak aske geratu ziren, epailearen aurretik igaro gabe. Mendaron, berriz, Kontxi Uriain atxilotu zuten.

Irailaren 27a. Elgoibarren piketeak egin ziren, nahiz eta haien presentzia eta eragina ez zen kasu guztietan berdina izan, GALEk ETAm-ko lau kideren aurka egindako atentatuaren kontra protestatzeko greba-deialdiaren harira. Atentatua hilaren 25eko gauean gertatu zen, Baionako Monbar tabernan.

Urriaren 1a. Poliziak Karmele Olano eta Sebastian Elizburu atxilotu zituen, ETArekin lotura zutela leporatuta. Azken horrek behintzat torturak salatu zituen. Horiez gain, Iñaki San Martin eta Aitor Basurto Lopez de Abetxuko (1984an atxilotutako Iñakiren anaia) atxilotu zituzten, baina aske utzi zituzten galdeketen ostean.

Urriaren 20a. Eva Cuesta Trula atxilotu zuten, eta torturak salatu zituen.

1986

Otsailaren 19a. Guardia Zibilak hiru gazte atxilotu zituen Elgoibarren. Ermuko kuartelera eraman zituzten, gero Antiguoko kuartelera eta, ondoren, Intxaurrondokora. Azkenean aske utzi zituzten, “akats” bat izan zela esanez.

Abuztuaren 12a. Iñaki Alberdi Urkia atxilotu zuten Frantziako Marmande herrian, Komando Autonomoekin lotura zuela leporatuta. Espetxeratu egin zuten, eta irailaren 11n Espainiako Poliziaren esku utzi zuten. Torturak salatu zituen.

Abuztuaren 13a. Bi pertsona atxilotu zituzten, Espainiako bandera bat erretzea leporatuta.

Abuztuaren 18a. Hogeita hamar bat gaztek gaztetxea okupatu zuten. Guardia Zibilak Lucio Beitia alkatearen zerbitzura jarri zen Gaztetxearen ateraraztea gauzatzeko, baina honek ez zuen onartu.

⁷⁴ *El Diario Vasco*, 1985-08-06.

1987

Uztailaren 8a. Frantziako Poliziak Arnaldo Otegi Mondragon atxilotu zuen Hendaian; gero kanporatu egin zuten, premiazko administrazio-prozeduraren bidez eta Espainiako Poliziaren esku utzi zuten, Hendaia/Irunen. Handik Donostiako polizia-bulegoetara eraman zuten. Torturak salatu zituen.

Uztailaren 8a. Ehunka gaztek batzar bat eta manifestazio bat egin zituzten, Guass diskotekako zenbait atezainek bi gazte eraso zituztela salatzeke. Manifestazioko oihuak oso gogorrak ziren, drogarekiko aipamenak tarteko. Segurtasun-guardietako bat gaztetxera joan zen, eta gazteei jakinarazi zien armatuta zeudela; pistola eta sastakaia erakutsi zien.

Uztailaren 9a. Udaltzaingoko sarjentuaren aurkako pintadak agertu ziren herriko hormetan. Gaztetxearen eta Zazpiki Irratiaren kontra akusazio larriak egin izana leporatzen zioten, baita droga-trafikoa estaltzen ibiltzea etabar. Udaltzaingoko sarjentuak bost gazte salatu zituen irainengatik.

Uztailaren 9a. Autobus bat C-634 errepidean gurutzatuta geratu zen, Arnaldo Otegi Espainiako agintaritzen esku utzi izanaren aurkako manifestazioaren ondoren.

Urriaren 3a. Frantziako Poliziak Luis Maria Alkorta Maguregi atxilotu zuen sarekada batean, eta Espainiako agintarien esku utzi zuten premiazko prozedura bidez. Sarekada berean, hirurogei pertsona atxilotu zituzten eta ehunka etxebizitza eta lokal erregistratu zituzten. Hurrengo egunetan, Aljeria, Venezuela eta beste herrialde batzuetarako deportazioak hasi ziren. Ehun pertsona baino gehiago atxilotu zituzten Iparralden, eta Espainiako agintarien esku utzi zituzten hamar egunez.

Urriaren 7a. KASek borroka-eguna deitu zuen, entrega eta deportazioen aurka protesta egiteko. Elgoibarren, su-barrikadak jarri zituzten eta autobus bati su eman zioten, errepidean gurutzatuta jarri ondoren. Banco de Bilbaoko eta Banco Hispanoamericanoko sukurtsalak eraso zituzten, baita Renault-en kontzesionarioa ere, eta kristalak hautsita geratu ziren.

Abenduaren 11. Jose Luis Gomez Solis Guardia Zibileko sarjentuak (44 urte) atentatua jasan zuen eta hil egin zen; Soraluzeko Gila tabernatik irtetea izan zen, emaztea aurrean zuela, eta hark nerbio-krisialdia izan zuen bizitakoaren ondorioz. Emaztea DYAk artatu behar izan zuen, eta Jose Luis Gomezek hamalau tiro jaso zituen. Aldi berean, ETAk Zaragozako Guardia Zibilaren kuartel-etxea eraso zuen; han hamaika pertsona hil ziren, horietako bost neskatoak, eta berrogeita hamar bat zauritu egon ziren. Elgoibarko Udalak telegrama bat bidali zion Zaragozako Udalari, dolua agertzeko.

Abenduaren 12a. Hiletak egin ziren San Bartolome parrokia-elizan, eta Udalbatza osoa izan zen bertan. Jose Luis Gomezen lankideek sartu zuten hilkutxa elizara. Une jakin batean, publikoko pertsona batek elizkizuna egiten ari zen apaizaren sermoia eten zuen, eta ozen esan zion diskurtsoa hileta-elizkizunera muga zezala.

Abenduaren 13a. Hamabost minutuko kontzentrazio isila egin zen Elgoibarko Foruen plazan, Udalak aurreko eguneko ezohiko bilkuran deitua, Jose Luis Gomez Solisen erailketaren kontra protesta egiteko. Debabarreneko 300 pertsona inguru bertaratu ziren.

1988

Urtarrilaren 7a. Frantziako Poliziak Espainiako agintarien esku utzi zuen Mari Juli Arregi Gorrotxategi, Donibane Lohizunen atxilotu ostean.

Otsailaren 7a. Elgoibarko industrialari Sebastian Aizipiri Leyaristik publikoki hitz egin zuen droga-trafikoarekin erlazionatu zuten akusazio batzuei aurka egiteko, eta babeska eskatu zien Eibarko eta Elgoibarko udalbatzei. Bi udalek adierazi zuten faltsuak zirela Sebastian Aizipiriri buruz zabaldutako zurrumurruak.

Otsailaren 27a. Goizeko bostetan, Guardia Zibilak Udaleko bilkura-aretoan modu baketsuan giltzaperatutako zenbait kontzientzia-eragozle irtenarazi zituen. Metrailetaz irtenarazi zituzten, baina ez zen istilurik egon. Ekintza Gipuzkoako Koordinakunde Antimilitaristaren deialdi bati erantzunez gauzatu zuten.

Martxoaren 4a. Greba-deialdia egin zen Gipuzkoa mailan, Mikel Lopetegi Larrarte preso (33 urte) Herrera de la Manchako espetxean hil zelako protesta egiteko; institutuek eta Lanbide Heziketako ikastetxeek ere bat egin zuten. Grebak iraun zuen bitartea, errepide nagusiko trafikoa eten egin zuten, eta zenbait kamioi gurutzatu zituzten; ondorioz, Ertzaintzak manifestarien kontra eraso egin zuen. Renault-en kontzesionarioko beira hautsi egin zen, zenbait objektu jaurti zizkiotelako.

Maiatzaren 25a. Elgoibarren zuen harategia itxi ostean, Sebastian Aizipiri Leyaristik (38 urte) Eibarrerako bidea hartu zuen, bere jabetzako Chalcha jatetxera; alabaina, bidean, ETAko bi kidek hil egin zuten, buruan bi tiro emanda, Eibarko Arrate hotelaren ondoan. Sebastian Aizipiri elgoibartarra zen, baina Eibarren bizi zen. Gipuzkoako gobernadore zibil Jose Ramon Goñi Tirapuk jakinarazi zuenez, biktimari bi hilabete lehenago jakinarazi zioten bere izena eta bere mugimenduei buruzko zenbait datu ageri zirela ETaren jomuga izan zitezkeen zerrenda batean (atxiloketa batean eskuratu zuten zerrenda).

Maiatzaren 26a. Herriko Udalbatzak ezohiko bilkura egin zuen, premiaz, Jose Ignacio Elkoro-Iribe San Martin alkatea buru zela; bertan, EAJ/PNV, EA, PSE/PSOE eta EEren baterako mozio bat onetsi zuten, HBren abstentzioarekin, atentatua sendo gaitzesteko, familiari dolua adierazteko, herritarrak hiletara gonbidatzeko eta hamabost minutuko protesta isil baterako deialdia egiteko, hiletaren ondoren. Besteak beste, hau zioen mozioak:

Erantzun positiboa eman behar dugu indarkeriaren aurrean, pertsonalki nahiz kolektibo gisa; hala, beharrezkoa da zenbait balio, etika, bizitzeko eskubidea, askatasunerako eskubidea, desadostasunerako eskubidea eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea berrestea eta defendatzea⁷⁵.

Ezohiko bilkura baino lehen, Udalean bildu ziren AP, EA, EAJ/PNV, EE eta PSE-PSOE alderdiak eta CCOO eta UGT sindikatuak, eta hau azpimarratu zuten:

Erailketa egin duenak egin duela, adierazi nahi dugu erabat gaitzesten dugula halako modu bortitzean gizakiaren eskubide funtsezkoena, bizitzeko eskubidea, urratzen duten horien jarrera.

Egun horretan bertan, arratsaldean, HBk, KASEk eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak honako ohar hau argitaratu zuten:

⁷⁵ Elgoibarko Udalak 1988-05-26an hartutako erabakiaren 2. puntua.

Izugarri sentitzen dugu Sebastian Aizpiriren heriotza, beste hainbat kausengatik sortutako heriotza guztiak sentitzen ditugun moduan: errepresioa, erakundeen indarkeria, laneko segurtasunik eza, langabezia eta, noski, droga. Denok dakigu ez dela kasualitatea droga Euskadin sartu izana; historiak erakusten digu droga biztanleriaren sektore oldarkorrenak ahultzeko eta hausteko erabili izan dela beti, eta estatuek dirua erraz lortzeko prest dagoen jendearen laguntza izan dutela horretarako.

Sebastian Aizpiriren hileta San Bartolome parrokian izan zen, eta Eibar eta Elgoibarko Udalbatzetako kideak izan ziren bertan, beste milaka pertsonarekin batera. Eliza bete-betea zegoen, eta jende askok kanpoan geratu behar izan zuen. Elizkizunaren ondoren, kontzentrazio bat egin zen Foruen plazan, Elgoibarko Udalak eginiko deialdiari jarraituz. Ordu berean, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Elkartearen bere lehen protesta publikoa egin zuen Eibarren, isilean. Pankartan hau irakur zitekeen: “¿Qué hacemos por la paz? Zer egiten dugu pakearen alde?”.

Ekainaren 2a. Eibar eta Elgoibarko udalek deituta, Sebastian Aizpiriren hilketa gaitzesteko manifestazio isil bat atera zen Eibarko Unzaga plazatik, pankartan “Eibar eta Elgoibar ETaren kontra” jarrita. Ibilbidea amaitutakoan, Eibarko alkate eta PSE-PSOeko kide Aurora Bascaranek hitz batzuk esan zituen; adierazi zuen “garrantzitsua” dela pankartako goiburua nabarmentzea, “eslogan zuzena delako eta aitortu behar dugulako beldurtuta bizi garela”.

Ekainaren 6a. Manifestaziotik lau egunera, ETak Mapfre aseguru-enpresako langile eta Elgoibarko Guass diskotekaren jabeakide Francisco Javier Zabaleta Aizpitarte (42 urte) hil zuen, San Frantzisko kalean. Hilabete batzuk lehenago haren kontrako pintadak eta kartelak agertu ziren. Patxi Zabaleta herriko San Roke auzoan bizi zen.

Ekainaren 7a. Patxi Zabaletaren heriotza gaitzesteko premiaz deitutako Elgoibarko Udalaren ezohiko bilkuran, bertaratu ziren zenbaitek HBko zinegotziei oihu egin eta “ziniko” eta “borrero” deitu zieten, gainerako alderdi politikoek onetsitako mozioa bozkatzean abstenitu egin zirelako. Udalbatzak hiletara eta ondorengo kontzentrazio isilera joateko dei egin zuen, eta manifestazio baterako deialdia egin zuen, hilaren 11rako.

Ekainaren 7a. Patxi Zabaletaren hiletaren ondoren, kontzentrazio isila egin zen Foruen plazan, Udalbatzak deituta.

Ekainaren 9a eta 10a. Francisco Javier Zabaletaren familiak gezurtatu egin zuen ETak bi biktimen aurka egindako akusazioak, droga-trafikoarekin lotzen zituen; zehazki, gezurtatu egin zuen “droga banatzeko polizia-sareko agentea” zela⁷⁶. Mikel Larrañagak, Eibarko alkate ohi eta EAren bozeramaileak, bi biktimen laguna izanik, baieztatu zuen Patxi Zabaletak ETarekin hitzordua zuela hil zuten egunaren hurrengorako⁷⁷, eta, horrenbestez, ezin izan zuela bere burua defendatu.

Ekainaren 11. Milaka pertsona mobilizatu ziren Elgoibarko Udalak deitutako eta EA, EAJ-PNV, EE eta PSE-PSOEk deitutako manifestazioan, “Euskadi ETaren aurka / Euskadi contra ETA” pankartaren atzean. Euskal kargu publiko eta politikari ugari hartu zuten parte bertan. Gutxienez bi pertsonak herria utzi zuten ETaren beldur zirelako, droga-trafikatzaileak izateaz akusatzen zituzten mehatxuak jaso ostean.

HB drogaren aurka egiten ari den kanpaina gezurra da; iruzurra da eta begien bistan dago. (...) Herriaren salbatzaileztat dute euren burua, baina, benetan bakea nahi badute, jar ditzatela bitartekoak.

⁷⁶ *El País*, 1988-06-11.

⁷⁷ *El Diario Vasco*, 1988-06-10.

Hemen jaso ditugu ezohiko bilkuran irakurritako bi testuak, gogorrek direlako eta alderdien jarrerak eta bizi izandako uneak ondo islatzen dituztelako.

EAJ/PNVk, EAK, PSE/PSOE eta EEk osoko bilkuran aurkeztutako testutik	Herri Batasunako bi zinegotziek osoko bilkuran irakurritako idatzitik
<p>Ostegunean, hilaren 2an, ETAk Sebastian Aizpiriren aurka egindako erailketa zitalaren aurkako adierazpena egin genuen. Gaur, zoritxarrez, berriz ere bildu behar izan dugu, Patxi Zabaletaren erailketa lazgarriaren harira, eta zuek, etengabe askatasunen sistema hau salatzen duzenok, akusatzen zaituztegu; izan ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sistema honek heriotza-zigorra indargabetu zuen. - Sistema honek gertakariak eta erruduntasuna frogatzera behartzen gaitu. - Sistema honek denoi, zuei ere bai, abokatu bat eta defentsa bat bermatzen dizkigu, eta epaien aurkako errekursoak jartzeko aukera ematen digu. - Zuei ari gara, sentitzen duzuela esan baina erailketak gaitzesten ez dituzuelako. Esaguzue orain, non daude frogak, lekukoak, “beren epaiketetan” defendatu dituen abokatua? <p>Erail egin dituzue eta, orain, non aurkeztuko dugu epaiaren kontrako errekursoa?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zuei galdetzen dizuegu: nor izango da hurrengo epaitua? - Sentitzen duzuela esaten duzue, baina ez dituzue erailketa hauek gaitzesten, horregatik akusatzen zaituztegu. Zuek ere erantzule zarete. Zuek ere bai. (...) 	<p>Herri Batasunak adierazi nahi du asko sentitzen duela Patxi Zabaletaren heriotza, heriotza guztiak bezala. Atzo gauen egin zizkiguten akusazioen harira, esan behar dugu gainerako alderdiek “fariseu” hots egin zigutela; bada, esan behar dizuegu guk badakigula nor ari den bakearen alde borrokan eta nor oztopoak jartzen.</p> <p>Gure herrian, droga epidemia hilgarria da (7 edo 8 hildako).</p> <p>Guk badakigu, izen-abizenekin, nor diren horren errudunak: gobernadore zibila, Polizia eta alderdi politikoak. Izan ere, azken horiek ez dute epidemia horrekin amaitzeko ezer egiten, eta, beraz, arazoa estali egiten dute; gehienez ere, laguntza paternalistak eskaintzen dituzte, baina ez dute egoera horiek sorrazten dituzten jatorrira eta kausetara jotzen.</p> <p>Drogaren kontra eta gure herriko gazteriaren alde borroka egiteagatik hiltzaileak gairela esaten badiguzue, argi eduki drogaren arazoarekin amaitzeko borrokan jarraituko dugula.</p> <p>HBk bakea nahi du, baina bake duina, benetako bakea, herri honi den bezalakoa izaten utziko diona. (...) Orain eta hemen, bakearen alde borroka egitea negoziazioaren alde borroka egitea da. (...)</p>

Ekainaren 23a. Guardia Zibilak, drogen kontrako sarekada bat egiteko aitzakiarekin, lau taberna erregistratu zituen eta herriko gaztetxean sartu zen, Euskalduna ontziolako langile batzuk hitzaldi bat ematen hastear zeudela. Zenbait gazte hormaren kontra jarri zituzten gaztetxean, 40 minutuz. Emaiza: bi haxix-zati aurkitu zituzten poltsiko batean. Bertan zeudenak, Guardia Zibilaren jokabidea ikusita, oihuka eta txistuka hasi ziren, eta agenteak gomazko pilotak jaurtitzen hasi ziren, Jose Ignacio Elkoro-Iribe alkateak esandakoei entzungor eginez. Ondoren, manifestazio batek herriko kaleak zeharkatu zituen, indar publikoen eta heroinaren aurkako oihuak botaz.

Urriaren 13a. Zazpiki Irratia irrati libreak bonba-mehatxua jaso zuen.

Urriaren 13a. Goizaldean, Guardia Zibilak gaztetxeko fatxadari zeuden hiru banderak konfiskatu zituen: okupazioarena, “Resiste” zioena eta ikurrina bat.

Urriaren 22a. Istiluak sortu ziren udaletxean gazte antimilitaristen eta Udaltzaingoko kideen artean, lehenengoak kartelak eta zerbitzu militarrean hildako gazteen eskelak jartzen ari zirela.

Abenduaren 10a. Talde batek, burua txanoz estalita, sua eman zion autobus bati, Frantziako estatuak ETAko kide bat estraditatu izanaren kontrako protesta gisa.

Abenduaren 28a. Kontzientzia Objekzioaren Legearen urteurrenean, antimilitarista talde batek Udaleko atea itxi zuen giltzarrapo batekin. Balkoira igo ziren, pankarta bat jarri zuten eta ordubete eman zuten bertan, esku-paperak botaz. Gobernu Taldeak salatu egin zituen, eta Eibarko Epaitegiak isuna jarri zien bederatzi gazteri, agintariei desobeditzeagatik.

1989

Apirilaren 16a. Guardia Zibilak Ana Mari eta Jesus Maria Beristain Beloki elgoibartarrak atxilotu zituen sarekada batean, 25 eta 22 urte zituztela, hurrenez hurren. Guztira hamabi pertsona espetxeratu zituzten, ETArekin Eibar komandoko kide izatea edo harekin lankidetzan aritzea leporatuta. Komando horri leporatzen zitzaizkion Sebastian Aizpiriren eta Patxi Zabaletaren erailketak, Elgoibarren, baita Engraciano Gonzalez Machorena ere, Zarautzen. Guardia Zibilak arma, munizio, kargadore eta lehergailu ugari konfiskatu zituen. Jesus Maria Beristain aske geratu zen hilaren 20an, eta haren arreba Ana Mari Beristain espetxeratua izan zen, ETArekin lankidetzan aritzea leporatuta. Torturak salatu zituen.

Urria. Elgoibarko Guardia Zibilaren kuartela itxi zen.

Azaroaren 21a. Renaulteko eta Correoseko kristalak hautsi zituzten, aurreko egunean Josu Muguruza Guarrotxena (31 urte) hil eta Iñaki Esnaola larriki zauritu izanaren kontra protestatzeko mobilizazio batzuetan. Biak Herri Batasunako ordezkariak ziren, eta Madrilgo Alcalá hotelean gertatu zen.

Azaroaren 22a. Azaroaren 20an Alcalá hotelean gertatutako atentatuarengatik egindako greba orokorraren deialdian, autobus bat eta hainbat kamioi gurutzatu zituzten, eta barrikada batzuei su eman zieten. Banco Santander eta Banco Bilbaoren sukurtsalek erasoak jasan zituzten, eta beirak hautsi zizkieten. Maalan, botilak bota zizkieten udaltzainei.

Abenduaren 22a. TVEren antena bat bota zuten, presoei babesa erakusteko.

1990

Maiatzaren 8a. Gizon batek aizto handi batekin mehatxu egin zien kartel antimilitaristak jartzen ari ziren zenbait gazteri.

Ekainaren 27a. Bi telefono-kabina erre zituzten.

Ekainaren 29a. Su-barrikadak jarri zituzten errepide nagusian, Irunberriko arroilan gertatutakoarengatik protesta egiteko.

Irailaren 14a. Su eman zieten Murias enpresako hiru hondeamakinari.

Irailaren 18a. Autobus bat gurutzatu zuten C-634 errepidean, Nafarroako hiriburuan ETAko militante Mikel Castillo Furtado (23 urte) hil izanagatiko protesta gisa.

1991

Urtarrilaren 15a. Eibarko Ertzaintzaren polizia-etxea inauguratu zen.

Urtarrilaren 21a. Banco Guipuzcoanoko sukurtsalaren inguruak sokaz inguratuta egon ziren hiru orduz, bonba-abisu faltsu bat zela eta.

Maiatzaren 3a. Zenbait liskar sortu ziren, eta 5:30ak aldera, Ertzaintzako kideek gas-negar-eragilea bota zuten gaztetxeko atearen azpitik. Gazteek presaka atera behar izan zuten lokaletik, eta Ertzaintzak haietako hamabost identifikatu zituen.

Maiatzaren 7a. Ertzaintzako istiluen kontrako hiru furgoneta gaztetxera joan eta hustu egin zuten. Beranduago, manifestazioa egin eta une batez batzokia okupatu zuten gazteek; ertzainek kargatu egin zuten eta goma-tiroak bota zituzten inguruetan.

Maiatzaren 8a. Gaztetxea utzarazi izanari kontra egiteko, protestak egin zituzten institutuan eta Meka LHIn, eta salaketa-manifestazio bat ere egin zen. Arratsaldeko mobilizazioan, manifestazioa Udalera iristen ari zela, ertzainek hainbat gazte kolpekatu zituzten. Batzuek Banco Santanderren sukurtsaleko kristalak hautsi zituzten.

Maiatzaren 9a. Gaztetxea eraitsi egin zuten.

Maiatzaren 21a. Gazte bat Ertzaintzaren polizia-etxera eraman zuten, epailearen atxilotzeko agindurik gabe, eta bost orduko galdeketa egin zioten aurreko egunean gaztetxearen harira gertatuko istiluei buruz. Hurrengo egunetan hainbat identifikazio egin zituzten eta zenbait gaztek mehatxuak jaso zituzten telefonoz.

Maiatzaren 30a. BBV, Hispanoamericano eta Guipuzcoano bankuen sukurtsaletako kristalak hautsi zituzten, Lliça de Munt-en ETako bi kide hil izanaren protesta gisa. Hilketak ETak Vic-eko kuartel-etxean bonba jarri (bi guardia zibil eta zazpi senide hil ziren, horietako bost neskatoak) eta hurrengo egunean izan zen.

Abuztuaren 18a. Autobus baten gorpilak zulatu zituzten eta su-barrikadak jarri zituzten, Morlansen, Donostian, ETako hiru kide hil izanaren aurka protesta egiteko.

Abuztuaren 19a. Hamar barrikada baino gehiago jarri zituzten herriko hainbat lekutan, horietako batzuk suzkoak. Ertzaintzak Itziar Irureta atxilotu zuen.

Abuztuaren 30a. Herriko jaietako gazteen egunean, 300 gazte inguruk manifestazioa egin zuten, "Gaztetxea orain" eskaera eginez. Pintura zuten botilak jaurti zituzten udaletxearen eta Batzokiaren fatxadetara, eta azken horretan kristalak ere hautsi zituzten. Gau osoan zehar istiluak egon ziren manifestarien eta Ertzaintzaren artean; izan ere, Bilbon Juan Maria Ormazabal Ibarguen ETako kidea (27 urte) hil izanaren ondoriozko protestak ere batu zitzaizkion aurrekoari. Bilboko istilu horietan hil zen, halaber, Alfonso Mentxaka Lejona ertzaina (29 urte), ETako kideak egindako tiroen ondorioz. Telefono kabina bat eta ONCEren beste bat erre zituzten. Su-barrikadak jarri zituzten etengabe, eta Ertzaintzak gomazko pilotak jaurti zituen; horietako batek 20 urteko legazpiar bati jo zion begian, eta ikusmena galdu zuen. Ertzaintzak lau pertsona atxilotu zituen.

Irailaren 2a. Ertzaintzak KASEk deituriko mobilizazioetan parte hartu zutenei eraso egin zien; hain zuzen, Biboko Begoña auzoan, Ertzaintzak, liskar batean, Juan Maria Ormazabal Ibarguen hil izanaren aurkako protesta-mobilizazioa zen.

Irailaren 11. Arnaldo Otegi Mondragon behin-behinean aske zegoen, 1979an Luis Abaitua Palaciosen bahiketan parte hartu izana leporatuta; bada, Guardia Zibilak atxilotu egin zuen eta espetxera bidali zuen, falta zitzaion zigorraren zatia betetzeko. Manifestazio eta trafiko-etenaldi ugari egin ziren herrian.

Irailaren 13a. Molotov koktel bat jaurti zuten Ertzaintzaren Nissan ibilgailu baten kontra, eta zenbait edukiontzi jarri zituzten barrikada gisa (su eman zieten).

1992

Urtarrila. Zenbait pintada agertu ziren herrian, Elgoibarko EAJko zinegotzi Jose Maria Oruesagastiri “salatari” deituz. Udal-brigadak ez zituen pintada horiek garbitu eta kartel batzuk kendu nahi izan; horrenbestez, Udalak Arsoro enpresa kontratatu zuen, eta poliziaren zaintzapean egin zituzten lanok. Zenbait ezezagunek enpresa horren lokaleko kristalak hautsi zituzten behin baino gehiagotan.

Urtarrilaren 30a. Lehergailu batek eztanda egin zuen Banco Guipuzcoanoren sukurtsaleko erakusleihoan. Gertuko horma batean “Dispersiorik ez. Arnaldo etxera” agertu zen idatzita, Martutenetik Almeriako espetxera lekualdatu baitzuten. Hainbat gaztek deklaratu behar izan zuten polizia-etxean.

Martxoaren 16a. Osoko bilkuraren une batean, hainbat pertsonak pankarta bat zabaldu zuten, “Orue txakurra” idatzita zuena. Izan ere, Jarraiko zenbait kideren izenak agertu ziren EAJren argitalpen batean, pintada batzuk egin zituztela leporatuz. Tentsio handiko uneak izan ziren, eta pankartan aipatutako zinegotziak osoko bilkurara bertaratutako izenak apuntatu zituen.

Martxoaren 21a. Telefono kabina bat erre zuten eta “Jaio etxera” pintatu zuten, 1984tik espetxean zegoen Iñaki Jaio Bustuindui elgoibartarrari babesa erakusteko.

Martxoaren 23a. Zenbait ezezagunek pintadak egin zituzten PSE-EEren Herriko Etxearen fatxadan, besteak, beste hau idatziz: “Pasaiaiko hiltzaileak”.

Apirila. Hiru ibilgailuk erasoak jaso zituzten kale borrokako ekintzetan. Horietako bi EAJ-PNVko zinegotzi Jose Maria Oruesagasti eta Ricardo Garaterenak izan ziren; gurpilak zulatu zizkieten. Hirugarrena Udaltzaingoaren auto bat zen.

Maiatzaren 2a. Beste bi telefono kabina erre zituzten.

Maiatzaren 9a. Udaltzaingoak Elgoibarko Gazte Asanbladari ohartarazi zion ez zeukala gaztetxea eraitsi zen egunaren urteurrenean ekitaldirik egiteko baimenik, eta Ertzaintzak horri buruzko ehunka argazkiko erakusketa bat konfiskatu zuen. Horrez gain, ekitaldiak grabatuta zituen bideo-zinta bat eta zenbait pankarta ere eraman zituen. Azkenean, kargak eta pilota-tiroak egon ziren gazteen aurka.

Maiatzaren 16a. Sarekada handi bat egin zen Uruguain, eta 13 iheslari euskaldun atxilotu zituzten, horien artean Jesus Maria Lariz eta Mikel Ibañez Oteiza.

Maiatzaren 26a. Telefono kabina bat erre zuten Urasandi auzoan.

Ekainaren 25a. Zenbait ezezagunek gas berezi bat isuri zuten herriko Kimetz elkarte abertzalean.

Ekainaren 28a. Ertzaintzak Asier Irureta atxilotu zuen, Jarraiko kidea. Hilaren 30ean, Amnistiaren Aldeko Batzordeak salatu zuen Irurretari dokumentazioa eskatu ziotela eta –erakunde horren arabera– ezin izan ziela eman, ez zeukalako; orduan, jipoitu eta atxilotu egin zuten. Beso bat dislokatu zioten. Goizaldeko ordu txikiak ziren eta bertako futbol-talde baten igoera ospatzen ari ziren. Kendu egin zituzten ertzainen jokabide horren kontrako protesta gisa jarritako kartelak.

Uztailaren 17a. Ertzaintzako eta Udaltzaingoko agenteak Gazte Asanbladak antolatutako kanpaldia desegiten saiatu ziren, baina ez zuten lortu, ez baitzeukaten hori justifikatzeko agindurik.

Uztailaren 23a. Lehergailu bat jarri zuten Batzokian.

Irailaren 8a. Jarraiko kide baten aitaren kotxean “Gora ETA” idatzi zuten, kapotean.

Urriaren 13a. Bi gazte atxilotu zituzten, Ertzaintzan “No les des cuartel” idatzita zuten kartelak jartzen ari zirela. Polizia-etxean biluztu eta fitxatu egin zituzten, baina 1993ko maiatzean absolbitu egin zituzten. Atxiloketa hori salatzen zuten kartelak kendu egin zituzten, baita institutuaren eta MEKA LHIIren barrukoak ere.

Urriaren 24a. Ezezagun batzuek lehergailu bat jarri zuten BBVren sukurtsalean.

Abenduaren 20a. Guardia Zibilak Jon Andoni Altzibar Beloki atxilotu zuen, 19 eta 22 urte arteko beste hiru gazterekin batera; sabotajeetan parte hartu izana leporatzen zieten. Hilaren 22ko goizaldean aske geratu zen, epailearen aurretik igaro gabe, baina publikoki salatu zuen torturak jasan zituela. Besteak beste, adierazi zuen mendira eraman zutela, eta, han, biluzik eduki zutela, kolpekatu egin zutela eta exekuzio baten plantak egin zituztela.

Abenduaren 21a. Jon Andoni Altzibarren atxiloketengatiko protestetan, autobus bat gurutzatu eta errepidea itxi zuten.

Abenduaren 23a. Botilak jaurti zituzten Ertzaintzaren bi ibilgailuren kontra.

1993

Martxoaren 16a. Ikasle multzo handi batek eserialdia egin zuen Rafa Feijoo intsumisoaren aurka aurreikusitako epaiari kontra egiteko.

Maiatzaren 23a. Sebastian Etxaniz Alkorta atxilotu zuten Managuan (Nikaraguan) eta Espainiako agintarien esku utzi zuten; haren bila zebiltzan, hainbat atentatutan parte hartzea leporatuta. 1984ko azaroaren 27an atxiloketa saihestea lortu zuen.

Uztailaren 17a. Ertzaintzak gaztetxearen aldeko kanpaldi bat desegin zuen Maalako parkean. Arratsaldean lau denda jarri zituzten berriro.

Abuztuaren 23a. Ertzaintzak emakume bat eta bost gizon atxilotu zituen, horien artean Rafael Feijoo eta Justo Arriola Etxaniz; tratatu txarrak salatu zituzten. Beste bi pertsona ere atxilotu zituzten, Gazte Asanbladak deituta okupatutako udal-lokal bat husteko ekintzetan argazkiak ateratzeagatik. Horretarako, gas negar-eragileak jaurti zituzten barrutira eta gomazko pilotak bota zituzten kanpotik.

elkartasuna adierazten zutenei. Aske geratu ziren, eta 1995eko martxoan eginiko epaiketan hiru ertzain zigortu zituzten; bati bi hilabeteko espetxe-zigorra eta lesioen kalte-ordainak ordaintzeko betebeharra ezarri zitzaizkion, eta beste bi agenteei bidegabeko isekengatiko isuna: biluztu, iraindu eta gaizki tratatu zituzten.

Abuztuaren 25a. Barrikada bati, telefono kabina bati eta tren-geltokiko makina bati su eman zieten protesta gisa, Xabier Kalparsoro Golmaio (26 urte) eta Gurutze Yanci Igarategi (31 urte) poliziaren zaintzapean hil zirelako, lehenengoa Bilbon eta bigarrena Madrilén.

Abuztuaren 27a. Hiru kamioi gurutzatu zituzten errepidean arrazoi berarengatik.

Azaroaren 9a. Ertzaintzak Alejo Rolo Andres atxilotu zuen, intsumisoen epaiketen aurkako greba batean eserialdi batean parte hartzeagatik.

Azaroaren 10a. Ikasleek giza kate bat eratu zuten Meka LHIIren ondoko espaloian, eta Ertzaintzak borra-kolpeka sakabanatu zituen.

Azaroaren 11. Ekimen antimilitarista batean Xabier Zaldua atxilotu zuten, irainak eta desordena publikoa leporatuta.

1994

Ekainaren 6a. Guardia Zibilak Francisco Javier Aldaz Carrera atxilotu zuen. Aske utzi zuten, epailearen aurretik igaro gabe, eta torturak salatu zituen.

Uztailaren 27a. Udalbatzaren osoko bilkura bertan behera geratu zen; izan ere, Gazte Asanbladako zortzi gaztek pankarta bat jarri zuten eta hainbat udaltzainek kendu nahi zieten, eta ondorioz liskarrak sortu ziren.

Azaroaren 9a. Zenbait ertzain sartu ziren Zazpiki Irratiaren lokalean eta une horretan hizketan ari zen pertsona identifikatu zuten.

Azaroaren 21a. Eraso egin zioten Banco Hispano-Central bankuaren sukurtsalari.

1995

Martxoaren 25a. Burua txanoz estalita, zenbait pertsonak harriak bota eta hainbat banku-erakunderen kristalak hautsi zituzten: Kutxa, Bankoa eta Banco Guipuzcoano. Azkeneko biei su ere eman zieten, baita udalerriko telefono kabina batzuei ere. Hori guztia Alacanten Jose Antonio Lasa eta Jose Ignacio Zabalaen gorpuak aurkitu ondoren izan zen.

Martxoaren 28a. Xabier Zelaia berriro atxilotu zuten, kartelak jartzerakoan.

Maiatzaren 3a. Ertzaintzak Elgoibarko herritar bat atxilotu zuen, polizia-kidego horren kontrako pintadak egitea leporatuta.

Irailaren 7a. Petardo bat lehertu zen Maalako telefono kabina batean.

Irailaren 12a. Lehergailu batek Peugeot-eko kristalak hautsi zituen.

Urriaren 21a. Ertzaintzak J.G.A. eta A.S.R. atxilotu zituen, ordena publikoa asaldatzea eta agintariei jarkitzea leporatuta, presoan eskubideen aldeko manifestazio baten ostean. Bertan parte hartu zuten batzuek zaborrontziak erre zituzten eta autonomia-erkidegoko poliziaren hainbat ibilgailutan kalteak eragin zituzten.

Azaroaren 11. Zenbait ezezagunek Banco Hispanoamericanoren sukurtsaleko beirak hautsi zituzten, euskal presoek elkartasuna agertze aldera.

Azaroaren 22a. Peugeot kontzesionarioko kristal bat hautsi zuten.

Abenduaren 2a. Molotov koktel bat jaurti zuten Banco Santander-en kutxazain baten kontra.

Abenduaren 16a. Su eman zioten Telefónicaren eraikineko panel elektriko bati.

Abenduaren 24a. Ertzaintzak kartoizko kaxa bat leherrarazi zuen BBVren ondoan, lehergai bat zelakoan.

1996

Urtarrilaren 13a. Euskal presoak elkartzeko eskatuz, buruak txanoz estalita zeramatzen zenbait pertsonak barrikadak jarri zituzten leku batzuetan, eta su eman zieten.

Otsailaren 1a. Karakateko hedagailuko goi-tentsioko zutoin bat bota zuten eta, ondorioz, jendea telebista eta irratiak gabe geratu zen hamabi orduz baino gehiago.

Martxoaren 2a. Mapfreko kristalak eta telefono kabina bat hautsi zituzten, kale borrokako ekintza gisa.

Apirilaren 14a. Jose Maria Aldaya enpresaria askatu zuten haren bahitzaileek, 1:15 aldera, Azkarateko gainetik gertu dagoen baso batean (Elgoibarren) 341 egunez bahituta eduki ostean. ETak ordura arte egindako bahiketarik luzeena izan zen.

Maiatzaren 14a. Gazte bat atxilotu zuten, Peugeot-i sabotajea egiteagatik.

Maiatzaren 31. Molotov koktel bat jaurti zioten Renault-en kontzesionarioko arreta teknikoko garabi bati, Nagore Mujikaren atxilotetarengatik protesta egiteko.

Uztailaren 18a. Tecnipe enpresaren furgoneta baten gupil batzuk zulatu zituzten; enpresa hori arduratzen zen baimenik gabeko kartelak hormetatik kentzeaz.

Uztailaren 19a. Molotov koktelak jaurti zituzten Ertzaintzako patruila baten kontra.

Abuztuaren 24a. Goizaldean, Jesus Mari Castaños Iriondok (55 urtekoa eta elgoibartarra), haren emazte Maria Muguerza eta beste lau pertsonak (haietako batek, 41 urteko emakumea, erredurak izan zituen eta bere senarrak oinako hatz bat hautsi zuen) kargu hartu zieten burua txanoz estalita zaborrontziak erretzen ari ziren pertsona batzuei; erantzun gisa, molotov koktelak bota zizkieten. Denek izan zituzten zauriak, baina Jesus Mari Castaños⁷⁸ zauritu zuten larriki; Gurutzetako

⁷⁸ Hiru urte geroago, Jesus Mari Castaños Elgoibarko Odol Emaileen ordezkari izendatu zuten. 1969an hasi zen odola ematen; Mendarotik Elgoibarrera joaten zen beste herritar batzuekin batera, autoz, Odol Emailek San Bartolome kalean zeukaten apartamentu batean odola ematera.

Ospitaleko (Barakaldo) erreduren unitatean egon zen, bigarren eta hirugarren mailako erredurekin. Bere gorputzaren % 18an zituen erredurak, batez ere enborrean eta gorputz-adarretan, eta hainbat ebakuntza egin behar izan zizkieten.

Abuztuaren 24a. Ertzaintzak I.A. atxilotu zuen, 14 urtekoa, atentatu bat eta desordena publikoak leporatuta, baina ez zuten aipatutako erasoarekin erlazionatu. Adingabearen familiak salaketa jarri zion Ertzaintzari, atxilotetan ustez jasan zituen erasoengatik, adingabeak besoa hautsita eduki baitzuen. Haren adina kontuan hartuta, bere ama Maribel Ariznabarretaren zaintzapean jarri zuten, eta deklaratzera eraman zuten psikologo baten, hezitzaile baten eta gizarte-laguntzaile baten aurrera (adingabearen aita espetxean zegoen). Adingabeen Epaitegiak hiru hilabeteko barnealdia ezarri zion urriaren 1ean, baina 1996ko abuztuan absolbitu egin zuen Donostiako Epaitegiak, frogarik ez zegoelako. Fiskalak eta UPV/EHUK egindako txosten batek zalantzan jarri zuten hedabide batzuek kasu honi emandako tratamendua.

Urriaren 4a. Euskal Herriko zenbait institututan panfleto batzuk banatu ziren, Jesus Mari Castañares elgoibartarrari burla eginez (erredura larriak jasan zituen gazte batzuei beren jarrera suntsitzailearengatik kargu hartzeagatik). Besteak beste, hau irakur zitekeen:

Badaude heroi-papera hartzen duten ergel batzuk, kasurako Castañares Elgoibarren: espezie horretako nazkanteei aurre egiteko, komeni da jende espezializatua edukitzea, burdinazko barrekin, borrekin eta, batez ere, aiztoekin armatuta. Faxista bat gerturatzen bada, berehala eraso behar zaio. Julio Zesarri Erromako senatuan baino sastada gehiago eman behar zaizkio⁷⁹.

Urriaren 11. Zenbait ezezagunek etxean egindako lehergailu bat bota zuten telefono kabina batera, eta kiskalita geratu zen.

Azaroaren 30a. Seguros Bilbao-ko beira hautsi zuten eta likido sukoia bota zuten barrura.

1997

Otsailaren 4a. Ertzaintzak Alkorta erakinean okupatu berri zegoen gaztetxea itxi zuen.

Otsailaren 8a. Ehunka pertsonak trafikoa etenarazi zuten C-634 errepidean, HBren Mahai Nazionaleko kideak espetxeratu zituztela eta Alcalá Meco espetxean Jose Maria Aranzamendu Arbulu hil egin zela (41 urte) salatzeke.

Otsailaren 10a. HBren Mahai Nazionaleko kide eta Elgoibarko Rodisa SA enpresako langile (LABera afiliatua) Eugenio Aramburu Landa (41 urte) urkatuta aurkitu zuten Mallabiko bere baserrian, espetxean sartu aurretik.

Martxoaren 4a. Burua txanoz estalita zeramaten zenbait pertsonak harriak bota zituzten Banco Hispano-Centraleko kristalera.

Apirilaren 25a. Etxean egindako lehergailu baten eztanda egin zuen PSE-EEren Herriko Etxean.

Ekainaren 7a. Karakateko hedagailuko beste zutoin elektriko bat eraitsi zuten eta, ondorioz, telebista-eta irrati-emisioak eten ziren hainbat orduz.

⁷⁹ *El País*, 1996-10-05.

Uztailaren 14a. Bi bandera espainiar eta GALen siglak margotu zituzten Herri Batasunako zinegotzi Juan Carlos Marcosen etxebizitzaren atarian.

Urriaren 16a. Oraingoan, HBko zinegotzi Juan Carlos Marcosi bala bat bota zioten bere etxeo balkoira, eta mehatxuak jaso zituen postaz.

1998

Ekainaren 6a. Ertzaintzak C-634ra iritsi behar zuen manifestazio bat desegin zuen, eta liskarrek plaza handiaren inguruan jarraitu zuten. Hainbat pertsonak ubelak izan zituzten eta anbulatorioan zortzi zauritu artatu behar izan zituzten, gehienak gomazko balen ondorioz. Emakume batek 13 jostura-puntu jaso zituen buruan. Gazte bati Ertzaintzari botila bat bota izana leporatu zioten; epaitu eta isuna jarri zioten, nahiz eta lekukoek esan zuten ez zela bera izan. Zenbait ezezagunek Kutxako kristalak hautsi zituzten.

Ekainaren 15a. Frantziako Poliziak Jose Luis Ansola Larrañaga, Peio el Viejo izenez ezagunagoa, entregatu zion Espainiako Poliziari Somporteko (Huesca) mugan, eta han atxilotu egin zuten. Aske geratu zen ekainaren 18an, 1980an atentatu batean parte hartu izanaren akusazioak kendu zizkiotenean.

Ekainaren 23a. Jorge Hernandez, Gorka Fernandez eta Justo Arriola Kutxaren sukurtsal bateko kutxazainean giltzaperatu ziren, protesta ekologiko baten harira. Ateari katez lotuta zeuden eta ertzainak sarrerako kristala hautsita sartu ziren. Kateak mozten zizkieten bitartean kolpeak eman zizkieten borrarekin, eta atxilotuta eraman zituzten. Donostiako Epaitegiak sei hilabeteko kartzela-zigorra eta isuna jarri zien hiru gazteei.

2000

Otsailaren 4a. Martxoaren 20a. Ermuko PPko zinegotzi bat atxilotu zuten Elgoibarko diskoteka batean pistola bat airean astintzeagatik.

Irailaren 13a. Juan Mari Mendizabal Alberdi, AEK koordinakundeko kide ohia, atxilotu zuten Santa Ana kalean; Ekinen kontrako operazio handi batean atxilotu zuten, bertako kide izatea leporatuta. Operazioaren sumarioa 18/98 auzian sartu zen.

2001

Elgoibarko Txillarre baserriko ezkutuko bilkurak hasi ziren, eta 2006. urtera arte iraun zuten; urte horretan, Loiolako elkarrizketak hasi ziren, EAJ-PNV, PSE-EE eta ilegaltzat jotako Batasunaren artean.

Ekainaren 16a. Goizaldean, Ertzaintzako zenbait kidek lehergailu bat kendu zuten PSE-EEren Elgoibarko egoitzatik; eztanda egin baino lehen kendu zuten. Bi kanpin-gas bonbona eta gasolina-txanbil batekin egina zen, eta motxila baten barruan zegoen, Urazandi kaleko egoitzaren atean. Ez zen kalterik egon.

2002

Azaroaren 5a. Fernando Bert Arraetxea atxilotu zuten Frantziako Argen herrian.

2004

Irailaren 22a. Bi banku-erakunderi eta CCOO sindikatuaren Rosario kaleko egoitzari eraso egin zieten molotov koktelekin. Eraikinen fatxadak belztuta geratu ziren, baina ez zen kalte pertsonalik sortu.

2005

Maiatzaren 15a. Goizeko lauak aldera, tenporizadorea zeukan bonba batek hainbat kalte material eragin zituen Elgoibarko Lerun industrialdeko Bernardo Ecenarro pintura- eta esmalte-enpresako horma eta leihoetan. Beste hiru lehergailuk ere eztanda egin zuten Soraluze, Beasain eta Bergarako enpresetan, ETaren estortsio ekonomikoarekin lotuta.

Maiatzaren 26a. Arnaldo Otegi prebentzioz espetxeratu zuten, herriko tabernen kasuarengatik, baina azkenean sumariotik kanpo geratu zen.

2006

Martxoaren 29a. Arnaldo Otegi espetxeratu zuten, martxoaren 9an deitutako greba orokor batean sortutako indarkeriazko ekintzak berak eragin zituela leporatuta.

Azaroaren 26a. Segurtasun-indarrek jakinarazi zuten ETAko kide Arkaitz Goikoetxea eta Jurdan Martitegiren aztarnak agertu zirela Elgoibarren lapurtu eta egun batzuk beranduago Behobiatik gertu abandonatuta agertu zen furgoneta batean.

2007

Martxoaren 8a. Frantziako Poliziak Mikel Ibañez Oteiza atxilotu zuen Parisen, Uruguaitik zetorrela.

Maiatzaren 25a. Eibar eta Elgoibar arteko trenbidea sabotatu zuten.

Ekainaren 8a. Poliziak Donostian atxilotu ostean, Arnaldo Otegi Mondragon Martuteneko espetxean sartu zen 2003ko abenduan, Jose Miguel Beñaran Ordeñana Argala ETAko buru historikoari eskainitako hitzengatik. Auzitegi Nazionalak terrorismoa txalotzen zuela ulertu zuen. 2008ko abuztuan atera zen espetxetik.

Ekainaren 10a. Manifestazioa egin zen, Arnaldo Otegi hamabost hilabeteko zigorrarekin Martuteneko espetxean sartu izana salatzeke. Su-etena hautsi osteko lehen mobilizazioa izan zen.

Azaroaren 30a. ETaren komando bateko kideek furgoneta bat lapurtu zuten Elgoibarren, Behobiara igarotzeko, eta han utzi zuten.

Abenduaren 13a. Zenbait ezezagunek su eman zioten pneumatiko bati PSE-EEren herriko egoitzan; kristalak hautsi ziren eta pertsiana belztuta geratu zen.

2008

Apirilaren 20a. ETak atentatua egin zuen PSE-EEren Urazandiko kaleko egoitzaren kontra; kalteak sorrarazi zituzten alderdiaren bulegoetan, inguruko etxeetako kristal eta pertsianetan eta zortzi ibilgailutan. Ordubete lehenago, ETak DYAr deitu zuen, lehergailua jarri zuela jakinarazteko; kazola batean sartutako hiru kilo amonal ziren. Ertzaintzak sokaz inguratu zuen lekua eta bi etxebizitza osotako jendea aterarazi zuen. PSE-EEren egoitzari beste sei aldiz egin diote eraso.



ETAren atentatua PSOE-EEren egoitzan, 2008an.

Apirilaren 21a. Protesta-kontzentrazioak egin ziren, “Denok elkarrekin, ETaren kontra” lelopean; eguerdian udaletxe aurrean eta arratsaldean Herriko Etxearen aurrean. Udalak kalkulatu zuen hogeita hamar pertsona inguruk jasan zituzten atentatuaren kaltean; Terrorismoaren Ekonomiaren Katedrak 48 kaltetu zenbatetsi zituen.

Apirilaren 26a. Gemma Monreal herriko artistak eginiko koadro bat jarri zen Elgoibarko udaletxearen barruan; koadroak terrorismoaren biktimei eskainitako inskripzio kolektibo bat zeukan.

2009

Urtarrilaren 17a. Ertzaintzak Justo Arriola Etxaniz atxilotu zuen AHTaren kontrako martxa batean, Urbina eta Legutien.

Apirilaren 30a. Polizia-operatibo bat hasi zen goizaldean, eta goizean zehar bukatu zen; bertan, 19/98 sumarioan inputatutako zortzi pertsona atxilotu zituzten, Auzitegi Nazionalak epaia eman arte behin-behineko askatasuna zutenak. Juan Mari Mendizabal Alberdiren senideek jakinarazi zuten Guardia Zibilak goizeko 2:15ean deitu ziela, esateko Mendizabal atxilotu zutela Elgoibarren eta une horretan Intxaurrondoko kuartelean zegoela. Familiak ez zekien atxiloketa noiz izan zen.

Urriaren 13a. Arnaldo Otegi eta ezker abertzaleko beste zenbait militante atxilotu zituzten Donostian, “Bateragune kasuan” inplikaturik egotea leporatuta; hilaren 16an espetxeratu zituzten. 2011ko irailean, Auzitegi Nazionalak hamar urteko kartzela-zigorra eta kargu publikoetarako hamar urteko desgaitasuna ezarri zien, “ETako buru izateagatik”. Alabaina, Auzitegi Gorenak zigorra sei urte eta erdira murriztu zuen.

2010

Urriaren 22a. Polizia Nazionalak Ainara Ladron Urbietak atxilotu zuen eta, Donostiako polizia-etxetik igaro ondoren, Madrilera eraman zuten. Espetxeratu egin zuten. Torturak salatu zituen.

2011

Apirilaren 8a. Mikel Ibañez Oteiza hil zen, minbiziaren ondorioz; baldintzapeko askatasunean zegoen, bere etxean eta zaintzapean, bere gaixotasun larria zela eta. 2009ko maiatzaren 13an, Auzitegi Nazionalak 27 urteko kartzela-zigorra jarri zion ETaren Eibarko komandoari 1988an Francisco Javier

Zabaleta hiltzeko behar zuen informazioa lortzen laguntzeagatik. Espainiar Nazioa Defendatzeko Fundazioak izenburu hau eman zion albisteari, 2009ko epaiaren egunean: “27 urteko kartzela-zigorra ETari narko bat hiltzeko informazioa emateagatik”⁸⁰. Ez dakigu titularra nork idatzi zuen, baina informazio Europa Press-ek emana zen.

2014

Ekainaren 9a. Polizia Nazionalaren Informazio Komisariako agente batzuek Maria Jesus Elorza Zubizarreta atxilotu zuten Madril-Barajas aireportuan, Venezuelatik zetorrela. Poliziak ETAko kide gisa zenbait ekintza gauzatu izana leporatu zion 1948an jaioetako elgoibartarrari.

2016

Martxoaren 1a. Arnaldo Otegi Logroñoko espetxetik atera zen, eta ezker abertzaleko erakundeekin eta ETArekin lotura izandako preso guztiak “etxera” ekartzeko nahia adierazi zuen. Elgoibarko alkate Ane Beitiak harrera egin zion Arnaldo Otegiri eta eskatu zuen “herritar gisa dagozkion eskubide zibil eta politiko guztiak berreskura ditzala”. Horrez gain, nahigabea agertu zuen Otegik “bere jarduera politikoengatik sei urte eta lau hilabete askatasunik gabe igaro zituelako”, eta adierazi zuen espero zuela “salbuespenezko kasu horiek iraganeko kontuak izatea eta, horrenbestez, atzean geratzea. Gainera –gehitu zuen–, euskal gizarteak bizitza politikoaren normalkuntzaranzko bidean aurrera egin behar du, eta ideia eta talde politiko guztiek baldintza berdinak izan behar dituzte, bide politiko eta demokratikoetatik soilik”⁸¹.

2017

Urtarrilaren 30a. Duintasunaren Kolunbarioa inauguratu zen Olaso hilerriaren ondoan; bertan sartu dira Euskal Herriko zenbait herritako hobietan aurkitu ziren 27 pertsonaren arrastoak (gehienak identifikatu gabe daude). Paco Etxeberria auzitegiko mediku eta Aranzadi Zientzia Elkarteko presidentearen hitzetan, kolunbarioaren helburua da “inoiz aurkituko ez diren pertsona guztiak” omentzea. Iñigo Arregui artistaren “Duintasuna” eskultura nagusitzen da nitxoaren artean.

⁸⁰ DENAES. <http://www.nacionespanola.org/esp.php?articulo2272>. Azken aldiz 2017-02-23an kontsultatua.

⁸¹ Ane Beitia alkatearen 2016-03-01eko komunikatua, *EFEk* eta *eldiario.es*-ek jasoa.



Argituz



8. PROPOSAMENAK ETA AZKEN APUNTEAK

Hainbat iradokizun etorkizunean jorratzeko:

- Txostenaren inguruan eztabaida sustatu, udaletxearen esparruan lehenik, herritarrengana hedatuz ondoren; baldin eta lan honetan egindako saiakera eztabaida horretarako tresna baliagarritzat hartzen bada, behintzat.
- Lan honen mugak gainditu, gehiago sakonduz, osatuz eta garatuz. Testuan zehar esan bezala, gertakari ugari dira argitasun gehiago eskatzen dutenak, xede horri begira ikerketa sakonagoa eta partaidetza zabalagoa ere ezinbestekoak direlarik.
- Bizikidetzarako aurrera pausuak ematen jarraitu, erritmoak bortxatu gabe, ezta geldi araziz ere. Aldi berean, iragana ahaztu gabe, ibilbide zein sentsibiltate desberdineko herritarren arteko hurbilketa keinuak edo ekimen desberdinak saia daitezke, xumeenetatik hasita eta zabalkundea sustatuz, herriko bizikidetzat taldearen esperientzia baliatuz, adibidez.
- Biktima guztienganako gerturatzea sustatu. Haienganako aitortzak zein akonpainamenduak gauzatzeko espazioak erraztu beharko lirateke hiru esparrutan: udal mailan, herri mailan eta biktima mota desberdinen artean.
- Gazteengana hurbildu, transmisioa burutu eta ezagutarazi, memoria partekatzearekin batera. Geroari begira familiaren esparrua eta hezkuntza sistema izan ohi dira memoriaren transmisio eremu apartak, ezer baino lehen hainbat ezaugarri -zer, nola, noiz eta abar- argituz eta modu egokian adostuz gero.
- Ikerketa batzordea osatu, drogaren fenomeno soziala aztertu asmoz. Elgoibarren heroinak izan zuen zabalkunde itzela eta herriko gazteengan ekarrarazi zituen ondorio hilkorrak, testigantza gehiegitan azaldu dira salbuespeneko lekukotzaz hartzeko edota zurrumurruen kutxan gordeta jarraitzeko. Hori guztia dela eta, fenomeno larri honen jatorria, zergatiak, arduradunak eta kalteak ikertzea mesedegarri litzateke herriko memoria eraikitzean, motibazio politiko indarkeriarekin loturarik izan ote duen behingoz argitu dadin.

Edonola ere proposamen hauen helburua bakarra da ezinbestean, iraganetik irakaspenak ateratzea, itxuraz gainditutzat ematen den egoera latza eta mingarria etorkizunean berrito errepikatu ez dadin.



9. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

Iturri hauek erabili dira txosten hau egiteko:

Hamar elkarriketa pertsonal.

Hemeroteka digitala eta prentsa, nagusiki El Diario Vasco, El País, Egin eta bere urtekariak, Berria, Gara, ABC... Tarteka, beste batzuk ere erabili dira.

TXOSTENAK ETA ARGITALPENAK:

- AGIRRE AGIRRE, Joxean (koord., 2010). *Gernikako seme-alabak*. Euskal Herria 1960-2010. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa.
- ALONSO, Rogelio; DOMÍNGUEZ, Florencio eta Marcos GARCÍA REY (2010). *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*. Madril: Espasa.
- AMNESTY INTERNATIONAL. *Iraganari aurre egin, etorkizuna eraikitzeko; egia, justizia eta erreparazioa Euskal Herriaren testuinguruan*, 2017, 14. or. <https://www.es.amnesty.org/>
- AMNESTY INTERNATIONAL. *Informe 2016-2017. La situación de los derechos humanos en el mundo. Espainiako kasua*. 2017.
- ARGITUZ (2011). *El largo camino hacia una política pública de víctimas incluyente y respetuosa con todas las víctimas. Informe de valoración de las políticas públicas de víctimas de la violencia de motivación política en el País Vasco*. www.argituz.org
- ARGITUZ, AEN, EKIMEN ELKARTEA, GAC, JAIKI-HADI, OME, OSALDE, UPV-EHUKO GIZARTE PSIKOLOGIA SAILA (2014). *Inkomunikazioa eta tortura. Azterketa egituratua Istanbulgo Protokoloaren arabera*. Eusko Jaurlaritzak finantzatutako argitalpena.
- ARGITUZ (2015). Askoren artean eginiko lana. *Memoria partekatu baterantz*. Errenterian 1956tik 2012ra bitarteko izan diren giza eskubideen urraketek eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena. Errenteriako Udala. http://www.errenteria.net/es/ficheros/9_30917es.pdf
- ARRIOLA, Justo (2016). *A los pies del caballo. Narcotráfico, heroína y contrainsurgencia en Euskal Herria*. Tafalla: Txalaparta.
- FERNANDO BUESA FUNDAZIOAREN ONLINE DOKUMENTAZIO ETA IKERKETA ZENTROA, eta Atentatu terroristen eta horien ondorioen efemerideak (1960-2010). <http://fundacionfernandobuesa.com/web/centro-documental/>
- BAKENGITZA ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA (2015). *Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketek argazkiak, herriz herri, 1960-2010*. Eusko Jaurlaritza.
- BAKEGINTZA ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA (2016). *Toki mailan bakea eta bizikidetzako politikak egiteko iradokizunak*. Eusko Jaurlaritza.
- ETXEBERRIA, Francisco; MARTIN BERISTAIN, Carlos eta Laura PEGO. UPV/EHUKO

IVAC-KREI (2016ko ekaina). *Euskadin gertatutako tortura-kasuak ikertzeko proiektua (1960-2013)*. IVAC-IKREIk Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatuta eginiko jardueraren memoria-laburpena. <http://www.eitb.eus/multimedia/documentos/2016/06/27/1987310/Memoria%20Proyecto%20tortura%202016.pdf>

- EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA (EGK) / CONSEJO DE LA JUVENTUD DE EUSKADI (2017). *Jóvenes y Paz: reflexiones sobre el pasado, oportunidades en el presente, retos para el futuro*. <http://egk.eus/eu/bakea-hiru-urteetan-egindako-lanaren/>

- FERNÁNDEZ, Jonan (2016). *Reinserción y justicia restaurativa en las políticas de convivencia del Gobierno Vasco. "Lehenegoratu eta Terapeutika Justizia: justizia-eredu berritzaileetarako"*. Europako Biltzarra, 2016ko ekaina.

- FONSECA, Carlos (2014). *1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuaren auzibideari buruzko txostena*. *Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatua.

- GESTO POR LA PAZ (2011). *Las víctimas de actuaciones indebidas del Estado en la lucha antiterrorista*. www.gesto.org

- GIZA ESKUBIDE ETA BAKE HEZKUNTZAREN ELKARTEEN FOROA. Foro de Asociaciones de Educación en Derechos Humanos y por la Paz. *Udalerrak bizikidetzaren alde*. EAEko udal-ekintzarako jarraibide etikoak. 2011.

- INTXAURBE VITORICA, José Ramón; RUIZ VIEYTEZ, Eduardo J. eta Gorka URRUTIA ASUA (2016ko martxoa). *ETAk mehatxatutako pertsonak jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)*. Deustuko Unibertsitatearen Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatua.

- INTXAURBE VITORICA, José Ramón; RUIZ VIEYTEZ, Eduardo J. eta Gorka URRUTIA ASUA (2016ko maiatza). *Ertzainek eta haien familiak ETArekin mehatxuaren ondorioz jasandako bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)*. Deustuko Unibertsitatearen Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatua.

- LANDA, Jon Mirena (2008). *Indarkeria politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena*. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritza.

- LASA, Xabier (2014). *Felix Etxebarria Parapango akuilua*. Elgoibar: norberak argitaratua. Felix Etxebarriaren bizitzari buruzko ibilbide bibliografikoa.

- LÓPEZ ROMO, Raúl (2014). *Foronda Txostena. Terrorismoaren testuinguru historikoa eta biktimekiko arreta soziala. 1968-2010*. UPV/EHUren Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak eskatua.

- MARTIN BERISTAIN, Carlos (koord.). *Orain da Garaia. Posible al da esparru lokalean biktimen oroimen bateratzailea?* Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkartea, Gasteiz, 2013.

- NUÑEZ, Luis (koord.) *Euskadi eta askatasuna*. Zortzi liburuki. Tafalla: Txalaparta, 1993.

- OSSE, Anneke (2007). *Entender la labor policial. Recursos para activistas de derecho humanos*. Amnesty International Nederland / EDAI.
- PÉREZ, Kepa (2005). *La violencia de persecución en Euskadi*. Asociación para la Defensa de la Dignidad Humana eta Eusko Jaurlaritzako Terrorismoko Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
- PÉREZ, Kepa (2008). *Secuestrados. Todos los secuestros de ETA. 1970-1997*. Asociación para la Defensa de la Dignidad Humana eta Eusko Jaurlaritzako Terrorismoko Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
- SAEZ DE LA FUENTE ALDAMA, Izaskun (arg.); PRIETO MENDAZA, Jesús, BILBAO ALBERDI, Galo eta Xabier ETXEBERRIA MAULEON. *Misivas del Terror*. Análisis ético-político de la extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial. Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroa.
- VARONA MARTÍNEZ, Gema (2015). José Luis DE LA CUESTA ARZAMENDI, Virginia MAYORDOMO RODRIGO, Alberto OLALDE ALTAREJOS. *Terrorismoaren biktimen memoriarako eskubidea*. IVAC-KREI, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatua.



ERANSKINA

DROGAREN FENOMENOA ELGOIBARREN, 80. HAMARKADAN

Hasierako sarreran esan bezala, Elgoibarren bada 80. hamarkadako fenomeno kezkarri bat sakon ikertzea merezi duena, hain zuzen, heroinaren zabalkunde nahiz kontsumo errazaren arrazoiak bilatzea, baita horren ondorioz sortutako hildako kopuru larriarena ere. Gai hau birritan testigantza batzuetan azaldu denez, eranskin honetan horietako batzuk txertatzea interesgarritzat jo dugu. Hori dela eta, drogaren fenomenoak Elgoibarko bizikidetzan eta indarkeriaren erabilpenean, garai hartan eduki izan zezakeen eraginarengatik, gaia ikertzea neurri egokia litzatekeela iruditzen zaigu.

Inork ez zuen esaterik nahi norberaren umea horretan zegoenikan sartuta.

Egia da heroina probatzen duena, hemezortzi, hemeretzi urterekin ari da probatzen gauza berri bat, nahi du probatu. Hor dago parte bital bat, gizakiona, ez? Baina derrepentean zero egotetik, bat-batean barra-barra izatea hatxisa eta gero heroina? ... Familia gehienetan, askotan ezkutatu, tabu bezala. Familiek bizi izan dute, baina oso barruan, ez da atera kexa bat. Baina zer pasatu da hemen, ez da zabaltu hori. Nire ustez, txosten honetan jaso beharko litzateke. Ezingo da frogatu. Informe Navajas hezurrera ez da ailegatu, ez delako komeni.

Drogen munduak oso ilunak dira eta interes asko nahastuko zen hor. Tartean egoerari etekina ateratzea pentsatuko zuten hainbat pertsona, enpresario edo dena dela ere egongo ziren, seguru, gure herrian bertan. Azken batez inbersio moduan erabili zutenak negozio ilun hau. Enpresario bat, orain hogeita piku urte, 1991n, Guardia Zibilak harrapatu zuen kostatik gertu furgoneta batekin kokainaz beteta. Hurrengo egunean kalean zegoen eta harrezkero ez da gehiago entzun. Nik ez dut nahi inor mindu, baina datuak hor daude.

Herrian, aldaketa handia igarri nuen, kartzelara sartu eta kartzelatik urten nintzenean. Urte horretan izan zan. Kartzelara sartu aurretik jendeak porruak erretzen zituen, giroa polita egoten zan. Baina irten nintzenean jende asko zegoen engantxauta heroinara. Izan zen ez sinistekua, 79tik 80ra. Hor gertatu zen ere jerinjillak ez zituztela banatzen farmazietan.

Lotura pixkat, bai, badauka. Nik uste, mobilizazio asko egon ziren, jende asko inplikatu zen eta jende horretako gazte asko erori zan hor. Kausa-efekto bat? Bai, nik baietz esango nuke. Datuak ez dauzkat. Jendea aplakatzeko, beste gauza batzuetara bideratzeko, ez politikara. Jenerazio bat oso konbatiboa izan zan. Eta nere ustez estatuaren estrategia izan zan.

Estatuaren partetik edo indar polizial zati baten aldetik bazegoela heroina hori mugitzeko nahia edo motibazioa zegoela. Batzuk diote diruagatik besterik ez zela, baina Estatu Batuetan eta Italian ere heroina ibili zebe mugimenduak apaltzeko. Nik uste horren inguruan berdina egin zebela hemen.

Heroina eta narkotrafikoaren kontra egiten ziren gauzak, pintadak, kartelak ipintzen ziren baina gameluen izenik ipini gabe. Ordurako heroinaren mugimendua murriztuta zegoan. Hori 88an izan zan eta 86-87tik aurrera asko gutxitu zan. Ez dakit horrek eragina izango zaban, ez dot uste. Baina atentatuekin mugimendu gutxiago egon zan edo ez? Ordurako nahiko apalduta zegoan.

70eko eta 80ko hamarkadako superbibienteekin egon naiz, Elgoibarko jendiakin, eta esaten didate politikoki ibili zirela burrukan, baina heroinan sartu zirenean, ja lortu zebela herreminta bat bakean egoteko eta ez zebela borrokan ibiltzerik nahi. Asmoa hori zelakoan

nago, utzi jendea sartzen politikatik ateratzeko eta bestetik, guardia zibila ibili zela saltzen. HIESarekin eta beste gaixotasunekin Elgoibarko hildakoak, liburuan agertzen dira 61 izen, baina seguru 80tik gora izango zirela.

... udaltzainek hartu zebeu gimnasio zahar bat, itxita zegoena, eta atxilotze gunetik bihurtu zebeu eta ez dakit zenbat, igual 40 bat gazte pasau ziren handik. Ertzainak ekarri zituzten, ez zegoen zabaldua hemen Ertzaintza oraindik. Hori 85ean izan zan.

Udaltzainak debekatzen zuen xiringak saltzea, hori herriak badaki, gauza jakina da. Munizipalen jefea zan horretan zabilena. Bere ikuspegitik xiringen salmenta geratu behar zan. Ez dakit zer zeukan buruan, bere semea nire laguna zana ere hil zan. Konturatuko zan erabaki harek zer kalte ekarri zaban.

Lehen aipatu dugu drogarena. Hemen lehenengo erreakzioa bakoitzak bere lekutik ematen du. Udaletxetik betiko era konbentzionala, atzerakoa; debekatu egin ziren jeringak farmazietan. Orduan, hori egon zen erabateko beste erantzuna, batez ere Gaztetxe ingurutik.

Gaztetxea oso fenomeno inportantea izan zen. Hor drogaren fenomenoak ikusten zen beste era batera aztertu behar zela. Gaztetxeak egin zuen maila batean lan handia, gauzak antolatzen zituen, jende gazteak hurbiltzen zen, prebentzioaren inguruan, drogen inguruan informazioa ematen zuen. Hor egon zen izugarrizko borroka. PNVk ezin zuen ondo ikusi eta hori bota egin behar da. Udala eta Gaztetxearen artean harremana izan zen infernala. (1991ko) Hauteskundeak baino lehenago PNVk erabaki zuen botatzea. Bota egin zen, giroa zegoen gaiztotuta. Horietako urte batean ETAko militante bat hil zuten, Tturko, tokatu zen. Herria jarri zen hankaz gora. Etorri zen polizia, ertzaina, ...

Drogak Elgoibarren hondamendia eragin du. Arazoa izan zen xiringak partekatzea. Zoritxarrez badituzte arreba galdutako lagunak edo seropositiboak direnak garai haietatik. Zailak ziren garai haiek, Langabezi handia, eta errepresioa izugarri bere ustez, indarkeria ugari, manifestaldiak ere ugari. Orduan, 19 edo 20 urteko gazteek irtenbide gisa erabiltzen zuten. Drogaz hornitzen zituztenak Guardia Zibilak ziren, hori diote lagunak. Benetan zentzugabekeria iruditzen zait, baina egia izan liteke. Ez nuke lepoa jokatu. Ikertu beharko litzateke, egia zantzurik txikiena izatekotan, azken muturrera iritsi arte.

Eta gero eurak Zabaleta eta Aizpiriren kasuan “juicio sumarísimo, pin, pan pun”. Non geratu ziren beraientzat exijitzen dituzten garantia prozesalak? Nik ez dot uste trafikantiak zirenik. Eta gainera, zenbat tokitan maitzen zan droga?... Joan zaite edozein tabernatara eta eskuan daukazu, ez orduan, orain ere. Gaurkoen ondorioak ikusiko ditugu hemendik 10 urtera. Beti errezero iten deu, pentsa dezagun Estatuaren estrategia zala, baina azken hitza zeinek dauka? Zeinek erabakitzen du hartzia? Gauzak berriak probatu, progresia, ... Zirkustantzia hoiek aprobetxatu ziala? Ba ez dakit.

Ni Bilbon hazita naiz eta han esan “elgoibartarra naiz”, ba ni bizi nintzan “en el pueblo de los idosos”. Elgoibarren drogak eragin handia izan zuan. Igoal droga gehixau egongo zan beste herri batzuetan, baina hemen jende asko mordoa hil zan drogen eraginez, jende mordoa. Nik uste dot oso zaila izango dela aztarna edo froga garbixak topatzia. Ahalegina egin beharko litzatekeen gehiago aztertzeke? Ba, igual bai. Baina oso, oso delikatu da.

Egilea / Autor:



Editorea / Editor:



Laguntzailea / Colaborador:



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**